

Jakin *•eus* **200**
herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2014



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakingunea.com

www.jakingunea.com



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



KULTURA SAIA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7 200 zenbaki. Etorkizuna iragana baino handiagoa
Joan Mari Torrealdai

HISTORIA BIZIA

ELEZ ELE

13 Luis Iriondori elkarrizketa
Imanol Murua Uria

Luis Iriondo kultur eragile polifazetikoaren bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: gerra garaiko oroitzapenak; ikasketak; musika eta zinema; kazetari-tza lanak; marketing, harreman publiko eta publizitatea; Garaikoetxearen eta Ardanzaren gobernuetan aholkulari; ETBko lehenengo zuzendaria...

ALEZ ALE

77 Euskal musika giroa 1960ko hamarkadan
Joxemari Iriondo

60ko hamarkadako euskal musika berriaren hastapenak aztertzen dira: Nemesio Etxanizen lana eta ekarpena, Robles-Arangiztarrak eta 50eko hamarkada amaierako euskal kantugintza berria, Mixel Labegerie, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, irratietako grabaketak, dantzalekuetako taldeak...

95 Ikuska saila: ostarte bat laino itsasoan
Josu Martinez

Euskarazko film-dokumental laburren Ikuska sailaren historia osatzen da. Artikuluan zehar, 1978tik 1984ra bitartean ekoiztutako dokumental sorta horren sorrera, helburuak, lan dinami-ka, euskararen tratamendua, emanaldi publikoak eta titulu- en katalogoa aztertzen dira.

113 Euskarazko publizitatea:
sasi artean sustraitzen (1960-1975)
Estitxu Garai

1960ko hamarkadatik aurrera euskarazko publizitatearen es- parruan egindako aurrerapenak aztertzen dira. Loiolako Herri Irratia eta *Zeruko Argia* aldizkaria izan ziren publizitate-eus- karri aipagarrienak, Lan Kide Aurrezkiak egindako ekarpena- rekin batera.

EGUNEN GURPILEAN

125 Ekonomia
Joseba Barandiaran

131 Soziolinguistika
Dabid Anaut

137 Telepolis
Gorka Julio

Interview with Luis Iriondo

The journalist Imanol Murua Uria conducts an extensive interview with the cultural enabler and multi-faceted Luis Iriondo, in a new issue of the series *Historia bizia* (Living History). The interview takes a major look back over Iriondo's life: his childhood in Azkoitia; his recollections of war and the post-war period; his studies with nuns and Salesians; his first job at the age of 13 at the Banco de Vizcaya; his stay in London; the founding of the Kontrapuntoak musical quintet and its successful trajectory; his activity as a composer of Christmas carols; his work as an agent for singers and musicians; his journalistic work in the written press and radio about literature and music; his pioneering work in the field of advertising in the Basque language as the person in charge of marketing, public relations and advertising at Caja Laboral Popular; his move on from industrial film production to the production of the *Ikuska* documentary series; his work as an actor and composer of soundtracks in the world of cinema; his experience as an advisor in communications, public relations and protocol in the Government led by Carlos Garaikoetxea and, subsequently, in that of Jose Antonio Ardanza; and his work as the first director of Euskal Telebista. He also gives us his opinion about a range of personalities from cultural and political life with whom he maintained close contact. **Imanol Murua Uria**

Basque music in the 60s

Joxemari Iriondo analyzes the first steps taken in new Basque music in the 60s: the work and contribution made by the priest Nemesio Etxaniz, the Robles-Arangiz brothers and the new Basque song movement in Bilbao and Bizkaia at the end of the 50s, Mixel Labegerie and the musical environment in the North Basque Country, the prodigious bursting onto the scene of Lourdes Iriondo, the first steps taken by Mikel Laboa, the recordings made on Basque radio stations of many singers, music groups from discotheques, competitions involving eight voice choirs... **Joxemari Iriondo**

The Ikuska series: a break in the clouds

Josu Martinez recovers the history of the Ikuska series –a collection of documentary films produced between the years 1978 and 1984 by Caja Laboral Popular and the production company Bertan Filmeak-. The Ikuska series, according to Martinez, can be considered an interesting attempt to boost Basque National Film. Its beginnings and objectives are analyzed in this article, together with the working dynamics, treatment of the Basque language, public screenings and the list of titles.

Josu Martinez

Advertising in the Basque language (1960-1975)

Estitxu Garai analyzes the advances made in the area of advertising in the Basque language since the 60s: the first instances of modern advertising in the Basque language started to emerge following the interruption as a result of the war and the Franco era. Garai highlights the work carried out by the radio Loiolako Herri Irratia and the magazine *Zeruko Argia* in disseminating advertising in the Basque language, together with the remarkable contribution made by Caja Laboral Popular.

Estitxu Garai

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Joseba Barandiaran, Dabid Anaut and Gorka Julio.

Various authors

200 zenbaki. Etorkizuna iragana baino handiagoa

Joan Mari Torrealdai

Bigarren aldiko 200. zenbakian gaude. Ez da hutsa, maiztasun geldoko aldizkari batentzat: 36 urte igaro dira harrez gero.

200. zenbaki honen abiapuntuan 1977 dago. Orduan txeko birjaio zen aldizkaria Francok inposaturiko isilaldi luze baten ondoren. Abiapuntu berria zen guretzat, eta abiapuntu berria zen diktadorea hil osteko trantsizio politikoan.

36 urte barik 57 urte ditu *Jakin*-ek, ordea, 1956an sortua baita. Eta, hortaz, zenbaki gehiago: 35 zenbaki 1969 bitartean, eta 10 gehiago *Jakin Sorta* bezala hurrengo zazpi urteetan. Guztira, bada, orain arte, 245 zenbakiz osatzen da aldizkariaren bilduma edo hemeroteka.

200: zenbaki biribil horrek atzera begira jartzen gaitu. Atzera begiratu, ordea, modu askotara egin daiteke, gogoratzeko, ezagutzera emateko, azterketarako, autokritikarako, goraiamenerako.

10 urte bete zituenetik hasi ginen gu atzera begira, eta geroztik data seinalatu guztietan egin dugu geldialditxo bat egindako bideari begira: 25 urte egin genituenean, 50 urte egin genituenean, ehungarren zenbakia atera genuenean, 1968an aldizkaria eta ekipoa guztiz aldatu genituenean. Eta orain?

Gaurko zenbaki biribilari ere badagokioke, baina ez dugu egingo. Uste baitugu gure historia jada nahikoa

aztertu eta interpretatu dugula, bi une gogoangarrietan. Zilar ezteietan, 1981ean, *Jakin* aldizkariari eta gerraosteko kultur historiari sekulako jorratua eman genion 400 orrialdetan. Eta beste une seinalatua 2006koa izan da, urre ezteiena. Mahai-inguruetan aztertu genuen *Jakin* bera eta aldizkariak argitara emandakoa. Eta bideoan, sortzaile eta zuzendarien hitzei esker ezagutu genuen historia. Dokumentu horiek guztiak webgunean daude bildurik.

Urrezko ezteietakoan egin genuen bezala une hau eskerrak emateko baliatu nahi genuke, historia eta istorioak atzean utzita. Orduko hitzak dira oraingo geureak:

Eskerrak eman nahi dizkizuegu 50 urteotan *Jakin* bizirik mantentzea posible egin duzuen guztioi: sortzaileak, lankideak, harpidedunak... *Jakin*-ek gaurko egun honetara ailegatu ahal izateko, jende askoren laguntza behar izan du, eta hala izan du... *Jakin*-en bidea ez da soilki gurea, euskalgintzarena da, euskalgintzaren eskuz esku egin duguna: horra mila lankide, horra milaka harpidedun eta irakurle leial.

200 zenbaki atzean, eta beste 200 aurrean: atzera begira barik aurrera begira jarrita gaude aspaldion, beti egon izan garen bezala, bestalde.

Oraintxe urtebete *Jakin* nolakoa nahi zuten galdetuz hainbat kulturgileri inkesta luzatu genien. *Jakin* «birfundatu» egin nahi genuela azaldu genien mezuan, eta aurrekari bat gogoratu, 1967an egin genuena, hots, aldizkaria eta lan-taldea, biak, berriro genituenekoa:

Egungo aldetak badu 1967-69 urteetan egin genuenaren antza. Orduan zuzendaritza ekipoa aldatu zen guztiz, eta ekipo berriarekin heldu zitzaion «etapa berriari», aldizkariaren eta euskalgintzaren etapa berriari, nola eta «gaurrari eta herriari lotuaz». Bestela esan, 1968an haurminetan zegoen euskal kulturgintza berriaren premiei erantzun bat eman nahita plazaratu zen *Jakin* birjaioa. Gaur arte.

Ilusioz beterik planteatzen dugu orain ere Jakinen «birfundazio» dei genezakeen hori. Amets hutsa ote? Zergatik ez bihurtu egitasmo erreal?

Ametsa egia bihurtuta gatoz orain. 2014 urte erabakigarria da Jakinen historian, aldaketaren urtea da.

Hasteko eta behin, Jakin fundazio bihurtu dugu; hau da, kultur elkarte eta elkarte mugatua, biak desegingo dira fundazioa sortzeko. Horrekin, ondare materiala eta ezmateriala osoki gelditzen da Fundazioan euskal kulturaren zerbitzurako. Bazkideak Jakinkide bilakatuko dira.

Irakurtzen ari zaren aldizkari hau berau aldatua dator, arinagoa, malguagoa, modernoagoa. Bestalde, aldizkari analogikoa eta digitala aldi berean kaleratzen dira eta elkarri lotuta guztiz. Irisgarritasunean eta irakurgarritasunean urrats bat gehiago eman nahi izan dugu.

Bestelako berritasunik ere badu zenbaki honek: *Egunen gurpilean* sailean hiru kide berrik esku hartuko dute aurren: Ekonomian Joseba Barandiaranek, Soziolinguistikian Dabid Anautek eta Telepolisen Gorka Juliok. Ongi etorri hiruroi! Bigarren aldaketa beste hau da: urtean behin eskaintzen dugun *Historia bizia* sailean elkarrizketa da nagusi orain ere, baina osatua dator aurrerantzean: solasaldiaren ondoan, pertsonaia elkarrizketuak bere ibilbidean landu dituen hainbat alor aztertu dituzte zenbait adituk.

Produktuetan jauzi kualitatibo nabarmenena webgunean eman dugu. Ez da biltegi bat, bizitza propioa izango du. Areago, digitala lehenetsi dugu: ahal bezain laster jakin.eus bilakatuko gara eta berau izango da gure izarra. Berria eta oparoa nahi dugu. Hainbat atalez osatua dator: aldizkaria, liburu behatokia, argitalpenak, memoria, gogoeta eta biltegia. Mundu bat dago atalburu horietako bakoitzaren atzean, proiektu ugari eta sendo. Guzti-guztiak ez daukagu prest oraintxe bertan, urte osoa hartu baitugu horretarako.

Eta, azkenik (*last but not least*), errelebua, eskualdake-ta. Jakinkide historikook hil arte Jakinen jarraituko badugu ere, gidaritza belaunaldi berri batek hartuko du. Udaberrian egin nahi dugu errelebo hori, maiatzean.

Espero dezagun euskalgintzak asmo eta egitasmo horiek ulertu, sustatu eta bultzatzea.

Badugu, bai, motiborik etorkizuna ilusioz begiratze-ko. Urre ezteien kariaz esan nuen «iragana bezainbeste etorkizun arrakastatsuan pentsatzen hasita gaudela». Gaur askoz baikorrago nago. Askoz hobe izango da etorkizuna, ez iraganaren parekoa. Neure egiten dut ingelesez idazten duen Ben Okri nigeriar olerkariaren ikuspegia: «Our future is greater than our past», alegia, iragana baino handiago da gure etorkizuna, Jakinen etorkizuna. 🍀

HISTORIA BIZIA

ELEZ ELE

- 13** Luis Iriondori elkarrizketa
Imanol Murua Uria

ALEZ ALE

- 77** Euskal musika giroa
1960ko hamarkadan
Joxemari Iriondo
- 95** Ikuska saila: ostarte bat
laino itsasoan
Josu Martinez
- 113** Euskarazko publizitatea: sasi artean
sustraitzen (1960-1975)
Estitxu Garai

Luis Iriondori elkarrizketa

Imanol Murua Uria

Kazetaria

Kantaria, aktorea, publizitate arduraduna, musikagilea, irakaslea, irudi aholkularia, telebista zuzendaria, bidaiaria, dokumental gidoilaria, kontularia, marketing arduraduna, musika ekoizlea, prentsa kazetaria, margolaria, ekoizlea, enpresaria, irrati esataria, musikal zuzendaria... Zer ez da izan Luis Iriondo.

Berak dio lana nerabezaroan eta gaztaroan baino ez zuela egin, Banco de Vizcayaren Azkoitiko sukurtsalean zazpi urtez gelditu gabe lana gogor eginarazi ziotenean, eta geroztik bizitza gozatzea izan dela, eta gozaraztea. Oso gogokoak ditu Noël Coward artistaren hitzak, bere bizitzaren nondik norakoa bete-betean laburbiltzen dutelakoan: «*I believe than since my life began the most I've had is just a talent to amuse*».

Alegia: «Uste dut nire bizitza hasi zenetik izan dudan guztia hauxe besterik ez dela: besteak dibertitzeko talentua».

1931ko maiatzaren 26an Azkoitian (Gipuzkoa) jaioa, 13 urte zituenean lanean hasi zen, musu-truk, Banco de Vizcayan. Haserre dago oraindik banketxearekin, Charles Dickens nobelako Oliver Twisten tankeran tratatu zutela uste baitu. Han ikasitakoarekin ekin zien hurrengo lanbideei, aurrena Azkoitiko Forjasen zuzendaritza idazkari, beste hainbat enpresa txikirentzat administrazio lanak egiten zituen bitartean, eta gerora Laboral Kutxan marketing, harreman publiko eta publizitate arduradun. Iragarkiak euskaraz inork gutxik egiten zituenean aitzindari izatea egokitu zitzaion Iriondori, beste kutxa eta banketxeekin publizitatearen arloan zuen lehian euskara abantailatzat hartzea erabaki zuenetik.

Ogibideengatik baino gehiago nabarmendu zen, ordea, aldi berean amateur gisa egin zituen beste hainbat jardunengatik. *La Voz de España*-n literaturaz, musikaz eta beste hainbat gaietara buruz idatzi zuen astero hainbat urtez, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, eta Loiola Irratian ere sorreratik aritu zen musikari buruzko saioa egiten hamalau urtez, urte batzuetan COPE kate osorako, gainera.

Hedabideetarako baino joera handiagoa izan zuen, ordea, musikagintzarako. Kontrapuntoak boskotearen sustatzailea eta kantarietakoa izan zen. 1961ean sortua, molde eta hizkuntza ugarietan egin zuen kantuan boskote azkoitiarrak arrakasta handiarekin, 1969. urtera arte. Disko txiki, ertain eta luzeen artean, 30 ale grabatu zituzten Bartzelonako Belter etxearekin. Hona batzuk: *My Fair Lady* (1962), *Twistízame* (1962), *Éxitos de los Contrapuntos* (1962), *Villancicos euskaros* (1962), *El pecador* eta beste hiru kanta (1963), *Himnos a la Virgen* (1963), *Navidad vasca* (1963), *Cantos vascos* (1963), *Aquí las Vascongadas* (1963), *Estampas vascas* (1963), *Fiesta Vasca* (1967), *Romería en el País Vasco* (1967), *Agur jaunak* (1967), *Belén vasco* (1967), *Kontrapuntoak euskeraz* (1968), *Los mayorazgos* eta beste kanta bat (1968), *Blanca Navidad*

(1969) eta *Gu Kontrapuntoak* (1977). Diskoen izenburu gehienak gazteleraz baziren ere, abestietako asko euskaraz ziren. Beste hizkuntzatan ere egin zituzten hainbat grabazio: Irving Berlin, George Gershwin eta Frederick Loewe eta abarren abestiak, ingelesez; Charles Trenet, Charles Aznavour eta Léo Ferré, frantsesez, edota Domenico Modugno eta beste, italieraz. Aldi berean eta gerora, beste hainbat abeslari eta musikariren sustatzaile eta ekoizle izan zen Iriondo. Berarekin grabatu zituzten lehen diskoak, esate baterako, Lourdes Iriondok eta Enrike Zelaiak, eta beste talde eta bakarlari hauen ekoizle ere izan zen: Mocedades, Patxi Andion, Xabier Madina, Julio Katania, Salomé, Aur Kantariak eta Unai Hirukoa, besteak beste.

Zinemagintzan ekoizle gisa hasi zen, besteak beste Ikuska saileko 20 atalen koordinatzaile nagusi gisa, musikaren egile izan zen hainbat dokumental, film labur eta luzeetan, eta aktore ere aritu zen azkenean. Lluís Companysen antz handia zuelako aukeratu zuten Generalitateko presidenteari buruzko pelikulan protagonista izateko. Ez zen batere gaizki moldatuko, handik aurrera beste hainbat pelikulatan ere aritu baitzen aktore. Lau pelikulatan aktore ez ezik musikaren egilea ere izan da: *El pico* (1983), *Otra vuelta de tuerca* (1985), *Gran Sol* (1987) eta *Terranova* (1990). Beste bi film luze hauen musika ere berea da: *La casa del pare* (1983) eta *El pico II* (1984). Eta beste pelikula hauetan ere aktore aritu da: *Companys, procés a Catalunya* (1979), *La campanada* (1980), *El vicari d'Olot* (1984), *Bar-Cel-Ona* (1986), *La monja alferrez* (1986), *Oraingoiz izen gabe* (1986), *Kareletik* (1987), *Dos en raya* (1988), *Boinas* (1992) eta *Said* (1999).

Laboral Kutxan lanean ari zen bitartean filmatu zuen Companysi buruzko film luzea, baina hurrengo pelikula gehienek bestelako ogibideetan harrapatu zuten. 1980an Carlos Garaikoetxeak deitu zuen bere lehen gobernuan komunikazio, harreman publiko eta protokolo arloan aholkulari lanetan aritzeko. Ajuria Eneko jauregitik Iurretara

egin zuen jauzi gero Euskal Telebistako lehen zuzendaria izateko 1982tik 1984ra, berak nahi ez zuen arren lehendakariak ardura hori hartzeko eskatu ziolako. Handik bere betiko kutxara itzuli zen, baina luze gabe aldikako lana bihurtu zuen kutxakoa, bestelako jardunetarako asti gehiago izateko. Ajuria Eneko jauregian nagusi berria bizi arren, berekin berriro akordatu ziren. Eugenio Ibarzabalek deitu zion, eta Jose Antonio Ardanza lehendakariaren aholkulari ere izan zen. Ondo konpondu zen harekin ere.

Iriondoren biziaren, bizibidearen eta bizimoduaren hariak jarraitzen ez da erraza, hari solteak ere ugari ditu eta: Azkoitiko Urrategi akademian irakasle izan zen hamabi urtean, garraio enpresa baten nagusietakoa izan zen, *Pippin* musikala ekoiztu zuen 1987ko Euskal Mundu Biltzarrerako, TVEn lanean aritu zen sei hilabetez Manuel Campo Vidalek zuzendutako saio batean, JJK publizitate enpresa sortu zuen... Eskola hamahiru urterekin utzi zuen, baina euskaraz eta gaztelera ez ezik, katalanez, frantsesez, ingelesez eta, «erdizka», italieraz ere moldatzen da.

Baina beti Azkoitian. Munduan gora eta behera ibili da, baina inoiz ez du Azkoitiko etxea utzi. Harro dio bera beste ezeren gainetik azkoitiarra dela eta Azkoititik kanpo ezin-go lukeela bizi. Horregatik, estimatu zuen herrian bertan 2010eko urrian Antonio Oteiza Fundazioak eman zion saria, Ekintzaileari Saria, bizi osoan egindako lanaren aitormen gisa. Urola ibaiaren ertzean bizi da Luis Iriondo, Azkoitiko Ibaiondo kalean hain zuzen, Conchita arrebarekin.

2013ko abuztuaren 13an, 20an eta irailaren 23an egindako elkarrizketen emaitza da ondorengo orrialdetakoa, Iriondok berak idatziz prestatutako hainbat kontakizunekin eta informazioarekin osatuta.

1931ko maiatzaren 26an jaio zinen, Azkoitian. Zer gogoratzten duzu zure lehen urteez?

Gure ama [Evarista Etxaniz Artetxe] jostuna zen, eta josten erakutsi egiten zuen. Hogei neska izaten zituen etxean ikasten. Hori dela eta, gure etxean neskamea izan dugu beti. Lehenengoa amaren ahizpa izan zen, 17-18 urteko neska gaztea, izeko Estefani. Hark hazi gintuen. Amaren ordezkoa zen guretzat, ama baino gehiago ikusten genuen. Izeko Estefanik denbora asko pasatzen zuen Ikas Batzan, bere lagunekin, eta han pasatzen genuen guk denbora. Batzokia bezala zen Ikas Batza. Aktibitate handia izaten zen han. Oso gauza xelebrea pasa zitzaidan han. Ikusten nuen nire lagun guztiak jertse zoragarri batzuekin joaten zirela. Koloretako jertseak, kaiku gorri-urdinak, bonboidunak, oso politak. Gaur egun ere atentzioa ematen didate. Nik halako kaikua nahi nuen, baina aitak eta amak paktua egin zekaten: politika alde batera utzi.

Politika alde batera utzi nahi zutelako kaikuarekin gabe gelditu zinen?

Hori da. Nire lagun guztiak kaikuarekin, eta nik batere ez. Hori izan zen txikitako nire traumarik handiena. Lehenengo iloba izan nuenean, lehen oparia kaiku bonboiduna egin nion.

Francotarrak etorri zirenean, *flecha* eta *pelayoek* tronpetekin eta danborrekin banda egin zuten. Nire lagun guztiek danborrak eta tronpetak zituzten. Nik ere danborra nahi, eta nik danborrik ez. Akordatzen naiz zer edo zer diferentea neukala konturatu nintzela, ez zidatela uzten hau egiten eta bestea egiten. Tronpetak eta danborrak etxe azpitik, eta ni begira.

GERRA GARAIAN

Zer dela-eta politika alde batera utzi nahi hori?

Aitaren [Alfonso Iriondo Seguro] eta amaren familiak oso desberdinak ziren, bakoitza alde batekoa. Baina sekula haserretik ez zuten izan bi familien artean. Oso jende ona bietan, baina bakoitza bere aldekoa. Aitaren familia zen, ez franco-tarra, orduan ez baitzegoen Francorik...

Karlista?

Karlista, bai. Beizamatik etorri zen aitita Azkoitira [Juan Martin Iriondo *Beixama*]. Beizamako sakristaua zen. Amama, Urrestillakoa [Concepcion Seguro]. 11 seme-alaba zeuzkaten. Azkoitiko iloba batek ekarri zituen, Joxe Manzidorrek. Enpresa-gizon inportantea zen. Abarketekin hasi, gero zapatak egiten hasi eta, inork uste ez zuela, derrepente herriko industriarik inportanteena bihurtu zen. Herriko jauntxo zegoen orduan, alkate izan zen gainera. Gure aititaren bila joan zen Beizamara, esanez lana zeukala seme-alaba guztientzat, eta etxea ere ipiniko ziela. Txalet antzeko bat jarri zien. Lehenengo hauteskundeetan udaletxean erronka jo omen zuen Joxe Manzidorrek. Ez dakit zenbat boto ekarriko zituela esan zuen: bere etxeokak, bere arreba eta anaiaren etxeetakoak eta, gero, Beizamatik etorritako osaba-izeko eta 11 lehengusurenak. Gure aititari esan zion: «Osaba, hauei eman behar zaie botoa, hauek Elizaren aldekoak dira eta». Eta denek botoa hari. Hortik aitaren familiaren joera karlista. Gero oso ondorio txarra ekarri zuen.

Zer ondorio txar?

Bi semeren biziarekin ordaindu zuen. [1936ko] Irailaren 20an izan zen, Azkoitia liberatu zuten eguna. Azkoitian agintzen zutenak EAJkoak ziren. Gorririk ez zegoen. Errepublikano bakarra zegoen Azkoitian, *Burruntzali*. Jatetxe bat zuen, eta bandera gorri-hori-morea edukitzen zuen. Beste guztiak,

edo nazionalistak edo karlistak. Gerra piztu zenean, beren ustez karlista nabarmenenak Juin jauregian giltzapetu zituzten, eta haien artean nire bi osaba, bata 23 urtekoa eta bestea 27koa, ezkondua, andrea umezain, hiru hilabetekoa. Akordatzen naiz haiei jaten ematera nola joaten ginen, izeko Bonifaziarekin, aitaren arrebarekin. Bezperan, irailaren 19an, Bilbon Larrinagako espetxetik bezala, EAJkoek atera egin zituzten. Libre zeudela esan zieten, kostatik zetoze la francotarrak, eta alde egiteko mendian barrena. Atea ireki eta kalera atera zituzten. Orduan, mendiz mendi joan ziren, ez Loiola dagoen lekutik baizik eta barruagotik, basotik basora. Lehenengoak zazpi mutil gazte ziren, indartsuenetakoak, gazteenetakoak. Francoren tropak kostan zeuden, eta horiek, euren ustez, kostara ailegatu ziren. Baina Iraetara iritsi ziren. Eta, artean, errepublikanoen azkeneko hondarrak zeuden han. Orduan zer egin zuten? Hartu eta fusilatu. Nire bi osaba eta beste bost azkoitiar mutil gazte.

«Iraetatik Zarautza etortzeko barruko aldetik aldapa hartzen duzun lekuan, hantxe bertan akabatu zituzten gure bi osaba»

Iraetan bertan?

Bai. Ez zara akordatzen nola zegoen monumentua eta nola kendu zuten orain dela urte batzuk? Iraetatik Zarautza etortzeko barruko aldetik aldapa hartzen duzun lekuan, hantxe bertan akabatu zituzten. Nire osaba haiek ez ziren ez karlista ez ezer. Haiek ziren Beizamako sakristauaren semeak. Hartu zituzten akaso egunen batean gehiegitxo edan ondoren oiheren bat bota zutelako. Baina, bestela, ezer ez.

Akordatzen naiz haiek nola ekarri zituzten, irailaren 20an. Bizitzan hartu dudan zaplaztekorik handiena izan zen. Ni kalean nengoen, bost urteko umea. Etorri zen kamioi bat Azkoitiko Miserikordiarra. Gure etxe ondoan zegoen

Miserikordia. Zer ekarriko eta zazpi mutilak hilda, denak odoletan, espektakulu bat. Zuri-zuri eginda gelditu nintzen, eta etxera negarrez. Osaba Joxe eta osaba Felix ikusi nituen han!

Ezagutu egin zenituen?

Noski. Ezagutuko ez nituen ba! Notizia neronek eman nuen etxean.

Aitaren beste bi anaiak frontera joan ziren. Bi hil eta beste bi frontera. Besteak emakumeak ziren.

Eta amaren familia?

Gizonezko guztiak, kartzelara: amaren aita, bi metroko gizona, *Torre Luzea* esaten ziotena [Joxe Iñizio Etxaniz]; haren

«Aitak eta amak
akordioa egin zuten:
familiek egin dezatela
nahi dutena, baina
guk ondo konpondu
behar dugu»

seme bakarra, maiorazkoa; eta bi koinatu. Gudariekin ibili ziren eta harrapatu egin zituzten. Aitona kartzelatik atera egin zuten gaixotu egin zelako, eta zortzi egun baino lehenago hil egin zen. Bi metroko gizona, alajaina! Maite nuen nik! Amona [Ana Alkorta] handik bi hilabetera hil zen. Azkoitiko Etxezaga dorretxe

dotorekoa zen. Erdi Aroko etxea, oraindik ere zutik dago, berrituta gainera.

Garai hartan, nire izeko Tomasak umea izan zuen, Iñaki. Ume horrek, ordurako bi edo hiru urte, aita ez zuen ezagutzen, Larrinagako espetxean zegoelako. Gure aita joan zen jauntxo zegoen batekin hitz egitera, *salbokonduktoa* eskatzeko koinatuarentzat, umearekin Bilbora joan ahal izateko, umeak aita ikusteko. Ezetz erantzun zion jauntxoak: «Ez diat emango. Ez al dik lotsarik ematen, hiri egin diatenarekin? Bi anaia hil dizkiate eta txakur horiek laguntzen ari haiz!». Gure amak esaten zuen bizitzan ez zuela gure aita beste inoiz

negarrez ikusi. Orduan bakarrik. Negar gogorra egin zuela hori esan ziotenean.

Aitak eta amak akordioa egin zuten: familiek egin dezatela nahi dutena, baina guk, zuk eta nik, ondo konpondu behar dugu. Gai horiek ez zezatela eragin famili giroan. Zer azkarrak ziren! Horri esker bakean utzi gintuzten. Gerra ahal genuen moduan pasa genuen.

Bost urte zenituen gerra piztu zenean. Gerra hasi zenekoaz akordatzen al zara?

Bai. Uztailaren 18az. Gu bizi ginen Guardia kalean. Giro hartan, gure aita eta ama beldurtu egin ziren eta sakabanatu egin gintuzten. Ni izeko batzuengana joan nintzen. Bat-batean, tiroak, arratsaldeko hiruretan edo. Tiroak! «Andramariak dituk!», nire artean. Andramariak zirela pentsatu nuenez, etxean ezer esateke atera eta aldapan behera plazara abiatu nintzen. Gure aita disparatuta etorri zen niregana. Bere onetik irtenda heldu ninduen eta: «Gehiago ez mugitu etxetik! Etxetik gehiago ez mugitu!». Nik, berriz: «Zer gertatzen da ba? Andramariak dira!».

Nondik zetozen tiro hots horiek?

Hamar mila pertsonako herri batean denetik dago, tiroak botatzen dituztenak ere bai. Bat edo beste hil zituztenak ere baziren. Gerra hasieran bi bonba bota zituzten Azkoitian. Alemanek. Bonba bat gure etxetik hurre-hurre. Gu bodega batean geunden; bi edo hiru ume, aita-amak eta auzo batzuk, hantxe.

Alarmak jo zuelako?

Alarmak jota, jakina. Beste bonba soro batean erori zen. Akordatzen naiz baita ere, kalean nire osaba batekin nintzela, soldadu nafar batekin hitz egin genuela, soldadu sinpatiko batekin. Hark oparitu zidan abaniko bat, *pai pai* horietako bat. Niretzat altxorra zen!

GOSEA GERRAOSTEAN

Azkoitia guztiz euskalduna zen garai hartan. Kalean dena euskaraz eta eskolan, aldiz, gazteleraz?

Herri guztiaren problema hori zen: %96 euskal hiztunak ginen, baina euskara besterik ez genuen egiten. Guardia zibilen ume guztiek euskaraz egiten zuten. Ez zeukaten beste erremediorik eta! Guk ez genekien besterik, eta gurekin aritzeko euskaraz egin behar. Gauza onartua zen. Hori horrela zen eta inork ez zuen ezer esaten. Oso gaizki egin dute, zeren eta hori da desastre bat, herri osoa analfabetismo hutsera baitzaramaten. Erdaraz ari ziren kolegio guztietan, baina jendea zen euskalduna goitik beheraino, eta kito.

Gure aitak eta amak bazekiten erdaraz, aita seminarioan egonda zegoen eta. Kultura maila bat zuten gutxietakoak ziren. Gure ama talentu handikoa zen, baserriko emakume talentudun horietakoa, eta konturatu egin zen zer pasatzen zen. Orduan, Azkoitiko beste familia inportante batekin eta beste señora batekin elkar hartuta, hiru emakume ekarri zituzten Nafarroako Villafrancatik [Alesbes], neska. Gure etxera Josefina Ruiz Iriarte etorri zen. Erdaraz zekielako eta euskaraz ez zekielako ekarri zuen gure amak.

Beste umeek baino lehenago ikasi zenuten, beraz, gazteleraz.

Emakume hura Azkoitira ailegatu zen, bakarrik, zakuan meloi batzuk opari zekartzala... eta zera kontatzen zuen gero: «Bi hilabete egin nituen negarrez eta, azkenean, ni hasi nintzen euskaraz hitz egiten, eta zuek gazteleraz, ezer ez». Herri osoan gazte bakarra omen zegoen erdaraz egiten zuena, *Konfitero*, eta senargai hartu behar izan omen zuen, norbaitekin hitz egin ahal izateko.

Gu hasi ginen, azkenean, erdaraz ikasten. Aitonak, amaren aitak, erdaraz ez zekien, eta niri tarteka liburu bat ematen zidan, erdarazkoa, eta leitu egiten nion. Harro bera! Hark

uste zuen ni apaiz edo doktore izango nintzela, leitzen ikasi nuelako eta gainera erdaraz nekielako. Gu, arreba Conchita eta biok, izarrak ginen joaten ginen eskoletan. Ni, 9 urterekin, katekesi lehiaketa batera joan nintzen Bartzelonara Azkoitiko salestarren eskolako ordezkari, eta bigarren saria jaso nuen ehun gazteren artean. Bartzelona dena puskatua zegoen, gerragatik.

Zer gogoratzen duzu gerra osteko Azkoitiaz?

Garai txarra zen. Nire lagun piloa hil zen tisiak jota. Umeak hiltzen ziren! Garai

hura beldurgarria izan zen. Beti esan izan da batzuek irabazi egin zutela, baina denek oso gaizki pasa genuen. Oso gaizki! Batez ere 1942tik aurrera. Alemanen egoera okertzen hasi zenean, guretzat ere okertzen, eta urte askoan.

Ni orduan Berrosetara eramán ninduten, amaren familiaren baserrira. Azkoitia eta Loiola artean dago Berroseta. Hiru baserri daude, oso politak. Nire aititarena zen bat. Txikitan ere joaten ginen. Gerra oste hartan, zortzi urte nituenetik, hiru urte egin nituen baserrian, osaba Agustin eta izeko Antonirekin, etxean aho bat gutxiago izateko. Baserrian lana egiten nuen! Itulan, edateko ura ekartzen baserrira, azpiak egiten behiei... Astoa eta sei behi zeuzkaten. Haiek hartu, mendira joan, eta arratsalde guztia egiten nuen sagasti artean jarrita haiek zaintzen. Lan asko. Mutil-koskorrek baserrian egiten dituzten lanak. Gogortu egin ninduen horrek.

Noiz arte izan zen gose garai hura?

1952an soldaduskara joan nintzen arte iraun zuen errazionamenduak. Amerikarrak europarrei laguntzen hasi ziren arte, hona ez zuten bidaltzen laguntasunik, Franco erlaziorik gabe

«Guk ez genuen izan tisirik, baina beste familatan umeak, gazteak, zaharrak... zenbat jende hil zen orduan! Zer janik ez zegoelako»

gelditu zelako. Hor egon ziren hiru edo lau urte izugarriak. Gose-gosea. Gosea bakarrik, ez. Guk ez genuen izan tisirik, baina beste familiatan umeak, gazteak, zaharrak... zenbat jende hil zen orduan! Zer janik ez zegoelako. Hil ziren batzuen izenak gogoan ditut: Joakintxo, Mikel, Fernandito... Guri granoak atera zitzaizkigun gorputz osoan. Grano piloa. Jasateko modukoak. Aita eta ama libratu ziren, baina, anai-arreboi, denoi: Conchita, Mila, Inazio eta lauroi. Teresita ordurako hila zegoen, eta Miguel Angel, seigarrena, artean jaio gabe. Orduan gure etxean ez zegoen bainugelarik. Gauero-gauero barreino handi batean sartzen gintuzten banaka-banaka, xaboiarekin amak denok garbitzen gintuen, eta gero pomada bat goitik beheraino. Pomada hori Zumaiako portutik ekarzen zuen aitak, estraperloan erosita.

Zer gaitz zen hori?

Elikatze txarra. Errazionamendupean ginen. Oinarrizko jakiak gaizki etortzen ziren. Ogi gorri-gorria ez dakit zerekin egiten zuten. Artoarekin eginez gero edo zer hobea irten-go zen. Artoa luxuzko artikulua zen ia. Izugarria izan zen. Hortaz ez da eskribitu. Oso gaizki pasa genuen.

Gerra ondorengo garai hartan, gero, alemanen eragina zegoen ikaragarria.

«Armada alemaneko urpeko ontzi batetik ihes egindako soldadu batzuek egonaldia egin zuten Azkoitian»

Azkoitian?

Azkoitian gehien leitzen ziren errebistak badakizu zein ziren? *Signal* eta *Adler*. Errebista alemanak, erdarara itzulita. Zinean ere, alde batetik espainiar pelikulak zeuden, frankistak. Zine mutua ikustera eramaten gintuzten, baina batzuetan soinu eta guzti izaten zen. Bat izan zen *Raza*,

Franco bera gidoilari zuena, eta beste bat *Sin novedad en el Alcázar*. Baina, bestetik, alemaniar zinea ikusten genuen. Izen

asko eman ditzaket, zuzendari eta aktoreak: Marta Eggerth, Jean Kiepura, Lilian Harvey, Hans Albert, Leni Riefenstahl, Luis Trenker, Lil Dagover, Marika Röck... Hori ez da esaten, baina hala zen.

Gainera, armada alemaneko urpeko ontzi batetik ihes egin-dako soldadu batzuek egonaldia egin zuten. Frankistek harrrapatu zituzten eta, gerrako arauak hausteagatik kartzelara sartu beharrean, Azkoitiko kanpoaldeko bainuetxe batean jarri zituzten. Hiru edo lau urte egin zituzten han. Urpeko ontzi bateko tripulazio osoa. Nik ez dakit zenbat izango ziren, 60 edo 80 bai. Azkoitian bainuetxean, [mundu] gerra bukatu arte. Andregaiak-eta egin zituzten Azkoitian. Alemanak jende kultibatua ziren. Gu orduan hasi ginen jakiten zein zen Hitler, zein zen Goethe... Mutil koskorrak ziren, baina elkartzen gintuzten eta Alemaniari buruz hitz egiten ziguten. Eragin zuzena zen, oso zuzena. Eragin nazia.

SALESTARRAK ETA BANKETXEA

Eskolan nondik nora ibili zinen?

Aurrena mojekin izan nintzen, zazpi urte arte. Gero, salstartarekin, zortzi urte nituenetik hamahiru urte egin arte. Oso ondo prestatuta zeuden irakasteko. Oso oroimen ona dut nire lehen bi irakasleei buruz, biak nafarrak. Don Gregorio Aierra, Undianokoa, eta bereziki Don Javier Rubio, Faltzeskoa. Aparteko maisua izan zen Don Javier. Nire oinarrizko hezkuntza osoa beraiei zor diet, bai pedagogiaren aldetik eta bai etikaren aldetik. Dena beraien eskutik ikasi nuen. Gainera, sinesmen erlijioso sendoa jaso nuen haiengandik.

Salstarretan nintzen garaian, lagunuen inbidia nuen, *flecha* eta *pelayoekin* ibiltzen zirenez danborrak eta tronpetak ziztuztelako. Nik zerbait nahi nuen, eta ez nintzen gelditu eskolak danbor-jole eta tronpeta-jole banda eratu zuen arte.

Sustatzaile bezala, hura izan zen lehenengo akzioa. Bonboi jertserik gabe gelditu nintzen lehen, baina danbor eta tronpetarik gabe ez nintzen geratuko.

Floreaga eskolan, salestarretan, antzerki asko egiten zen. Eta ni oso aktore txarra nintzen nonbait. Bakar-bakarrik jartzen ninduten señorito paperean, Muñoz Secaren komediatan.

Aktore bokaziorik ez, nonbait, garai hartan.

Nik txikitán esaten nuen eskultorea izan nahi nuela, jaiotzetako figuratxoak gustatzen zitzaizkidalako. Baserrian buztinarekin egiten nituen eta taula batean ipintzen nituen, sikatzeko. Egun batean izeko Antoni agertu zen. Igeltsu zaku bat ekarri zidan, eta meza liburu bat, *Mi Jesús*. Kontua zen nire arreba hil zela, Teresita, 4 urtekoa. Hori esateko, opari hori ekarri zidan. Esan zidan, eta ni lasai, igeltsu zakuarekin txundituta nengoelako. Momentuan zorionsua izan nintzen, baina, arrebaren hutsunea sentitu nuenean gero, depresio batzuk sufritu nituen isiltasunean. Oso gaizki pasa nuen. Handia izan zen nire baitako tristura. Oso gauza tristeak kontatzen ari naiz, baina nire bizitzaren lehen parte hau oso tristea izan zen.

Noiz arte izan zinen salestarrekin?

Hamahiru urte bete berritan utzi nituen salestarrak. Lehenago esan dut Bartzelonara joan nintzela katekesi lehiaketa batera, Azkoitiko eskolaren ordezkari. Hurrengo urtean antzeko deialdi bat egon zen Madrilera joateko. Nik irabazi nuen berriro ere Azkoitian, baina ez ninduten eraman. Azkoitiko ordezkariarik gabe egin zuten Madrilgo lehiaketa. Nik, amorratuta, salestarrak utzi nituen. Diplomen banaketarako ekitaldi dotorerara joan ere ez nintzen egin. Orduan, akademia batera joaten hasi nintzen, Zabalaenera, Azkoitiko akademia bakarrera, nire oinarrizko ezagutzak osatzera. Kontabilitatea, takigrafia, merkataritza kalkulua... ikasi nituen Miguel de Aranbarri irakaslearekin. Oso irakasle ona zen. Urtebete edo egin nuen.

Banco de Vizcayan noiz hasi zinen?

13 urterekin. Egun batez, lagun batek esan zidan Banco de Vizcayara agertzeko. Berehala joan nintzen eta, gerenteak ikusi ninduenean, ea galtza luzeak nituen galdetu eta hurrengo egunean lanera etortzeko esan zidan. Ez kontratu, ez soldata ez ezer, lanean hasi nintzen. Gizon potolo-potolo bat zen gerentea, bere negozioetara dedikatzen zen lotsagabea. Niregan konfiantza jar zezakeela ohartu zenean, lanera ez etortzen hasi zen. Askotan hamabost egunez ni bakarrik aritzen nintzen. Kobrantzak dendaz denda egiten aritzen nintzen, Azkoititik Aizarnazabaleraino, bizikletan. Eta arratsaldean, barruko kontuak egiten aritzen nintzen. Damutzen naiz han neurea zena eskutik kobratu ez izana. Ez zidaten ezer ordaintzen, eta hori larria zen gure etxeko egoeran.

«Dickensen nobelatan gerora ikusi nuena jasanarazi zidaten niri Azkoitiko Banco de Vizcaya-n»

Ezer ez?

13 urtetik 18 urte arte ez zidan ezer ordaindu. Gero, bai. Dickensen nobelatan gerora ikusi nuena jasanarazi zidaten niri. Asto bat bezala egiten nuen lan. Iluntzean bukatzen nuen normalean. Bederatzi urtean ez nuen oporrik izan. Urte horietan guztietan ez nuen egun bakar batean huts egin. Carmelo Basabe zen probintzia osoko nagusia. Piztia bat zen. Putakeriarik handienak pasarazi zizkidan.

Arratsalde batez, Zestoan eta Azpeitian kobrantzak egiten aritu ondoren, banketxean kontuak egin eta gero, bazkaltzera joateko prestatzen ari nintzela, txirrist egin, erori eta eskuineko besoa dislokatu nuen. Oraindik hori dut lesioa. Izututa etorri zen gerentea. Bederatzi egun zeramatzan agertu gabe. Elgoibarko traumatologo ezagun bat ekarri zidan, bazekien-eta zer zetorkion gainera, berak ez zekielako ezer banketxearen martxaz, nik eramaten nuelako dena. Carmelo

Basabek ondo zekien hori. Gogoratzte hutsarekin Banco de Vizcayari su emateko gogoia sartzen zait. Orain, nire bizitzako garai zoritxarreko hartan zera irabazi nuen: barruko indarra, abiada, lanerako ezagutzak eta harreman pertsonal zabalak. Lana orduan egin nuen nik! Ordutik aurrera lanik ez dudala egin esaten dut. Lana egin dut, noski, baina lana nire terrenora ekarrita.

Nola bukatu zen Banco de Vizcayako garai hura?

Istripua izan nuenean, banketxera ez nintzela itzuliko esan zion amak gerenteari. Baina, une hartan, jarraitzea interesatzen zitzaidan niri, urtebetera soldaduskara joan behar bainuen, eta soldadu baldin bazinen soldata ordaindu egiten zizuten Banco de Vizcayan. Donostiara joan nintzen soldaduskara. Hortaz, soldaduska bukatu arte banketxean jarraitu nuen, soldatagatik.

AUTODIDAKTA

Eskola 13 urterekin utzi zenuen eta geroztik lanean jardun zenuen, baina zeure kabuz ikasteari ez zenion utzi. Zertan aritu zinen urte haietan guztietan, formazioari dagokionez?

Azkoitiko nire lehengusu aberatsek bekarekin ikasteko eskaintzak egin zizkidaten, baina beti ere erreztatzeko eta apaiz izateko. Katoliko leiala naiz ni. Oso fededuna. Jende askok pentsatzen duenaren kontra, astero mezetara joaten direnetakoa naiz. Txikitlan erakutsi bezala betetzen ditut bete beharrekoak. Eta hori, elizara iristea kosta egiten zen oso leku bixietan ibili naizela. Baina mezetara joaten ez banaiz, ez naiz lasai gelditzen. Hori horrela da, baina inoiz ez dut apaiz izan nahi izan. Bilbon bazen eskola profesional moduko bat, horretara joaten saiatu ginen, baina gure ongileek esan zuten

ezetz. Apaiz izateko, nahi nuen lekura, baita Erroma ere, baina besterik ez zidaten eskaini inoiz. Ni apaiz? Ezta pentsatu ere.

Musika ikasten ere hasi nintzen, 16 urterekin, etxean pianorik gabe. Azterketarik egiteko asmorik gabe hasi nintzen, inoiz ez nuen pentsatu musika ogibide izango nuenik, eta azkenean zazpigarren mailaraino iritsi nintzen.

Garai hartan, gauzak ezagutzeko gogo izugarria nuen. Literaturaz oinarri pixka bat banuen ordurako, betidanik irakurle porrokatua bainintzen. Gainera, bi maisu izan nituen aldamenean, biak ni baino urte batzuk zaharragoak: Juan Ignacio Uria eta Luis Forcada. Asko ikasi nuen biengandik. Juan Ignacio Uriari zor diot nire literatur formazioaren oinarria, klasiko frantsesetatik germaniar eta errusiar egileetaraino. Europar literatura osoa, oro har. Luis Forcadari, aldiz, hizkuntza frantsesa hain azkar ikasi izana zor diot, baita music-hall amerikarraren, komedia musikalen eta beste hainbat gutuzien ezagutza ere. Kantagintza frantsesaren espezialista bihurtu nintzen, Charles Trenet kantautorearen 500-600 abestiak erreferentzia hartuta. Kantagintza frantsesaren eta europarraren aita zen Trenet. Handiena, hala ere, Luis Forcadak bere etxeko garbaran liburu harrigarri bat aurkitu zueneko izan zen.

Zer liburu?

Marcel Prousten *Por el camino de Swann*, Pedro Salinasek itzulua. Itxuraz, ez hasierarik ez bukaerarik ez zuen testua zen. Txundituta utzi gintuen, eta obra horri buruzko informazio bila hasi ginen. Ortega y Gasseten entsegua topatu genuen, eta helbidea Sao Paulon zuen Elkarte Proustiar batengana ere iritsi ginen. Haiek helarazi zizkiguten Prousten lan gehiago, besteak beste *A l'ombre des jeunes filles en fleurs* eta *Le côté de Guermantes*. Nire

«Formazio akademikorik gabea, Prousten irakurketak informazio entziklopedikoa eman zidan bizitzaren oinarritzko gauzetarako»

formaziorako erabakigarria izan zen Prousten deskubrimen-
dua. Formazio akademikorik gabea, Prousten irakurketak
eta azterketak informazio entziklopedikoa eman zidaten bi-
zitzaren oinarritzko gauzetarako. Hori guztia Luis Forcadari
zor diot.

Euskararik ez zenuten landu eskolan. Eskolatik kanpo?

Leitu. Zugasti eta Iriondo apaizak, familiakoak biak, *Zeruko Argia*-ren fundatzaileak ziren. Badakizu zer utzi zidaten he-
rentzian? Auspoa bilduma. Nire logelan dago. Gure etxea
dena liburuz betea dago.

Akordatzen zara euskaraz irakurri zenuen lehen liburua zein zen?

Gure etxean liburu bat bakarrik zegoen: *Argi donea*. Zer ne-
kien nik? *Argi donea*. Buruz nekien. Gero, Teresita arreba hil
zenean, izekok *Mi Jesús* meza liburua ekarri zidan, igeltsu
zakuarekin batera. Gaztelera. *Argi donea* eta gero, euskaraz
zer? Asko ez zegoen. Arantzazuko errebista. Besterik ez naiz
akordatzen, baina leitu asko egin dut.

Soldadutza Donostian egin zenuela esan duzu. Hirira, beraz.

Besapean Prousten obrak neramatzala iritsi nintzen Donos-
tiara, Gobernu Militarrean soldaduska egitera. Mundu bat
ireki zitzaidan. Donostian antzerki eskaintza izugarria nuen:
zazpi antzerki areto zeuden irekita udan, eta bizpahiru ne-
guan. Udan, konpainia profesional guztiek estreinaldiak egi-
ten zituzten, neguan Madrilen eta Bartzelonan egingo zituz-
ten emanaldienak. Bi denboraldi haietan ez nuen estreinaldi
bakarra galdu. Antzerkirik berriena ezagutzeko aukera izan
nuen. Rafael Munoa marrazkilari eta pintorea laguna nuen,
eta harekin akuarelan eta naturalean pintatzen ikasten hasi
nintzen. Tarteka pintatzen nuen, hamar bat urtez. Asko pin-
tatu nuen. Gero utzi egin nuen.

Bizimodu ona izan nuen, gainera. Donostiako senar-emazte batzuk lagun egin nituen, Inazio Oskaritz eta Julia Perez, eta haien etxean bizi izan nintzen soldaduska egiten nuen bitartean. Primeran zaindu ninduten. Soldaduska bukatu ondoren ere han jarraitu nuen pixka batean, baina amak deitu zidan. Banekien nire beharra zeukatela, eta Azkoitira itzuli nintzen. Agur esan behar izan nien nire Julitxu eta Inazio maiteei, baina bizitzan ez dut ahaztuko haien borondatea eta nirekin egin zutena.

Banketxera itzuli zinen?

Itzuli nintzen, baina gutxirako. Donostiatik albiste on batekin nentorren. Oñatiko enpresa bat, Forjas Zubillaga, Azkoitira zetorren, lantoki handiagoa egiteko asmotan, gainera. Acerías y Forjas de Azkoitia altzairu eta forja fabrika sortzear zen, 700 langileko lantokia. Zuzendaritzako idazkari izatea proposatu zidaten. Banketxean, lana astoari bezala eragin ondoren, probintziako edozein bulegotan gerente jartzea eskaini zidaten. Nik aukeratzeko. Antzarak ferratzera bidali nituen. Forjas etorri arte itxoin nuen, eta kito. Hor bukatu zen. Ahaztu nirekin!

LONDRESEN, 'MY FAIR LADY'

Zenbat urterekin hasi zinen Forjasen?

22-23 urterekin. Forjasen egiten nuen lanaz gain, diru gehiago ematen zidaten beste lauzpabost lantxo nituen, bi jatetxeren, etxegile baten eta beste hainbaten administrazioa eramaten. Gainera, akademia batean ere aritu nintzen irakasle.

Zer akademia? Zer irakasten?

Urrategi akademia. Gau eskola bat sortzeko eskatu zien Udalak nire bi laguni, oinarrizko ikasketak osatzeko aukera

emateko 14 urtetik gorako neska-mutilei. Administrazioa, kontabilitatea, frantsesa eta halakoak irakasten zituzten, sortzen ari zen industrian beharrezko ziren enplegatuak formatzeko. Bi lagun haietako bat ezkondu eta utzi egin zuen, eta nik bera ordezkatzeari proposatu zidaten. Lan sozial ederra zen, ondo ordaindua gainera. 60 bat ikasle etortzen ziren, bi taldetan banatuta. Baziren gu baino ikasle zaharragoak ere. Emakumezkoak askoz azkarragoak eta langileagoak ziren. 11 urtez aritu nintzen han. Oraindik ere ikusi egiten dut Azkoitian akademia hark egindako lanaren arrastoa. Nire bizitzako poz handienetakoa da.

Garraio enpresa bat ere sortu zenuten...

Bai. Transportes Urbis. Hiru lagun onekin sortu genuen enpresa, Forjasko altzairua garraiatzeko, bereziki Bartzelonara. Garairik onenean hamabost kamioi, hogeitxofer eta enkar-gatua izan zituen. Lan handia egin genuen, eta bere etekina eman zigun.

Forjasen eta akademian lanean ari zinen bitartean hasi zinen musikaren munduan eta beste hainbat saltsatan, ezta?

«Londresen zerbait erabakigarria ikusi nuen: 'My Fair Lady'. Han ere harridura sortzen ari zen, eta niri zuzur eta lur geratu nintzen»

Ordurako inimizazio-bidaia bat egin nuen European, Bruselako Expoa zela eta. 1958 arte ez zegoen muga pasatzerik pasaportea eta bisarrik gabe. Urte hartan, Londreseraino joan ginen lau lagun deskapotable hori batean. Bat oriotarra, Iñaki Zaldua, eta beste hirurak azkoitiarrak, Jose Luis Karetxe, Miguel Ulazia eta ni. Bruselara aurrena, handik Brujasera, gero Belgikako iparrera, ferrya hartu, eta Londresera. Oso irteera inportantea izan zen niretzat. Londres garai hartan hiri victoriarra zen, iluna eta grisa. Taxi eta kotxe guztiak

kearen kolorekoak ziren, eta gu deskapotable hori deigarri batekin agertu ginen. The Beatles iristeko sei urte falta ziren oraindik. Covent Gardeneko lehenengo dantzariarekin egin genuen topo han, Pirmin Treku zarautzarrarekin. Gurekin ateratzen zen ia egunero. Lehen mailako artista, eta oso pertsona atsegina.

Londres zergatik izan zen garrantzitsua?

Haustura bat izan zen lehenengo irteera zelako. Zuk ba al dakizu zer den hori? Sekula hemendik ateratzeke. Inork ez zuen irteten. Eta, gu, derrepente, hartu eta Londreseraino. Hilabete eta gehiago gainera.

Nik Londresen zerbait erabakigarria ikusi nuen: *My Fair Lady*. Londresen ere estreinatu berria zen, harridura sortzen ari zen, eta ni zur eta lur geratu nintzen. Esango duzu: ez zenuen ulertuko. Ba, bai. Irakurle ona nintzelako. Bernard Shaw-ren *Pygmalion*-en oinarritua dago *My Fair Lady*, eta nik ordurako irakurri nuen *Pygmalion*. Elkarrizketa guztiak ez nituen jarraitzen, baina libretoa, bai. Itzuli nintzenean, *My Fair Lady* hemen egiteko asmoa ekarri nuen. Liburua, partiturak eta diskoa, denak ekarri nituen. Ideia guztiz burugabea.

Nola egin nahi zenuen *My Fair Lady*? Euskaraz, gazteleraz...

Aurreneko ideia bertasio bikoitza egitea zen, euskaraz eta gazteleraz. Zati batzuk itzuli ere egin nituen euskarara. Educación y Descanso-koekin harremanetan jarri nintzen, eta segituan bota zidaten atzera ideia hori. Ezinezkoa zela. Baina gaztelerazko proiektua babesteko aukera bazegoela esan zidaten. Horretara jarri nintzen buru-belarri. Musikal batean zailena ez da liburua itzultzea, zailena da alde musikala egokitzea, azentu fonetikoek konpasetako azentu gogorrekin bat egin dezaten. Bi hilabete-tan prest nuen lehen zirriborroa. Baina, orduan, proiektuaren tamainak beldurtu egin zituen, eta huts egin zidaten.

Gero, lagun batzuen bitartez, *My Fair Lady*-ren eskubi-deen jabearen Espainiako ordezkariarekin harremanetan jarri

nintzen. Augusto Algueró musikari eta ekoizle famatua zen Chapell International-eko ordezkaria. Algueró, aita. Horri ere proiektua gustatu zitzaion, eta haien Parisko egoitzara gonbidatu ninduten, Malesherbes kalean. Han izan nintzen, nire gaztelerazko bertsioa asko gustatu zitzaien, eta esan zidaten Algueróren bidez erantzungo zidatela. Erantzunean, gaztelerazko bertsioaren ekoizle izan zitekeenari 200.000 pezetako aurrerapena eskatzen zioten, royaltien aurrerapen gisa. Garai hartan dirutza zen hori. Nik banekien gerora dirua emango zuela, arrakasta izugarria izango zuela. Baina ezinezkoa izan zen. Manolo Fabregas mexikar aktore eta promotoreak erosi zituen eskubideak, eta Mexikon estreinatu zuten *My Fair Lady*-ren gaztelerazko bertsioa. Niri denetik gertatu zait *My Fair Lady*-rekin...

Denetik?

1964an *My Fair Lady* zinera eramán zutenean, gaztelerazko bertsioan Rex Harrison bikoiztea proposatu zidaten! Eibarrera abestera etorri zen neska batek, Teresa Mariak, *Mary Poppins* eta abar bikoiztu zituen ordurako, eta *My Fair Lady*-ren bikoizketan aritzekoa zela esan zidan. Nik egina neukan egokitzapena erakutsi nion, «begira zer daukadan». Azkenean, bikoizketa egiteko aukera aipatu zidaten. Ni okupatuegi nengoen nire lanekin. Ezetx esan, burua makurtu, eta Forjasera. Azkenean, Montserrat Carullaren senarrak [Felipe Peña] bikoiztu zuen.

KONTRAPUNTOAK TALDEAREN ARRAKASTA

***My Fair Lady* dago Kontrapuntoak taldearen jatorrian ere, ezta?**

Bai. *My Fair Lady* ekoiztea lortu ez nuelako, amorratuta, esan nuen: talde bat osatuko dut, *My Fair Lady* abesteko. Azkoitiko

lau abesbatzetako zuzendariengana jo nuen, eta boskotea osatzea proposatu nien. Horrela osatu genuen taldea, Los Contrapuntos [Kontrapuntoak, euskarazko abestien disko batzuetan]. Miguel Mari Azpiazu, Jesus Mari Larrañaga, Pilar Forcada, Gonzalo Zubizarreta eta bostok. Zuzendari hartu genuen Juan Ignacio Irureta, fraide etorri berria, musika formazio izugarriduna. Nik izan dudan onena. Aurreneko diskoa atera arte egon zen gurekin. *My Fair Lady* besterik ez genuen kantatzen hasieran.

Non eta nola hasi zineten?

Gu ari ginen entseatzen geuretzat bezala, eta gertatu zen Los Xey taldekoek despedida egin behar zutela.

Los Xey orduko talde ezagunenetakoa zen, ezta?

Ezagunena. Talde amateur guztiak deitu zituzten despedida funtzioetara joateko, omenaldi gisa. Gu ere bai. Gu orduan geure kasa ari ginen, egunero-egunero, *My Fair Lady*-ko kantak entseatzen. Aurreneko aldiz joan ginenean Victoria Eugeniara kantatzera, *My Fair Lady* bakarrik genekien. Joan ginen, kantatu genuen... Joe, ia sorbalda gainetan atera gintuzten. Hain harrigarria izan zen jendearentzat! Antzezpen koreografiko txikia egiten genuen, gainera. Nondik etorri dira hauek? Azkoitiarrak? Ez zuten ulertzen. Jendea geratu zen harrিতuta. Derrepente konturatu nintzen Donostian jende askok zuela *My Fair Lady*-ren berri, baina inori ez zitzaion bururatu kantatzea. Egunero betea egon zen aretoa. Egunero aldatu egiten zituzten beste gonbidatuak Los Xeykoek, baina gu egunero joatea nahi zuten. Aste osoa egin genuen Principe aretoan.

«Euskadi osoan bira bat egin zuten Los Xey-koek, eta gu haiekin. Hiru hilabetean ibili ginen: Los Xey, Pello Kirten, dantzari batzuk eta gu, Kontrapuntoak»

Orduan, Euskadi osoan bira bat egitea erabaki zuten, eta gu haiekin. Hiru hilabetean ibili ginen: Los Xey, Pello Kirten, dantzari batzuk eta gu. Herriz herri, Euskal Herri osoan. Hogei eguneko entseguen ondoren, hiru hilabeteko bira! Arratsaldeko bost eta erdietan bila etortzen zitzaizkigun gure fabriketara furgoneta batekin. Arratsaldez eta gauez, bi saio izaten ziren egunero. Lehen funtzioa, 19:30ean. Bigarrena, 22:00etan. Egun osoa fabrikan egin ondoren! Gauerdian etxera esmokina jantzita, lotara joan, eta biharamunean gora, fabrikara. Hiru hilabete horrela!

Arrakasta izan zuen birak?

Bai. Oso ondo funtzionatu zuen.

***My Fair Lady* diskoa bira haren aurretik edo ondoren grabatu zenuten?**

Ondoren. Los Xeykoekin harremanetan ginenean, haiek esan zieten Belter diskoetxekoei: «Hauek jarraituko dute gure ordezkio bezala». Bestela ez genuen grabatuko. Disko piloa egin genuen. Txikiak ziren asko, lau kantakoak edo bikoak, eta, noizean behin, handia. Guk 30 bat disko egin genituen berderatzi urtean. Arlotekeria asko dago hor, Los Xeykoek egin zuten bezala. Hori ez zen gure zera. Gurea *My Fair Lady*, Gershwin, Trenet, Léo Ferré, Brecht eta horrelakoak kantatzea zen.

Era guztietako diskoak egin zenituzten. Zer irizpiderekin?

Hainbeste disko grabatu genituen... Gu Bartzelonara ez ginen joaten bestea bezala, bi, hiru edo lau kanta grabatzen. Guk, behin bidaia eginez gero, 24 kanta grabatzen genituen. Errepertorio handia. Batzuk beraiek enkargatzen zizkiguten, bazekitelako zer zen komertziala, eta gero guri ametitzen ziguten komertzialak ez ziren beste disko batzuk egitea. Adibidez, asko gustatzen zaidan disko bat daukagu, Bartzelonako Ganbera Orkestrarekin egina, Ama Birjinari

kantuak. Oso disko ederra. Polifonia txiki bat da. Hori da niri gustatuko litzaidakeen bidea. Zalantzarik gabe. Baina hori egin ahal izateko, bestea ere egin behar zenuen. Zer ikusi zuten Bilboko arlotekeria haiek beste polifonia fin haiekin? San Remoko italiar abesti haiekin? Ez dute zerikusirik. Baina orduan guri aukera hori ematen ziguten: disko bat horrelakoa, bestea horrelakoa.

Euskaraz, gazteleraz, frantsesez, ingelesez, italieraz abestu zenuten. Zeren arabera abesten zenuten hizkuntza batean edo bestean? Frankismoa izanik, euskaraz abesteko arazorik izan zenuten?

Arazorik ez. Euskaraz? Hasieratik. Guk egin genuen euskal gabon kantei buruzko diskorik politenetakoa. Bartzelonako Ganbera Orkestrarekin. Oso harro nago disko harekin. Beste arlotekeria horiek euskaraz eta erdaraz izaten ziren. Guk geneukan jakinduriarekin, guk geneuzkan posibilitateekin, gure egoeran, ez zen gaizki egon. Orain, egiten zenuen guztia ez zitzaizun gustatzen.

Euskarazko abestien letrak zuk zeuk egiten al zenituen?

Jakina! Kontrapuntoak taldearen euskarazko abestietan, gure abestien %50, testu berriren bat behar baldin bazen, nirea zen beti. Massielen *La, la, la* abestia ere jarri nuen euskaraz.

Zuk zeuk itzuli zenuen?

Bai, noski. Hori zen Belterrekoei interesatzen zitzaien kontu bat. Hurrengo urtean Salomérekin egin zuten.

Zuk euskaratutako hitzekin?

Bai. Baina *La, la, la* guk abestu genuen euskaraz, eta *Vivo cantando* [Kantari bizi naiz] Salomé berak. Beste askoren hitzak ere nik idatzi nituen. Letrak euskaraz asko egin ditut nik. Abestiak Miguel Mari Azpiazu eta bion artean egiten genituen, baina testuak nik egiten nituen eta nik sinatzen nituen.

Kontrapuntoek 30 disko inguru grabatu zenituzten, luze eta laburren artean. Zein da zure ustez onena?

Asko egin genituen eta zaila da. Aipatutako bi disko asko gustatzen zaizkit, biak Bartzelonako Ganbera Orkestrarekin grabatuak: hamabi gabon kanta eta Ama Birjinari kantuak. Gure ideala hori zen. Benetan ederra da Ama Birjinaren kantuenak. Oso disko garestia, gaur egun ezingo litzateke egin. Disko garestiak ere egitea lortzen genuen, asko saltzen ez baziren ere.

Arrakasta izan zuen Kontrapuntoak taldeak, baina ez zinenen profesionalak inoiz izan, ezta?

Oso eskaintza interesgarriak izan genituen profesionalizatzeko, baina gu ez ginen ari diruagatik. Geure lanak geneuzkan, geure negozioak, egoera profesional ona genuen taldeko partaide guztiok. Ez genituen inolaz ere gure lanak

«Kontrapuntoak taldean oso eskaintza interesgarriak izan genituen profesionalizatzeko, baina gu ez ginen ari diruagatik»

utzi nahi. Ezezkoa eman genien Bartzelonako kabaretetako eta antzokietako enpresariei. Behin Espainiako estatubatuar enbaxadoreak kontratua eskaini zigun bi urtez Ameriketako unibertsitateetan espainiar madrigalak abes- teko. Donostiako Tennis Club-ean astlehenero emanaldiak egiten zituzten, *Los Lunes del Tenis*. Izar handiak ekartzen zituzten, baina

urtero astelehen haietako bat gurea izaten zen. Espainiako diplomazialari inportanteenak eta gobernukideak etortzen ziren, eta guk, noiz edo noiz, erreperitorio osoa euskaraz kantatu genuen, baita bi partetan ere, bata euskaraz eta bestea frantsesez, ingelesez, italieraz eta harrapatzen genituen hizkuntza guztietan. Uste dut hiru edo lau urtean joan ginela Donostiako festa sozial haiek animatzera. Han ikusi gintuen enbaxadoreak. Enbaxadore hura, John Lodge, aktore izana zen: Marlene Dietrichek Errusiako tsarinaren rola egiten zuen

pelikulan aritu zen [*The Scarlet Empress*, 1934]. Ezin genuela esan genion. Gu ez ginen titiriteroak.

Auzi serio samar bat ere izan genuen, bere alde politikoa ere bazuelako. Antoñita Morenok deitu zidan behin. Badakizu nor den Antoñita Moreno?

Izena ezaguna egiten zait.

[Kantari hasi da] *El cordón de mi corpiño mi niño / que no lo puedo cortar...* Emakume guapa eta, batez ere, botere faktikoa telebistan eta gobernuan, 1960ko hamarkadan. Urtero ikuskizun bat egiten zuen espainiar antzerkiaren izenean. Diru laguntza zuenez, ehun pertsona inguruk parte hartzen zuen ikuskizunean. Urte batean deitu zidan eta esan zidan guk ikuskizunean parte hartzea nahi zuela, Parisen. Jende askok parte hartuko zuela, baina kartelean gu eta bera azalduko ginela. «Zu eta gu izango da», erantzun nion. Logikoa zen, gainera. Garai hartan bera zen izarra, ez gu. Baina berarekin nahi gintuen, gure ahotsekin-eta primeran geratuko baitzen. Ezetz esan nion. A ze nahastea! Gobernadore zibilak deitu zidan. «Aizu, Antoñitari ezetz esan omen diozue. Antoñita gure oso laguna da». Esan nion gu ez ginela Euskal Herritik ateratzen. Parisen izan ginela erantzun zidan. Egia, Nafarroako Aurrezki Kutxak jaialdia antolatu zuelako, baina egun pare baterako bakarrik. Madrilera ere joan ginela esan zidan, telebistara ere joan ginenez. Hilabete osorako ezin genuela joan esan nion. Nork bere lanbidea zuela. Ezin konbentzitu. Izututa nengoen. Bila etorriko zitzaizkidala pentsatu nuen, baina ez. Hor bukatu zen. Baina kontuz ibili beharra zegoen Antoñita Morenorenkin.

Telebistara joan zinetela esan duzu. Zer saiora joan izan zineten?

Sábado Noche. Espektakulua. Hiru aldiz edo joan ginen. Esaten ziguten sei kanta prestatuta eramateko, eta lehenengoa euskaraz kantatzen genuenean, nahikoa zela esaten ziguten. Euskaraz kantatzen genuelako. Sei ordaindu, eta bat abestu.

Beste behin, Gasteizko La Coquette aretotik egin ziguten eskaintza, Espainiako iparraldeko festa areto famatuena. Esan genien, gu joatea nahi bazuten, Raphaeli adina ordaindu behar zigutela. Baietz esan ziguten, baina baldintza batekin: bi saio bikoitz egitea, arratsaldez eta gauez, larunbatean eta igandean, Gasteizen eta Arrasaten. Horrela aritu ginen.

Raphaeli adina ordaindu zizueten azkenean?

Bai horixe. Garai hartako 300.000 pezeta. Jende arrakasta ikaragarria izan genuen, gainera. Baina toki askotan ez genuen ezer kobratzen, ekitaldi benefikoak zirela eta.

Diskoak grabatzean, beti Belter etxearekin aritu zineten?

Nik Belterrekoekin oso erlazio ona neukan. Oso ona. Esaten dizut: azkenean proposatu zidaten Belterreko zuzendari artistikoa izatea. Badakizu zer botere zen hori garai hartan? Ikusten zuten artistak ezagutzen nituela, afaltzera ateratzen nuela Lola Flores edo Manolo Escobar... Baina ezetz esan nien. Esan nuen: nik Azkoitian bizi nahi dut, ezin dut Bartzelonan bizi. Azkoitian biziz bada, nahi dutena. Hala ere, haientzat izan nintzen Espainiako iparralderako ordezkaria bezala. Ni ez nintzen saltzailea, baizik eta, nolabait, haien konfiantzako pertsona. Nazioarteko jaialdi guztietara eramaten ninduten. Esaten nien: niri hau gustatzen zait. Eta orduan, probak egiten zizkioten.

Forjasen lanean, Kontrapuntoetan kantari, Belter diskoe-tzekoen aholkulari... eta hala ere denbora ateratzen zenuen hedabideetan ere aritzeko, *La Voz de España* egunkarian eta *Loiola Irratian*. Noiz eta nolatan hasi zinen egunkarian?

Hango idazkaria zen neska bat ezagutzen nuen. Hark ezagutzen gintuen beste lagun bat, Marcos Forcada, eta ni. Neska hark Marcos sartu zuen aurrena egunkarian. Gero, Marcosen bitartez, oso erraza izan zen niretzat. Donostian nengoenean, lehenengo Zinemaldira joan nintzen, eta orduan hasi nintzen

lehen kolaborazioak bidaltzen, elkarrizketak eta abar. Denetik egiten nuen hasieran. Nik Fellini elkarrizketatu nuen! Zein ez nuen elkarrizketatu. Gero, gai literarioez ere idazten nuen. Kronika bat bidaltzen nien azken orrialderako, artikulua literarioa. Garai hartan, azken orria literarioa izaten zen. Ia orri osoa idazten nuen, hogeit eta gutxi urterekin.

Baina ez al zenuen musikari buruz idazten?

Hori gero izan zen, diskoaren industriarekin harreman handia nuenean. Behin, orri literarioa idazten nuen garaian, egunkariko zuzendariak, Carlos de la Valgomak, esan zidan: «Egunkari honetako idazle handi batek ezagutu nahi zaitu». Jose Artetxe azpeitiarra zen, Saint-Cyran abadeari buruzko liburu bikainaren egilea [*Saint-Cyran*, 1959]. Liburu hori urrezkoa da. Liburu horretan esplikatzeko du nola jansenismoaren etsaiak, jesuitak, azkenean jansenista bihurtu ziren. Urola aldea guztiz jansenista da, Azkoitia batez ere.

Kontua da Artetxe etorri zitzaidala eta guztiz harrিতuta gelditu zela hogeita gutxi urteko mutil gaztea ikusi zuenean. Izan ere, Marcel Prousti buruzko artikulua idatzi nuen aurreko astean. Galdetu zidan: «Nola iritsi zara zu Azkoititik Proustenganaino?». Esan nion: «Behar gorriagatik. Proust izan da nire unibertsitate bakarra. Orain ez diot inori beldurrik». Irribarre egin eta, bizkarreko lagunkoia ematen zidan bitartean, esan zidan: «Luis, saia zaitez azkarregi ez joaten. Bizitza osoa duzu aurretik. Gai ausartekin ari zara zure adinerako eta arazoren bat izan zenezake». Zentsura gainean genuen! Hain zuzen, Prousten emakumeei buruz idatzi nuen aurreko astean... Bukatzeko, bere laguntza eta laguntasuna eskaini zizkidan Artetxek.

Noiz arte aritu zinen *La Voz*-en?

Carlos de la Valgoma zuzendariak deitu zidan arte, ezin nuela jarraitu esateko, Iruñeko gabon kanten lehiaketan sortu zen eskandaluaren ondorioz.

GABON KANTEN EGILE

Zer gertatu zen?

Gu Iruñeko gabon kanten lehiaketara joaten ginen. Kantak hizkuntza guztietan ametitzen zituzten: erdaraz, euskaraz, katalanez, galizieraz... Guk beti euskarazkoak kantatzen genituen. Bi edo hiru urtean gu geu joaten ginen kantatzera, Kontrapuntoak taldea. Baina 1969. urtean bagenuen arazoren bat, baten bat kanpoan zela edo. Orduan, Azpeitiko mutil gazte bat hartu genuen, Xabier Madina, guk konposatutako kanta abesteko: *Basobidean*. Bigarren egin zuen. Sekula inora joateke, tabernan noizbait kantatua besterik ez, eta izar bihurtu genuen. Diskoak grabatu zituen, musika bizibide izan zuen urte batzuetan eta, pertsona serioa balitz, gaur egun arte aterako zuen bizibidea musikatik. Lehen saria ez zuen atera, aurretik erabakita zeukatelako lehen saria Víctor Manueli ematea, *El portalín de piedra* abestiagatik. Nik, Belterren nenbilenez, banekien hori. Sekulako eskandalua sortu zen Gayarren.

Eskandalua zergatik?

Jendeak nahi zuen lehena Madina izatea. Zeinek merezi zuen gehiago? Egia esango dizut. Uste dut *El portalín de piedra* guk egin genuena baino politagoa zela. Baina jendeak, bertakoa, eta Madina nahi. Urte haietan oso exotikoa zen gabon kanten jaialdi nazional batean euskal kanta batek irabaztea. Jaialdia San Francisco Javier egunean egiten zen, abenduak 3. Eta jaialdi horren emanaldia izaten zen, diferituan, gabon gaueko saio ofiziala TVEn, lehen katean.

Orduko telebista bakarrean ematen baldin bazuten, jaialdi garrantzitsua izango zen.

Bai. Televisión Española, lehen kanala. Zer egin zuten? Madinaren kanta kendu zuten. Bigarren saria eta Kritikaren saria zituen! Bigarren saria ezabatua! Beste 11 abestiak eman

zituzten. Jendeak ikusia zuen, abenduaren 4ko periodikoan, «Triunfo de la canción vasca», Madina, Miguel Mari eta hirurion argazkiarekin. Orduan, TVEn jaso zituzten 500 gutunetik gora, epelak esaten. Handik egun batzuetara Enrique Oltra Moltó gobernadoreak deitu ninduen, hori zela eta. Ondo gogoan dut eguna, 1970. urteko urtarrilaren 7an joan nintzen. Eta gogoan dut aitak esan zidana ere: «Gizon horrek hiri zerbait egiten badik, nik neuk hilko diat». Beizamako gizona. Nik hilko diat! Hark maite gintuen... Baina ondo hartu ninduen gobernadoreak. Madrilekoek desesperatuta zeukatela zioen. Ez kezkatzeko esan zidan. Agindu zidan hortik aurrera larunbat gauero euskal abeslari bat aterako zela telebistan. Gero ez zen hala gertatu. Handik hamabost egunera, gobernadore zibila kargutik kendu zuten. Nik orduan ez nuen pentsatu ere egin horregatik izan zenik. Gero enteratu nintzen. Baina hori baino tristeago izan zen handik hamabost egunera Carlos de la Valgomak deitu zidala. Pertsona ona. Esan zidan: «Sentitzen dut, baina nire egunkarian ezin duzu gehiago idatzi».

Zeinen aginduz?

Bere aginduz, ez. Esan zidan: «Ezin izan dut. Nik nahi dudana ezin dut egin. Badakizu. Agindu bat da. Bostehun gutun iritsi dira TVEra eta disgustu handiarekin daude».

Gabon kanten istilu harengatik bakarrik izan zen?

Bai, gauza nahastu zen telebistarekin, jasotako gutunekin. Eskandalu publikoa izan zen eta baten bati ordainarazi behar zioten. Nik ez nuen beste ezer egin. Ez dut saltsa politikorik izan inoiz. Ni ez naiz ezta abertzalea ere. Ni Azkoitikoa naiz. Ni Azkoitiaren parte naiz, eta Azkoitia herrialde honen parte denez, ni herrialde honen parte naiz. Hau da nire etxea, eta kito. Ez dut besterik nahi. Urte hauetan guztietan etxeak izan ditut Bartzelonan, Madrilen, Esteponan, Donostian, Zarautzen... Baina ni Azkoitian.

Gehiagotan joan zineten lehiaketa hartara?

Handik bi urtera. Hurrengo urtean erdarazkoak bakarrik ametitu zituzten eta ez ginen joan. Ez zuen arrakastarik izan. Lehengo jaialdiaren antzik ez. Zer egin zuten? Hurrengo urtean berriro hizkuntza guztietan ametitu. Guk kanta bat aurkeztu genuen, *Gau erdian soinua*, baina goitizenaekin sinatuta, aurreko eskandalu harekin erlazionatu ez zezaten. Miguel Mariren eta nire laugarren abizenekin sinatu genuen: Artetxe eta Salaberria. Unai Hirukoak kantatzeko, Azpeitiko hiru neska. Finalistak aukeratu zituztenean, epaimahaitik deitu ziguten esanez gu ez ginela aurkeztu, baina gabon kanta euskaldun bat bazela finalistean artean, eta guk beste bat egitea nahi zutela, beste kanta euskaldun horri lehia egiteko. Haiak ez zekiten finalistean aukeratutakoa guk egina zela. Orduan, beste kanta bat aurkeztu genuen, *Bidea bada*, gure izenekin sinatua, Xabier Madinak kantatzeko.

Egin zen jaialdia eta, Kritikaren saria: *Bidea bada*, geure izenekin sinatua, Madinak kantatua. Jaso genuen saria. Hirugarren saria, beltzari, Luc Barretori. Gizona gustura. Bigarren saria, berriz ere *Bidea bada*. Berriro saria jasotzera. Eta lehen saria: *Gau erdian soinua*, Salaberria eta Artetxerena! Berriro irten ginen, eta zer izan zen hura! Sekula halakorik! Jendea harrituta! Bi gabon kantekin etorri eta hiru sari eramane! Sekula gehiago ez ginen aurkeztu. «Guk hemen nahikoa egin diagu», esan genuen. Ederrena izan zen bi urte lehenago gertatuaren ordaina izan zela.

Lehiaketa hartako kantak diskoan grabatzen ziren gero?

Ez. Aurretik diskoa ateratzen zen hamabi kanta finalistekin. Disko luzea. Gero, ondoen kantatzen zutenek disko txikitik ateratzen zituzten, singlean.

1971ko abesti irabazlea, *Gau erdian soinua*, goitizenez sinatu zenutena, hain zuzen, oso gabon kanta ezaguna bihurtu da denborarekin.

Kanta hau ez dakien inor ez dut ezagutzen Azpeitian eta Azkoitian. Mundu guztiak pentsatzen du antzinako gabon kanta dela. Saria irabazi genuenean, omenaldia egin ziguten herrian: Gipuzkoako eskole-tatik etorritako lau mila umek denek batera kantatu zuten gure gabon kanta. Izugarria izan zen. Niri zer poz ematen didan, norabait joan, demagun Zarautzera, eta derrepente gure kanta entzutea. Bilbon, San Anton elizan, organo handiarekin eta koruarekin kantatu zuten!

«'Gau erdian soinua' kanta ez dakien inor ez dut ezagutzen Azpeitian edo Azkoitian. Mundu guztiak pentsatzen du antzinako gabon kanta dela»

Ezaguna bigarren zatia da, baina badu aurreneko zati ez hain ezaguna ere. Nik neuk ere diskoa entzun behar izan dut orain, gogoratzeko. Hara [kantari hasi da]:

Dena ilunpean dago / Gauean, gauean / Elurtia maltzo-maltzo / Zerutik lurrera / Gabon, gabon / Zazpi aingerutxo datoz / Aidean, aidean / Esnatu zaitzete danok / Gau erdian gera / Gabon, gabon.

Eta bigarren zatia, denek dakitena:

Iru errege, artzaitxo pilloa / Belengo gau zurian / Aita San Jose, Ama Maria / Eta Aur jaio berria / Gora Jainkoa, zeru zabalean / Ta pakea lurrean / Zuek eta gu, gaurtik aurrera / Ondo maitatzen bagera.

Ez dakizu zer poz ematen duen lagunen batek festaren baten bukaeran esaten dizunean zer gabon kanta politikak egiten zituzten gure arbasoek, jakin gabe gu garela gabon kanta horren egileak. Charles Trenet *L'âme des poètes* kantan esaten zuen bezala, jakin gabe nor den bere bihotzaren taupadak azkartzearen erantzulea... [errezitatzen hasi da]:

Longtemps, longtemps, longtemps / après que les poètes ont disparu / Leurs chansons courent encore dans les rues / La foule les chante un peu distraite / En ignorant le nom de l'auteur /

Sans savoir pour qui battait leur coeur... [Luzaroan, luzaroan, luzaroan / poetak desagertu ondoren / beren kantuak kalean dabilta oraindik / jendeak oharkabeen bezala abesten ditu / jakin gabe egilearen izena / bihotzaren taupadak nork eragin dituen ez dakitela].

Ezagutzen ez dugun jendeari gure kantaren bidez sentsazio gozo hori sortarazten diogula pentsatzeak, baita beste mundura joaten garenean ere, parerik gabeko poza eragiten dit. Nire ondare nagusia hori izango da, gabon kanta hori herriak bere egin duelako.

Azpiazu eta bion artean egin zenuten. Baina, nola? Letra zuk eta musika bion artean?

Ez galdetu, ez dakigu eta. Jeneralean letra nik egiten nuen. Aurretik ere nik gauza asko neuzkan idatzita, bai erdaraz, bai euskaraz eta baita beste hizkuntza batzuetan ere: italieraz, frantsesez... Letra ponposoagoak idatziak ditut nik, baina hau herrikoi-herrikoa da. Horrelako kanta behar dira, soil-soilak. Azentu fonetikoekin bat dator, errimak ere zehatz-zehatzak, dena kontatzen du... Astoa eta idia besterik ez dira falta, topikorako, baina orain Vatikanokoak horiek ere kendu dituenez, perfekto!

Doinua beste abestiren batean oinarrituta dago edo guztiz originala da?

Ez, berria da. Musikak izan behar du herrikoa: Mozartena bezalakoa, baina herrikoa. Kantaren doinua bi notatan oinarrituta dago, nota errepikatuak. Jendeak hori erraz hartzen du.

1960ko hamarkadaren amaieran bukatu zen Kontrapuntoak taldearen ibilbidea. Zergatik?

Gu lehertu egin ginen azkenerako. Nekatu, nekatu. Hasieratik garbi geneukan ez genuela profesional izan nahi. Ez genuen bizimodu hori eraman nahi. Gainera, azkenean dena ikusterira iristen zara. Egin genezakeen guztia egin genuen. Eta,

bitartean, modu paraleloan, gauzak egiteko beste modu batzuk sortzen ari ziren, Ez Dok Amairu eta abar.

Iruñeko lehiaketak ere izan zuen zerikusirik. Lehen hiru-
retan izan ginen eta, laugarrenean, gutako baten bat falta
zelako Madina eraman genuenean, soluzio bat iruditu zi-
tzaigun. Ordurako bederatzi
urte pasa ziren. Aldi berean,
ni hasia nintzen beste artis-
ten promozioa egiten, aurre-
na Lourdes Iriondorekin, on-
doren Enrike Zelaiarekin eta
gero gehiagorekin. Orduan
esan genuen askoz hobe izan-
go zela, guk abestu beharrean,
beste batzuk hartu eta preparatzea. Orduan hasi ginen Unai
Hirukoa, Julio Katania, Patxi Andion, Mucedades eta beste
jende askorekin diskoak ateratzen.

«Nik Lourdes Iriondo
ezagutu nuenean
segituan esan nuen:
hemen badago zera.
Grabatu genuen diskoa
eta, a ze arrakasta!»

MUSIKARIEN SUSTATZAILE

Zu Kontrapuntoak taldearekin eta Belter etxearekin ari zinen bitartean hasi ziren Lourdes Iriondo, Xabier Lete eta Ez Dok Amairuko gainerakoak. Zer moduzko harremana izan zenuen haiekin? Lourdes Iriondok Belterrekin grabatu zuen behintzat.

Bai, Belterren hasi zen. Nik Lourdes Iriondo ezagutu nuen Joxe Mari Iriondoren etxean, lehengusua baitzuen. Aingeru bat zen. Joan Baez, baina gazteagoa, askoz gazteagoa. Nik ikusi nuenean segituan esan nuen: hemen badago zera. Esan nion berari, hartu eta Bartzelonara joan ginen. Grabatu genuen diskoa eta, a ze arrakasta!, izugarria. Lourdesen lehenengo diskoa eta Enrike Zelaiaren lehenengo Urrezko Diskoak dira. Dirua eman zuten. Gero, berriz egin nahi

genuen. Nik nahi nuen disko garrantzitsuagoa egin. Hartu Azkueren *Cancionero popular vasco*-ko erreperatorioa eta bertio berriak egin, gitarrarekin eta. Xabier Lete laguntzaile zuela joan zen grabatzera Bartzelonara. Zapatu hartan gelditu ginen ni joango nintzela ikustera. Baina hotelera joan, eta ez zeuden. Gorabehera batzuk izan genituen, beste diskoetxe batengana ere joan ziren, Edigsa... Alde egitea ongi iruditzen zait, baina gauzak ez dira horrela egiten. Diskoa atera zen, ondo atera zen, egin zuen bere bidea, baina ez zen lehena bezain ondo atera.

Ez Dok Amairuko besteak Belterrera erakartzen saiatu zinen?

Ez. Bilera batzuk egiten hasi ziren. Ni ere deitu ninduten, Lourdesen aitajauna nintzenez. Lehenengo bilera guztietara joan nintzen, Gipuzkoa Plazara. Ikusi nuen haiena zer zen, eta zer nahi zuten egin. Ez Dok Amairukoak ziren oso berekoiak. Iñaki Beobiderek pisu batean grabatzen zuten, edozein modutan. Haien diskoak aditzekoak dira. Formari garrantzirik ez zioten ematen. Ezta filosofikoki ere. Formak ez zuen garrantzirik. Ni, aldiz, forma hutsa naiz. Orduan, ikusi nuen nik haiekin ez nuela zer eginik. Baina oso harreman onak dauzkat haiekin guztiekin, Antton Valverderek eta denekin.

Ekoi zle eta promotore gisa egindako diskoen artean, zein duzu maiteena?

Dударик gabe, Iparragirreraren antologia Patxi Andionekin. Entzuten dut, eta hunkitu egiten naiz. Bilbon Philipsekoek proposatu zidaten disko bat egitea euren marka Euskal Herrian promozionatzeko. Ea zer disko egingo nukeen galdetu zidaten. Iparragirreraren erreperatorioa, esan nien, Patxi Andionekin. Fitxaje izugarria izan zen. Bi egunetan etxepean nuen Patxi Andion, Azkoitian, bere kotxe dotorearekin. Nire etxean prestatu genuen diskoa. Patxik ez zekien nondik nora zihoan hori, euskaraz ere ez zekien, baina hark ematen dion

indarra... Kantuari indarra eman behar zaio! Patxirenak indar birrintzailea dauka. Momentu hartan izar handi bat zen. Disko horrek bere etsaiak ere izan zituen, baina onarpen popular izugarria izan zuen! Ez zuten zer eginik izan, zapuzten saiatu ziren arren.

Zer etsai izan zituen?

Iparragirrek sekula horrela ez zuela kantatu zioten batzuek. Nik sekula ez nuen esan horrela abestu zuenik. Verdik ere ez zituen bere operak abestu eta, hala ere, Mario de Monacok askoz hobeto abestu zituen. Formula bat izan zen hura. Letra kontatuz, ez kantatuz. Euskal Herrian ez da kontatzen. Kantatu baino ez da egiten. Ondo kantatzen da. Orain, ez dago aktorerik. Eta kantatzeko, aktore izan beharra dago. Patxik hori bazuen. Oso harro nago disko horrekin. *Bonbazona* izan zen. Egin zenean, eta oraindik ere bai. Eusko Jaurlaritzako bi Kultura sailburuk zorionak eman zizkidaten bi garai ezberdinetan disko horrengatik. Euren disko maiteenen artean dagoela eta euskal diskografiaren gailurrean dagoela esan zidaten.

Gerora, 1981ean, *troupe* osoarekin Iparragirreri buruzko disko bikoitza ere grabatu nuen. Niri gehiago gustatzen zait Patxirekin egin nuena, baina honek bazuen bere bertutea. Herriko *who is who* osoa hor zegoen. Xabier Amuriza, Joxe Mari Iriondo eta abar errezitatzen, Xabier Lete eta nahi izan zuten guztiak kantatzen... Ia inork ez zidan esan ezetz. Bakoitzari kanta bat abesteko eskatu nion. Ez zitzairen ordaintzen. Eta mundu guztiak esan zidan baietz, sibaritaren bat salbu.

***La Voz de España*-n ez ezik, Loiolako irratian ere aritu ziren musikari buruzko saioa egiten luzaroan.**

Loiolako irratia ireki zen 1961eko otsailean. Orduan 29 urte nituen. Lehen egunean, inauguraziokoan, bi saio aurkeztu nituen. Bata, finantzei eta burtsari buruz. Banketxeko nire urteen arrastoa hor zegoen oraindik. Eta, bestea, musikari

buruz: *Música de nuestros días*. Irratsaio hori egunero egin nuen, ordu erdiz. Diskogintzako nobedadeez edota kantagintza frantsesaz aritzen nintzen: Léo Ferré, Charles Trenet, Jacques Brel... Teatro lirikoaz eta amerikar zine musikalaz ere banituen atalak. Loiola Irratirako bakarrik egiten nuen

«Loiola Irratirako bakarrik egiten genuen hasieran saioa, baina gero COPE kateko irrati guztiak hasi ziren emititzen»

hasieran, baina gero COPE kateko irrati guztiak hasi ziren emititzen. Guztira hamabi urtez egin nuen irratsaio hura, eta azken urteetan eman izan zuen COPEko kate osoak.

Garai haietan nik denetik egin nuen. Badakizu ni izan nintzela bigarrenengo euskal lore jokoen *mantentzailea*?

Mantentzailea? Zer da hori? Noiz izan zen?

Ez dakit noiz. Mutiko bat nintzen. Ordurako irratian, prentsan... toki guztietan nenbilen mutil gazte-gaztea izanda, eta denei atentzioa ematen nien. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko presidentea zen Alvaro del Valle de Lersundi. Esan zidan: Peñaflozidan erabaki dugu zu izendatzea euskal lore jokoen *mantenedore*. Iruñeko Museoa zen egitekoa. Esan nien gauza batzuk egiten nituela euskaraz, baina ez nintzela nor... «Zergatik ni?», galdetu nien. «Zergatik ez duzue Basarri edo Uztapide ekartzen? Bertsolari bat zergatik ez?». Logikoa hori zen niretzat. Esan zidaten: «Egia esango dizugu. Ez dugu jaialdi baserri girokorik nahi». Aristokrata samarrak ziren. «Esmokina ondo eramaten dakien norbait nahi dugu, eta kanpora begira oso presentablea izango dena». Alvaro del Valle de Lersundik esan zidan hori. «Egongo da esmokina zu baino hobeto eramaten duenik, baina zuk euskaraz dakizu». Joan nintzen, eta izan zen ekitaldi guztiz dotorea. Alvaro Cunqueiro galiziar idazleari buruz eman nuen hitzaldia. Tuterako alkatearen alaba izan zen ekitaldiko erregina. Argazkia hor daukat

berarekin. Mundu guztiak uste du nire ezkontzako argazkia dela. Hau ez nuen gaur arte inoiz kontatu.

PUBLIZITATEA EUSKARAZ

Loiola Irratian noiz arte jarraitu zenuen?

1973an Forjas utzi eta Caja Laboralera joan nintzenean utzi nuen. Laboralera joan nintzenean dena utzi nuen, Forjas, Loiola Irratia eta dena.

Nondik nora joan zinen Laboralera?

Marketing zuzendaria izatea proposatu zidaten. Herri Batasuneko bi lagun bidez iritsi zitzaidan proposamena. Ez dakit nondik bururatu zitzairen nire bila joatea. Ni jende askok ezagutzen ninduen orduan, irratian, prentsan eta abar-rean gauza asko egiten nituelako. Javier Pagaldai eta Antton Elorza Laboraleko zuzendarien oso lagunak ziren. Haien birtartez izan zen. Laborala beti ondo konpondu da denekin. Baita Frantzia zeudenekin ere. Nik Txomin Iturbe eta horiek denak ezagutzen nituen.

Eskaintza egin zidatenean, lehen egunean, Jose Maria Arizmendiarrietaren etxera joan nintzen. Afaltzera gonbidatu ninduen. Ni etxe eta toki dotore askotan egon naiz, baina sekula ez zidaten hain afari fina eman. Ez janariagatik bakarrik, baizik eta zerbitzuagatik. Errenazimenduko italiar printze bat bezalakoa zen! Ikusi nuenean, esan nuen: «Hementxe gelditu behar diat». Haren lagun egin nintzen. Pentsatu nuen: «Hemen bakar-bakarrik egin behar duk bizarra laga, praka bakeroak erosi, eta euskaraz egin!». Oso ondo hartu ninduten. Nire kontzientzia sozial eta politikoa oso erakargarria zen proiektuan protagonismoa izatea eskaintzen zidaten, kudeaketan independentziaz aritzeko eta nire gaitasunak garatzeko aukera. Eta hori guztia kooperatibista bakoitza

aldi berean langile eta jabe bihurtzen zituen balio etikoekin. Jakina, eskaintzari baiezkoa eman nion.

Hasieran, marketing eta produkzioaz arduratu nintzen. Garai hartan kutzak zituen ehun bulego ingururen produkzioa nire ardurapean zegoen. Baina, pixkanaka, konturatu nintzen nire arloaren atalik ahulenak publizitatea eta harreman publikoak zirela. Une batean, marketingaren ardura osoa utzi, eta publizitatearen eta harreman publikoen ardurara hartu nuen.

Lagunak eta laguntza besterik ez nituen izan Laboralean. Nirekin batera lan egin zuten guztien laguntza izan nuen: au-

«Ikusi nuen
publizitatearen
arloan lehiatu nahi
banuen, euskara
erabili eta aurkariak
ustekabean harrapatu
behar nituela»

rrena, Kike Gomez de Segura, niretzat dudarik gabe publizitate arloan Euskadiko maisurik onena; gero, Antton Perez Calleja eta Mari Carmen Mazmela jakintsuak ere, jende dotorea, laguntzaile izan nituen; Laboral Kutxako zuzendari Javier Irastorzak, gaur egun nire lagun onenetakoak, asko lagundu ninduen. Izendatu gabe utzi ditu-

dan beste askori ere eskerrak eman beharrean nago. Ez ditut sekula ahaztuko.

Euskarazko publizitateari bultzada eman zenioten Laboral Kutxan atal horren arduradun hasi zinenean. Aitzindari izan zineten?

Uste dut 1973-74 inguruan hasi nintzela euskarazko publizitatearekin. Ordura arte ez zegoen egiterik. Segituan konturatu nintzen landu gabeko eremu birjina nuela aurrez aurre. Bankuak eta aurrezki kutzak, salbuespen gutxi batzuekin, ez ziren ohartu publizitaterako hizkuntza birjina genuela gure esku: euskara. Eta ikusi nuen konpetentzia boteretsuarekin lehiatu nahi banuen, euskara erabili eta aurkariak ustekabean harrapatu behar nituela. Halaxe egin nuen. Egia esan,

oso ondo atera zen. Esango nuke Laboralean egindako lanen artean, meritu handiena horrexek duela, publizitateari emandako jiteak. Izaera euskaldunekoa, iruditeria moderno eta ausartarekin, esaera zaharretan oinarritutako esloganekin... Horregatik guztiagatik, gure publizitatea besteenarengandik desberdina izan zen.

Nik egin nuen egin beharra zegoelako. Egin beharra ez, ez dago ondo esanda; ez bagenuen egiten ez zen ezer pasatzen. Nik egin nuen, neuk behar nuelako euskara. Nik banekien euskaraz gauza asko esango nituela. Laboraleko eslogan gehientxoena nik asmatu ditut. *Euskadiko Kutxa*, eslogan bezala, nik jarri nuen. Errepideko kartel handietan, letra beltzekin *Caja Laboral* jartzen zuen, eta behean, eskuz eginda balego bezala, *Euskadiko Kutxa* jarrita hasi ginen. Egundokoa antolatu zen. «Konpetentziakoek zer egin digute!». Arrasaten jendea konbentzitu ezinik, apropos eginda zegoela eta publizitatea zela. Ni jubilatu nintzenean, Euskadiko Kutxa izena jarri zioten Caja Laboralari. Hor duzu eslogan bat izen propio bihurtuta.

Visarekin ere asko eztabaidatu behar izan nuen, euskara sartzeko. New Yorkeraino joan behar izan nuen eztabaidatzera. Euskara sartu nahi nuen txartelean, bi lerro besterik ez baziren ere. Esaten zidaten mundu osoan ez zegoela Visarik bi hizkuntzatan. Lortu nuen nirea New Yorken, eta etorri ginenean, Visa España-rekin iskanbila. Kostatu zen, baina euskaldunok bi hizkuntzatan dugu Visa. Horregatik deitu genion *Visa euskalduna*.

Joan Mari Torrealdairen *Euskal idazleak, gaur* liburuaren ekoizpenean izan zenuen zerikusirik, 1977an, eta Juan Antonio Urbeltzen *Dantzak* liburuarenean ere bai, 1978an. Nolatan?

Beste asko ere egin genituen, gero. Behin Parisera joan nintzen Laboraleko zuzendariarekin eta beste birekin. Han zegoen Joan Mari Torrealdai, Soziologia ikasketak egiten.

Lehendik ezagutzen nuen, eta elkarrekin afaldu genuen. Beste afari kideek Pigalle eta inguru hori ikusi nahi zuten, eta nik nahi nuen Olympia teatrorra joan, Charles Treneten despedidako emanaldiak zirelako, nire orduko idoloa. Nirekin etorri zen Torreal dai. Irten ginenean, paseoan gindoazela, Parisen egiten ari zenaz hitz egin zidan, euskal idazleei buruz egiten ari zen tesiaz. Orduan esan nion: «Zergatik ez dugu horrekin argitalpen bat egiten?». Hasi ginen eta, proiektu txikia zena hiru kiloko liburua bihurtu zen. Euskal literaturaren eta hizkuntzaren *who is who*, euskal literatur eskola garatu baten lehenbiziko lekukotza. Bartzelonako Omnium Cultural-en esan zuten: «Uste genuen euskarak ez zuela literaturarik eta, joe, zer da hau?». Herri txikia da, baina hau xe ari da ematen herria, eta oraindik eman dezakeena. Omniumen esan zutenak atentzioa eman zidan, gai horietaz inork baino gehiago dakite eta. Aurkezpenak-eta egin genituen. Primeran atera zen. *Euskal idazleak*, *gaur* bat etxe bakoitzean sartzea! Gaur egun ere, etxe batera joaten naizenean, liburutegia badute, liburu hori non dagoen begiratzen dut.

Zenbat ale bota zenituzten akordatzen zara?

40.000. Asko da. Lotsagabea izan beharra dago.

Kalitatea bilatu zenuten. Argazkilariak ere onenak...

Argazkiak egundokoak dira. Egiguren anaien 600 argazki baino gehiago. Lan handia egin zuten. Gero, Joseba Intxaustik eta denek lagundu zuten. Asko.

Bidaiak antolatzen ere aitzindari izan zinen Laboral Kutxan ari zinenean.

Ni Laboralean ez nengoen gauza konbentzionalak egiteko. Bidaien departamentua ere sortu nuen. 1974an, Montrealeko Olinpiar Jokoetara 1976an, Argentinako Futboleko Mundu Txapelketara 1978an, Moskuko Olinpiar Jokoetara 1980an, Japoniara, Indiara, Kenyara, Egiptora, Transiberiarra...

Errekorra Mediterraneoko zeharkaldia izan zen: Laboraleko 320 bezero eta lagun transatlantikoan eraman genituen Kreta, Egipto, Israel eta Turkiako eta Greziako uharteetara... Mundu osoan zehar ibili ginen. Gerora Eroski Bidaiak izango zenaren inspirazioa eta sorburua izan ziren orduko bidaia haiek.

ZINE INDUSTRIALETIK IKUSKA SAILERA

Zinearen munduan noiz hasi zinen?

Zine industrialarekin hasi nintzen artean Forjasen nengoe-la. 1960ko hamarkadan Bartzelonako talde bat agertu zen. Arrasateri buruzko pelikula bat egin zuten aurrena. Nola egiten zuten? Enkarguak hartzen zituzten enpresatan. Enpresa bakoitzeko film motz bat egiten zuten, bost-hamar minutukoa edo. Gero, dozena erdi edo zortzi hartu, gauza historikoak gehitzen zizkieten zine industrialari buruzko pasartei, eta film luzea egiten zuten, 16 milimetrotan. Herriko zine aretoan estreinatzen zuten eta festa izugarria izaten zen. Arrasatekoarekin nik ez nuen zerikusirik izan. Gero, Forjasera etorri zitzaizkidan. Gizonezko bat mutil gazte batekin: Ferran Llagostera. Gero zine zuzendaria izango zen. Zine industrialala saltzera etorri ziren. Niretzat zine industrialala baino gauza kuriosoagoa zeukaten aldamenean. Bi arraboleko tramankulua, 16 milimetroko pelikula sartu batean eta, martxan jarrita, irudiak agertzen ziren tapan, PC bat balitz bezala. Pentsatu nuen: erakusketetako stand-ean horrelako bat jarriko bagenu, atrakzio ederra litzateke. Esan nuen: pelikula bat egitera arriskatuko naiz, horrelako aparatu bat erostekotan. Hortik, Forjasi buruzko pelikula. Orduan, ni irratian ibiltzen nintzenez, Azkoitiari buruzko pelikulari ahotsa jaretzea proposatu zidan Ferran Llagosterak. Aurretik, gainera, galdetu zidan ea zer kontatzea nahi nuen. Eta gidoia idatzi

nion. Gero, musika. «Musika?», esan nion, «ni diskoaren munduan oso sartua nago, ez zaitez kezkatu, nik konponduko dut musikarena ere». Pelikularako zerbait konposatu nion propio, eta lehendik guk grabatutako diskoetatik hartu nuen beste zerbait. Primeran. Horrela egin zen pelikula: *Azkoitia, industria y tradición*. Gero, Elgoibarri buruz, Hernaniri buruz eta beste hainbat egin genituen. *Otamotzak* ere ordukoa da, Legazpikoa. Denak zine industrialia, denak Ferran Llagosterarekin.

Zuk zer egiten zenuen?

Kamera aurrean jartzea eta filmatzea salbu, dena. Egin behar zena.

Dokumental horiek denak gazteleraz ziren, ezta?

Bai.

Euskaraz zerbait egin zenuten, hala ere. Nonbait irakurri dut euskarazko lehenengo dokumentala *Bizibidea lantzen izan zela*. Hori ere zurea.

Bizibidea lantzen... Uste dut baietz. Hori izango da kooperatibei buruz. Badakizu zer gertatzen zaidan? Ez duzu sine-tsiko, baina hainbeste dauzkat eginda... Ahaztu egin zaizkit. Bai, titulu horrekin, dudarik gabe euskaraz egin genuen. Uste dut kooperatibei buruz zela.

Ikuska saila etorri zen gero. Nola sortu zen asmoa?

Lehen izaten zen ba NoDo? Hori kendu egin zuten 1977an, eta orduan katalanek asmatu zuten *Noticiaries de Barcelona*. Zine katalaneko institutuak egiten zuen. Nik institutu horretako presidentea ezagutu nuen, Joan Anton. Berak esan zidan nik horixe bera egin beharko nukeela Euskal Herrian. Esan nuen: beste saltsa bat. Baina gustatzen zitzaidan. Eta orduan, Ikuska saila egin genuen. Euskara bizian, hasieratik bukaerara.

Bartzelonako *Noticiaries* hartu zenuten eredu?

Haiek astean behin hasi ziren, baina urtebete ez zuten irauin. Guk, berriz, denbora gehiago hartu genuen, baina hobeto eginda. Haiek albistegia egiten zuten, eta guk egiten genuen gaiak hartu, eta landu. Adibidez, ikastolak zer izango dira. Hirugarren Ikuska ikastolei buruz izan zen. Monografikoak egiten genituen.

Hasiera batean, produktore Elias Kerejetak izan behar zuen. Urtebete egin nuen hitz egiten, baina, azkenean, beti lanpetuta eta konpromisoekin zegoen. Gero pentsatu genuen Eliasen anaia izatea produktore. Baina azkenean Eliasek esan zidan: «Heuk egin behar duk hori». Baina ni Laboraleko marketing zuzendaria naiz! Protokoloa, harreman publikoak, publizitatea... hori dena

ardura horren barruan. Eta, gainera, marketinga bera: bulegoetako produkzio bat eskatu behar zaie urtean, kontrolatu egin behar dira. Saltsa izugarrian sartu ninduten. Baina hogeitaz pelikula egin genituen.

«Gauzak konpondu nituen Antton Ezeizak produkzio exekutiboa egin zezan, baina Ikuska sailaren produktorea ni nintzen»

Zein izan zen produktorea? Zu zinela irakurri dut nonbait, baina Antton Ezeiza izan zela, beste nonbait.

Ni nintzen produktorea. Ah! Zer edo zer badakizu. Horrelaxe dira kontuak. Antton Ezeizak hanka egin zuen Mexikora Fraga atzetik hasi zitzaionean, handik Kubara joan zen, eta Kubatik etorri zenerako, nik urtebete neraman Elias Kerejetarekin asmo honetaz hitz egiten. 1977an itzuli zen, eta esan zidan lana behar zuela. Gauzak konpondu nituen, berak produkzio exekutiboa egin zezan. Baina produktorea ni nintzen. Produktua Laboralarena eta Orbegozo Fundazioarena zen, lehen hamar ataletan. Orbegozok %40 jartzen zuen, eta Laboralak %60. Hurrengo zazpi ataletan, Laboralak %60

eta Juanito Zelaiak, Tximisten bidez, %40. Nik gobernatzen nuen: orain hau, orain hori.

Aurreneko atala, *Herrigintza* izenburua izango zuena, sailetik atera egin behar izan genuen. Telesforo Monzonen apologia zen. Oso pelikula ederra da, Ikuska saileko onenetakoa, baina ez genion Ikuska izena jarri ere egin. Laboralean ikusi zuten eta beldurtu egin ziren. *Erreferenduma* izenburua jarri genion.

Ikuskan produktore zinen, beraz. Besterik egin zenuen? Musika, gidoigintza...

Ez. Produktore bakarrik. Eta noiz edo noiz, musikatxo bat egin edo off-eko ahotsa jarri. Ez zuten lortu nik Ikuska bat zuzentzea. Hasieratik Ikuska bat niretzat gordeta zegoen, Iparragirreri buruz egin beharrekoa. Baina nik ez nuen horretan hasteko gogorik, eta ez nuen egin. Zuzendaritza lane-ko hainbat kontu ez ditut gustuko. Niri exekuzioa gustatzen zait gehiago.

Ikuska batean agertu ere egin nintzen. Koldo Izagirre eta biok kotxe batean sartuta gaudela, kokota bakarrik ikusten zaigu pelikula osoan. Off-eko ahotsa gure arteko elkarrizketa da. Nafarroan goitik behera joan ginen, euskarari buruz galdezka. Hegorantz joan ahala, euskara behera doala ikusiz zoaz. Halako batean, ibaia agertzen da. Nik esaten dut: «Río Ebro. Mutilak, hau bukatu duk». Eta Koldok: «Eta pelikula». Horrela bukatzen da. Ez dakit zenbatgarrena zen. Nafarroari buruzkoa.

Ikuska saileko atal guztien artean zein nabarmenduko zenuke?

Niri asko gustatzen zait Luis Larrañagak egin zuena. Apaiza. Erbesteratua bizi da Caicedo Yuson. Burgos ondoan, baina Araba da. Gotzainak erbesteratu zuen hara, eta ez da mugitu handik. Hirurogeita ez dakit zenbat urte daramatza han. Zineaz berak adina dakienik ez dut ezagutu. Meza eman eta

zineari buruzko gauzen bilduma egin, ez du besterik egin. Herrietako jendearen bizimoduari buruzko pelikula egin zuen hark. Izugarri polita. Ederra egin zuen.

Ikuskak euskaraz egitea nola erabaki zen? Inork proposatu zizuen?

Ez zegoen dudarik. Gaiak denak ziren euskaldunak. Banekien publiko bat galduko nuela, baina banekien gauza bat oso ona egingo nuela. Euskarazko zinea, euskaraz hitz egina, baina modu naturalean. Azpigituluak jarri genizkien gazteleraz, baina azpigituluak kenduta, dena euskara hutsean. Testuak Koldo Izagirrek egiten zituen. Bera zen Antton Ezeizaren laguntzaile. Argazkia Xabier Agirresarobek, gero Espainiako argazkilaria onena bihurtu zena. Juanba Berasategi ere taldean zen. Beste pare bat ere bazen. Zuzendariak, batzuk kontsokratuak eta beste batzuk berriak.

Ikuskei buruz balantzea egingo zenuke? Zer ekarri zuten zure ustez?

Pelikulak nahiko egoki egindakoak ziren. Diferentziak zeuden. Aldea dago zuzendari kontsokratuen eta berrien artean. Produktuak baliagarria izan behar zuen eta, horretarako, batzuetan eskua sartu beharra zegoen. Kasuren batean eskua sartu behar izan zen, pelikula egiteko ardura eman zitzaio-lako, ez ni baino gutxiago zekien bati, ni baino askoz gutxiago zekien bati baizik. Antton Ezeizak eskua sartu behar izan zuen, eta horretan oso ona zen.

Pelikulak diruz ondo hornituta zeuden, dirurik gabe ezin baita zinerik egin. Dirurik gabe, edo zine txarra egiten duzu, edo zine esperimental oso ona. Baina nik ez nuen halakorik egin nahi. Nik zine herrikoia nahi nuen. Oso pozik nago sail horrekin. Anttonek [Ezeiza] asko lagundu zidan, baina ez dauka eskubiderik esateko berak egin zuela. Hura Kuban zegoela, nik Eliasekin [Kerejeta] proiektua tente eta lanean ipini nuen.

AKTORE LANETAN

Aktore ere izan zara. *Company's, procès a Catalunya* izan zen zure lehen pelikula.

Bartzelonan Companysi buruzko pelikula egiteko proiektua zeukaten, zine zuzendari frantses batekin, Marcel Carné, akaso zine frantsesak izan duen zuzendari onena. Protagonista nor izango zen nagusia frantsesa eta pelikula politikoa izanda? Yves Montand. Bartzelonan izan zen Montand, hitz egin zuten baldintzei buruz... Baina talde katalanista batek zioen Companysen oroitzapena bizirik zegoela oraindik, jendeak artean buruan zeukala zein izan zen, eta haren irudia ere garbi-garbi gogoratzen zuela. Etxe guztietan dago haren irudia. Eta, jakina, Yves Montandek ez zuen irudi hori. Gainera, Yves Montandek irudi bat zekarren berarekin. Orduan, talde horretakoek esaten zuten hobe zela aktore ezezaguna izatea.

Nik orduan zineko jendearekin harremana nuen, Ferran Llagosterarekin eta. Hori beti lagun izan nuen. Orduan, Katalunian galdetu zidaten ea Euskal Herrian ezagutzen nuen Companys ezagutu zuenik, testigantza eman zezakeenik. Esan nien Telesforo Monzon zela denetan egokiena, eta, nahi bazuten, jarriko nituela harremanetan. Zergatik ezagutzen nuen nik hura? Nire izeko ezkongabe bat, gure aitaren arreba, monzondarren etxean aritu zen giltzari. Nire izeko Parisko kondeen giltzari izan zen aurrena, Annabellarentzat egin zuen gero lan, Tyrone Powerren emaztea, eta Eulalia printzesaren giltzari ere izan zen. Isabel II.aren alaba, Alfonso XII.aren ahizpa eta Alfonso XIII.aren izeko, Irunen bizi zen Eulalia printzesa. Hori hil zenean, Telesfororen anaiaren etxera joan zen lanera izeko, Isidro Monzonengana. Beizamako baserritarra zen, baina oso polita eta dotorea! Monzon ezagutzen nuen izeko ikustera joaten nintzelako.

Joan ginen Telesfororengana. Katalanek Monzoni galdetu zioten ea zer irizten zion: Yves Montandek egin edo ezezagun

batek egin? Esan zuen: «Yves Montandek egiten badu, izango da Yves Montanden pelikula, eta ezezagun batek egiten badu, izango da Companysen pelikula». Garbia izan zen. Gero esan zuen: «Zuek ez zenuten Companys ezagutu, baina nik bai, asko gainera, eta badakizue zeinen iguala den? Meharragoa eta pixka bat txikiagoa zen Companys, baina hori baino igualagorik ez duzue aurkituko». *Hori*, ni nintzen! Ni sekula ikusi gabe nengoen Companysen argazkia. Derrepente, denak niri begira.

«Zinetik oso gertu egon nintzen, baina ez nuen sekula aurpegirik jarri. Bururatu ez zitzaidan bakarria horixe izan zen»

Esan zuen gero: «Eta egon seguru oso ondo egingo duela». Baina nondik nora? Nik sekula ez nuen esan aktore izan nahi nuenik. Zinetik oso gertu egon nintzen, baina ez nuen sekula aurpegirik jarri. Bururatu ez zitzaidan bakarria horixe izan zen. Gure artean komediante izatea ez zegoen oso ondo ikusia.

Segituan baietz esan zenuen?

Nik? Ez. Esan zidaten Bartzelonara joan behar nuela proba bat egitera. Joan nintzen, eramanez ninduten Generalitatera Tarradellasaren bulegora, preparatu zuten set bat kamera, argi eta guzti, jaka ipini zidaten eta esan zidaten: «Eseri hor». Lau edo bost aktore zeuden, eta bakoitzarekin eszena bat egin behar nuen, inprobisatuta. Lehenengoa Marta May izan zen. Nire emaztearen papera egiten du. Pelikulako zuzendari Josep Maria Forn-en andrea. Sartu zen eta, katalanez, esan zidan, malkotan, nire hamasei urteko semea aurkitu zutela Parisen. Hasi nintzen barrez! Barre atakea eman zidan! Bost proba egin behar nituen, eta bi bakarrik egin nituen. Kito. Pentsatu nuen: etxera orain. «Zer, gaizki, ezta?», esan nien. «Gaizki, bai», esan zidaten, «baina oso ondo egingo duzu».

Proba egitera joan aurretik, Elias Kerejetak aholku bat eman zidan: «Zuk lasai begiratu kamerari. Kamera zure esklaboa

bezala da, eta zuk lasaitasun osoz esaiozu esan beharrekoa». Horixe esan zidaten gero han: «Badakizu zergatik egingo duzun? Kamerari izugarrizko lotsagabekeriaz begiratzen diozulako. Bizitza osoa kamerari begira egon bazina bezala. Ez zaitu beldurtzen. Begiradan igartzen da». Hitz egin behar da, mugitu egin behar da, baina hori ikasi egiten da. Begiradarena, nonbait, ez da ikasten. Horregatik izan zen.

Zer moduz atera zen pelikula? Arrakasta izan zuen, ezta?

Bartzelonako zine areto handienean estreinatu zen. Urte eta erdi egon zen. Ez dizut gehiago esaten. Klasiko bat da. Urriaren 15a iristen denean [fusilatu zuten eguna], urtero pelikula hori ematen dute telebistan. Francoren *Raza* bezala da, baina Katalunian. Katalunian egindako pelikularik nazionalistena da, eta hori asko esatea da. Pertsonaia bakarren inguruko pelikula da. Companysen hagiografia ona. Alderdikoia da. Ez zegoen Companys aingeruen pare jarri beharrik. Baina uste dut masen pedagogia ona egiten duela. Erraz entenditzeko modukoa. Jakina, pelikulatik negar malkotan irteten dira, bukaera izugarria duelako, tragikoa, fusilatu egiten nautenez.

Zure lana zer moduzkoa izan zen?

Atrebentzia handia izan zen. Inork ez zuen eztabaidatu, ezta bere neurrian baloratu ere. Zergatik ez zuten eztabaidatu? Mundu guztiak zekielako ni berria nintzela eta ez nekien hizkuntza batean hitz egiten nuela. Hori katalan batek egin bazuen, akaso botako zioten zerbait. Baina niri ez. Nire meritua izan zen ausardia handia izan nuela hori egiteko.

Behin Companysen pelikula eginda, film luze gehiagotan hasi zinen aktore lana egiten.

Bai. Hilabete pasa baino lehenago beste bat egiten ari nintzen. Guztira 13 film luze egin ditudala uste dut. Beti gehien agintzen duten pertsonaiek egin ditut. Pelikula honetan nork agintzen

du gehien? «Luis Iriondok egingo du». Hiru aldiz egin dut bar-kuko patroiairen rola: *Kareletik*, *Gran Sol* eta *Terranova*. *Otra vuelta de tuerca* pelikulan, Etxeberria kondea naiz. *El pico*-n, diputatua. Aktore gisa telebista iragarkiak ere egin nituen!

Zer iragarki?

Café La Fortaleza. Bost urte jarraian eman zuten. Plano bakarra zen: ni goitik behera begiratzen, begirada pixka bat lizunarekin, kafea hartzen. «Hara! Begira! Kafearena!», esaten zidan jendeak. Laboralean nengoela egin nuen.

Aktore gisa egin dituzun lanen artean zein duzu gustukoena?

Gran Sol. Lanik egokiena han egiten dudala uste dut.

Oraingoz izen gabe ere aipatu izan duzu zure lan maiteenen artean.

Euskaraz da. Pelikula espeziala da. Ez da besteekin konparatzekoa. Tamainaz ere ordubetekoa. Artistaren kapritxoa izan zen. [Jose Julian] Bakedano artista da eta artista baten pelikula egin zuen. Pelikula miragarria. Maiteminduta nago pelikula horrekin. Bost lagunen artean egindako istorioa da: bi anaia, emakume bat, tabernari bat eta gero, ni, jueza. Uste dut hortxe asmatu zuela: Atxagaren istorioa eta gidoia oso onak dira. Pixka bat frustratua gelditu nintzen, film luzea izatea merezi zuelako.

Dena euskaraz egin zen. Sekula euskara egokiagorik! Baserritarrak printzesa bezala hitz egiten entzuten asper-tuta nago. Hori antidramatikoa da. Hori gertatzen da euskaraz. Denek hitz egiten dute batuan. Nik ez dut ezer sinesten. Horretan asmatu zuen pelikula horrek. Bakoitza bere dialektoan. Ni jueza naizenez, batuan. Beste bi mutilak Durangaldeko euskararen. Neska, portugaldarra denez, erdaraz bakarrik. Eta tabernariak bilbotar antzeko euskara, azentu markatuarekin. Ez dakizu zer aberastasun ematen dion!

Zer zuzendarirekin aritu zara erosoen? Zein izan da onena zuretzat?

Askok nire kasa utzi didate. Bitxia da. Ez dut izenik esateko halakok nire lana hobetu zuela. Ni lasaiena Ferran Llagosterarekin ibiltzen naiz. Zergatik? Nire laguna delako. Hari erraz esaten dizkiot gauzak. Hark entenditzen nau. Zerbait ez dudanean ondo egiten, beste modu batean egin behar dudala esaten badaki.

Zure aktore lana saritu ere egin zuten noizbait.

El pico-n egindako lanagatik eman zidaten saria, Bordeleko jaialdian. Ezkerreko diputatu abertzale bat behar zuten, Juan Mari Bandres bat. ETBko zuzendari nintzen garaian filmatu zuten *El pico*. Zapatu eguerdian joan, ilea tindatu, arratsaldean filmatu, lo egin buruan trapua jarrita, igandean egun osoa filmatzen, ilea destindatu, eta azken abioian bueltatu.

***My Fair Lady* taularatu gabe gelditu zinen bere garaian, baina zuk egokitutako musikal bat taularatzea lortu zenuen askoz geroago, 1980ko hamarkadan: *Pippin*.**

1987ko Euskal Mundu Biltzarraren bukaerarako zerbait prestatuko al nuen esan zidaten. Azken egunerako ez zeukaten ezer. Esan nien New Yorken ikusi nuen musikala jarriko nukeela hemen dantzan: *Pippin*, Stephen Swartz-ena. Karlomagnoaren semearen istorioa. Erdi Aroko istorioa, baina modernoa aldi berean. Ikaragarria. Baietz esan zidaten! 40 milioi pezetako aurrekontua zuen! Nire hitza ematen dizut: han mundu guztiak kobratu zuen, eta nik ezta bost xentimo ere. 50 emanaldi egin genituen. Euskaraz eta gaztekeraz. Joaquin Cuetok zuzendua, Zintzilik konpainiarekin, Juan Mari Segues, Elene Lizarralde, Ramon Agirre, Kontxu Odriozola, Aizpea Goenaga eta abarrekin. Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Donostian, Baionan... leku guztietan eman genuen. Madrilen ere egin genuen, Pavón antzokian.

Euskaraz emanaldi asko?

Ez dakit zenbat. Erdiak izango ziren igual. Batzuetan erdaraz, eta bestetan euskaraz. Aurreko udan Txinara joan nintzen eta, Pekinerako hegaldian, han aritu nintzen libretoak egokitzen.

AJURIA ENEA ETA EUSKAL TELEBISTA

Hori baino urte batzuk lehenago Carlos Garaikoetxearen gobernuko aholkulari aritu zinen. Nola iritsi zinen Ajuria Enera?

Companysen pelikula estreinatu genuenean ezagutu nuen Carlos Garaikoetxea. 1979an izango zen, bera Euskal Kontseilu Nagusiko lehendakaria zenean. Ekitaldi hartan galdetu zidaten poz handia eman al zidan pelikula egiteak. Nik ondo geratzen badakit nahi dudanean, orduan bai behintzat, eta esan nuen: «Badakizue poz handiena zerk ematen didan? Zuek denok hemen egoteak». Denetik zegoen, PSOEkoak eta denak. «Zuek hemen egoteak eta zuen artean, gainera, Carlos Garaikoetxea egoteak, Euskal Kontseilu Nagusiko lehendakaria nire pelikula ikustera etortzeak». Estreinaldi hartara etorri beharko zuten bi pertsona ez ziren etorri. Gizakia oso konplexua da. Ez zen etorri Telesforo Monzon, eta mundu guztiak galdetu zuen zergatik. Eta Javier Arzalluz ere ez zen etorri, nire lagun handia.

Gerora, Garaikoetxea Arrasatera etorri zen, kooperatibetara eta Laboralera bisita ofizialean. Guk antolatu genuen harrera, eta ondo egin genuen. Nik banekien halakoak nola egiten ziren. Hurrengo egunean hots egin zidan Jose Maria Ormaetxeak, Laboraleko buruak. Lehendakaria oso gusturara gelditu zela, inoiz ez ziotela horrelako harrerarik egin, eta zorionak eman nahi zizkidala. Nik neuk hots egiteko Ajuria Enera. Nik ezetz, erreparoa ematen zidala. Orduan Ormaetxeak berak hots egin zuen eta, Garaikoetxea jarri

zenean, telefonoa eman zidan. Zorionak eman zizkidan, eta jarraian, bere bulegora joango al nintzen arratsalde hartan bertan. Joan nintzen eta esan zidan: «Nirekin lan pixka bat egitea nahi nuke». Gutxien espero nuena. Txundituta gelditu zen bezperako etiketarekin eta abarrarekin. Nire nagusiekin konpondua zuen ordurako: lau egun Ajuria Enean eta bat Laboralean.

Zer egiten zenuen Ajuria Enean?

Prensa departamentua bazegoen, baina berrantolatu egin behar izan genuen. Harreman publikoen departamenturik ez zen. Hori eta antzeko beste hainbat gauza nik neuk sortu nituen. Protokoloarena ere ez zuten ondo egiten. Bilbotarren moduko handikeriak, baina baserritarrak bezala ziren.

Zer moduz joan zen esperientzia?

Niretzat, politena, iluntzeak ziren. Lehendakaria ernegatuta egoten zen, nekatuta, eta seiak aldera esaten zidan: «Etxera

«Batzokitatik bi aldiz iritsi ziren gutunak EAJra, esanez Garaikoetxea oker ari zela, EAJko karnetik ez zuen aholkularia hartu zuela eta»

joan behar duzu?». Nik: «Ez, oraindik ez». Orduan atzeko lora-tegian buelta bat ematen genuen. Egundoko kontuak kontatzen zizkidan. Berak nahi zituenak, denak ez. Berak asko estimatzen zuen hori. Bere idazkaritza kontueta-rako ez zidan niri deitzen. Sabin Intxaurrea zeukan horretarako. Oso mutil itxurazkoa eta jatorra. Hil zen hura.

Politikaren munduan ondo moldatu zinen?

Uste dut ni EAJn ez naizela beti ondo ikusia izan. Batzokitatik bi aldiz iritsi ziren gutunak EAJra, lehenengoa lehendakariak izendatu ninduenean, eta bigarrena handik sei hilabetera edo, esanez Garaikoetxea oker ari zela, EAJko karnetik ez zuen

aholkularia hartu zuela eta. Badakizu zeinek egin zuen nire alde? Javier Arzalluzek, nire umetako lagunak. Nonbait, honakoa esan zuen: «Nik neuk aholkulari bat beharko banu, hauxe hartuko nuke». Bere laguntzaileek esan zidaten horixe esan zuela. Handik sei hilabetera, berriro gutuna, eta berriro Javier.

Eta Ajuria Enetik barrena, Euskal Telebistara. Lehenengo zuzendaria izan zinen.

Ramon Labaieni huts egin zion Xabier Elorriagak, hilabete baino falta ez zenean, izutu egin zelako. Konturatu zen hura saltsa handia zela. Enpresa handia. Gauza bat da zinean papertxo bat egitea, eta beste bat telebista bateko zuzendaria izatea. Nik proposatu nuen Xabier Elorriaga, aktore eta kazetaria zelako, eta irakaslea Bellaterra Unibertsitatean. Perfektua zen. Hilabete batzuetan aritu zen. Gasteizera joan aurrena eta Alemaniara gero, kazetariak prestatzera. Baina azken hilabetean izutu egin zen.

Nik ez nuen nahi. Ni gustura nengoen Garaikoetxearekin, eta ez nuen beste inorekin egon nahi. Beti pentsatu izan dut Carlos Garaikoetxeak herri honen esperantza oso-osea ordezkatzeko zuela. Garaikoetxeak piztu zidan ilusioa ez dit beste inork piztu. Ez deitu zidanean, baizik eta ezagutu nuenean. Gizon zuzena, izan daitekeen presentagarriena, bere harrotasun puntuarekin baina oso neurrian, eta oso sinpatikoa. Oso balio handiak zeuzkan.

Gainera, ordurako hitz eginda nengoen *El pico* pelikula egiteko. Ajuria Enean egonda, egun batzuk hartu nitzakeen Bartzelonara grabatzera joan ahal izateko. Baina, bat-batean, telebistara joan behar nuela esan zidaten, emititzen hasi baino hamabost egun lehenago. Ezin nuen. Esan nien barizeak nituela asko bidaiatzen nuelako, ebakuntza egin behar nuela... Egia zen.

Azkenean, Garaikoetxeak hauxe esan zidan: «Mesede bat egin behar diguzu. Tarte baterako bada ere, hartu egin behar

duzu. Gero topatuko dugu ordezkoa». A ze buru jana egin zion nire lagun handi Labaienek. Labaien tematuta zegoen. Azkenean, etsi egin nuen. Baietz esan nion Garaikoetxeari, baina baldintza batekin: Ajuria Enera itzultzea. Esan zidan: «Zer, Kultura sailburu?». Eta nik: «Ez dut Kultura sailburu izan nahi. Ez daukat horretarako mailarik ezta inongo interesik ere. Nik zurekin egon nahi dut». Ez genuen horretaz gehiago hitz egin. Labaien zegoen artean Kultura sailburu, baina Donostiako alkate izatekoa zen.

ETB emititzen hasi zen egunean, 1982ko abenduaren 31n, ni ohean nengoan, ebakuntza egin ondoren ospitaletik irten berritan. Bi urte egin nituen telebistan.

Euskal Telebistako esperientzia zer moduz joan zen?

Gogorra izan zen hura. Osasuna galtzeko modukoa. Badakizu zer gertatzen zen? Edozer gauza eginda ere, ez zuen inork protestatzen. Azkenean hasi ziren *El Correo*-koak eta. Alderdiak, Euzko Alderdi Jeltzaleak, jaramonik ez zidan egin. Inork ez zidan instrukziorik eman, ezta beharrik ere. Denei eskertzen diet hori. Inork ez zidan presiorik egin, ez Herri Batasunekoek ez inork. Egia esan, mundu guztiak oso ondo jokatu zuen nirekin.

Josu Zubiaur izan zen EITBko lehen zuzendari nagusia, sortu aurreko garaian, eta Andoni Areizagak hartu zuen kargua, zu iritsi orduko. Haien ardurapean, zein ziren zure funtzio nagusiak?

Zuzendari nagusia arduradun politikoa zen. Niri beste dena zegokidan, alde praktikoagoa: erredakzioa, nesken irudia, mutilen irudia... Kamisetekin etortzen zitzaizkidan. «Ez daukagu jakarrik», esaten zidaten. Nire bulegoan neuzkan bi edo hiru jakak hartzen zituzten. Azkenean, hartu nituen haietako sei edo zazpi, ekarri nituen Azkoitiko sastrearengana, nire sastrearengana, eta bakoitzarentzat bi jaka eginarazi nizkion: bata itsas urdina eta bestea beix argia.

Denak berriak zineten. Zaila izan zen hutsetik hasita telebista martxan jartzea?

Erraza ez zen izan. Dena instalatua egon balitz... Baina ez. Han zegoen etxea eginda, kristalak justu-justu ipinita. Behean sartu unitate mugikor txiki bat eta handik emititzen zen. Hasi ginenean ez zegoen ezer. Behin barruan geundenean egin behar izan zen dena. Lehenagotik aritu ziren, maiatzetik abendura kazetariak prestatzen eduki zituzten, baina ni artean ez nintzen zuzendari. Politikariek ikuspegi politiko-
tik ikusten zuten telebista, eta beraientzat kazetariena zen garrantzitsuena. Niretzat, ez. Niretzat garrantzitsuena zen nola hasiko ginen. Zer materialekin hasiko ginen. Euskaraz ez zegoen ezer ere. Ba al dakizu zer zegoen bakar-bakarrik? Ikuskak. Zer diren gauzak.

Material falta hori nola hasi zineten konpontzen?

Errepikapenaren poderioz. Errepikapena errepikapenaren atzetik.

Bikoizketak ere, asko.

Bikoizketak ere egiteke zeuden orduan. Ez zegoen normalizatua. Arazo handia zegoen, baita hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ere. Gaur egun gauzak normalizatuta daude, baina garai hartan oraindik batuari buruzko eztabaidaren arrastoek irauten zuten. Batzuek onartzen zuten, beste batzuek ez. Saltsa bat.

Zer irizpiderekin jokatu zenuten?

Ez naiz akordatzten, baina ez zen batere gaizki joan. Nik beti esaten nuen: euskara herrikoia. Ez zait inporta erdarakada batzuk sartzen baditugu ere. Euskara herrikoia izan behar du. Herrikoia bada, denek ulertuko dute. Guk pentsatu behar dugu euskara egin behar dugula elkarrekin komunikatzeko. Nire teoria hori zen beti.

Euskara hutsez hasi zineten, baina gutxira eguerdiko albistegiak gazteleraz egiten hasi zineten.

Hori nik ez dakit. Galdetu EAJri. Nire garaian euskaraz baskarrik egin genuen.

ETB2 gero hasi zen, baina zure garaian hasi ziren eguerdiko teleberriak, gaztelerazko albistegiak.

Gero ETB2 zetorren eta. Albistegi horien segida izan zen gaztelerazko bigarren kanala. Niri ez zidaten esan. Berdin egingo nuen, baina ez zidaten esan. Hori EAJk erabaki zuen. Bilbon-edo dena den sarrera izateko kanala behar zuten eta, noski, ez zeuden oso lasai euskara hutseko telebistarekin.

Nola bukatu zenuen ETBko etapa?

Nik telebista utzi egin nahi nuen. Ordua ailegatu zen. Carlos Garaikoetxea bazihoan, eta nik zer egiten nuen han? Esanda neukan utzi egingo nuela, eta, nigatik, lehenago irtengo nintzen. Garaikoetxeari zer gertatzen zitzaion ikusita, jada ez nuen interesik Ajuria Enera itzultzeko. Gainera, Laboralean esanda neukan kutxak 25 urte betetzerako itzuliko nintzela, eta urteurrena gainean zegoen. Deika nituen.

ETBtik itzuli ondoren, bi urte egin nituen Laboralean lanean normal. Bi urtera, proposatu nien egun erdiz egitea lan. Urtebeteren ondoren, proposatu nien guztiz liberatzea, nire gauzetara dedikatu ahal izateko, eta behar zuten eguntan joango nintzela lanera. Beti izango nuela lanerako prestutasuna, eta lan egiten nuen egun bakoitzeko ordaintzeko. Nire prestutasunaren truke, beraiek gizarte segurantzaren osoa ordaintzea eskaini zidaten, egunero joango banintz bezala. Eta horrela, libre gelditu nintzen.

Orduan, Jose Antonio Ardanza lehendakari zela, Ajuria Enera itzuli zinen.

Jose Antonio Ardanza lagun handia nuen. Haren bulegoa eta nirea elkarren aldamenean egon ziren hainbeste urtean,

Arrasaten. Eugenio Ibarzabal ere laguna nuen, asko ezagutzen nuen. Eugenio konturatu zen jendea behar zutela Ajuria Enean. Gainera, konturatu zen nik protokoloan eta abarrean sortutako zerbitzuak utzi samarrak zeudela. Eugeniok jakin zuen Laboralean zer tratu egiten ari nintzen, eta proposatu zidan Ajuria Enean itzultzea aholkulari gisa. Egoera horretan posible nuela esan nion.

Ardanzak deitu zidan gero. Baiezkoan nengoela esan nion, baina arazo bat nuela. Ni etxe horretan aurretik egona nengoenez, Garaikoetxearekin hitz egin nahi nuela, ea zer iruditzen zitzaien galdetzeko. Iruñera joan nintzen, eta ez zidan arazorik jarri. Lasai joateko, bazekiela Ardanza eta biok Laboraleko lagunak ginela. «Zoaz lasai, Luis. Zortea opa dizut». Ez nuen gutxiago espero Carlosengandik. Orduan, joan nintzen.

Zer moduz Ardanzarekin Ajuria Enean?

Oso ondo. Akaso Ardanza da hotzagoa, baina oso gizon jatorra. Asko ezagutzen dut. Zuzena eta garbia. Ni horrelako gizonekin oso ondo konpondu izan naiz beti.

Eta zu zeu nola sentitzen zinen mundu horretan? Aurrena Garaikoetxearekin, gero Ardanzarekin, beti EAJren inguruan baina EAJkoa izan gabe.

EAJ bere lekuan zegoen. Sekula ez ziren sartu nirekin. Noizbait eskatu zidaten Granada Etxera joateko, seguruenik modu irregularrean emandako publizitate kanpainaren baten ardura hartzea nahi zutelako. Orduan besterik ez nintzen izan. Ez nuen arazorik izan. Javier Arzalluzen babesa izan nuen.

Lehen esan duzu zeure burua ez duzula abertzaletzat, baina gobernu abertzaletan aritu zinen lanean.

Azkoitiarra naiz ni. Garbi esango dizut. Ni gustura egon nintzen. Herri honengatik zer edo zer egiten ari nintzela uste nuen. Benetan. Ni ez naiz izan kontrarioa sekula. Hemen

entenditzen da alderdi batekoa izanez gero bestearen kontrario zarela. Ni ez naiz inoren kontrario izan. Esaten dizut: lagunak Herri Batasunekoak gehiago ditut Arrasaten, eta ez daukat zer ikusirik Herri Batasunekoekin, batere ez gainera; behar denean, garbi-garbi hitz eginda. Baina ez dute

«Bizi guztian bizi izan naiz Azkoitian. 82 urte. Nahi dudalako. Gustura nagoelako nire familiarekin eta Azkoitiko biztanleekin. Zer abertzaletasun gehiago»

den-dena gaizki egiten, eta besteek ere ez. Nik abertzale izateko zer egin behar dut, trikitixa egiten hasi hemen? Nire lehenengo hogeita hamar abizenak euskaldunak dira den-denak. Nahi edo ez. Ni hemen Azkoitian bizi naiz. Aspaldi batean Arzalluz Azkoitira etorri zenean, ni ikusi eta galdetu zidan: «Hik zer egiten duk herriaren alde, Luix?». Eta erantzun nion: «Hik egiten ez duana:

Azkoitian bizi». Bizi guztian bizi izan naiz hemen. 82 urte. Nahi dudalako. Gustura nagoelako nire familiarekin eta Azkoitiko biztanleekin. Zer abertzaletasun gehiago. Orain zer esaten didazu? Independentek izan behar dugula Espainiarekin? Gehiengoak nahi baldin badu, bai. Ez daukat inolako dudarik horretan. Obligatuta ez, eta hildakorik ere ez. Gerra guztiak kanpora. Nik istilurik eta errietarik ez. Inolaz ere ez. Badakizu nire jatorria zein den. Esan dizut nire bi familia bakoitza alde batekoa zela, eta gure aitak eta amak zer jokabide izan zuten. Horrek arrastoa utzi zigun. Bitxia da, baina nire anaiak ni bezalakoak dira. Gauza konkretuetan zuk zure iritzia ematen duzu, baina ulertuz besteak arrazoi izan dezakeela.

Denetik egin duzu zure bizitzan. Pozik zaude egindakoa-ekin?

Akaso, gehien gustatu izan zaidana jendea dibertitzea izan da, dibertiaraztea. Noel Coward-ek abesten zuen bezala: «I

believe than since my life began the most I've had is just a talent to amuse» [«Uste dut nire bizitza hasi zenetik izan dudan guztia hauxe besterik ez dela: besteak dibertitzeko talentua»]. Bizitza, niretzat, kontatu dizkizudan hasierako tristezia guztiekin, arrakastatsua izan da. Oso lasai nago egindakoarekin. Oso pozik bizi naiz. Ez nago egindakoarekin satisfetxo. Inoiz ez nago satisfetxo. Jendeak ondo hartu izan du, hori da guztia. Jendeak txalo egin dit. Erraza egin zait gauzak egitea. Akaso ez dut talentu handirik izan. Gertatzen da oso gauza inportanteak nituela: ikaragarritzko optimismoa; gabezia handiak izanik, ezagutza gose handia; eta nire buruarengan konfiantza osoa. Akaso imajinaziodun tipo bat izan naiz, eta gauzak egiteko beharra sentitu dut, izaera artistiko edo intelektualeko zerbait egiteko beharra.

Esan dizut beti Azkoitian bizi izan naizela. Nire familia-rekin bizi beharra daukat. Nire familiarekin maiteminduta nago. Zazpi iloba ditut, denak zintzoak, jatorrak eta goi tituludunak. Ez naiz aita izan, baina arrastoa utzi dut. Nire poz handienetakoa horixe da. Ez musika, ez zinea, ez mundu ibilerak... Nire familian utzitako arrastoak ematen dit pozik handiena.

HAMAR IZEN

Bukatzeko, hamar izen. Esaidazu zer izan den bakoitza zuretzat. Marcel Proust.

Nerabezeroaren ondoren deskubritua, kulturalki dena izan zen niretzat. Krak bat, gaurko hizkeran. Nire Pangloss partikularra izan zen. Nire basamortu kulturala lorez bete zuen. Nire ezjakintasunean jakintzen eta esperientzien lorategi osoa landatu zuen: arlo plastikoan, zientifikoan, musikalean eta baita gizartearen zientzian, bere katiximarekin eta portaera arau sofistikatuekin. Ez daukat hitzik... Proust gabe niretzat

ez zen ez kulturarik ez estetikarik izango, eta nire bizitza oso bestelakoa izango zen. Izugarria izango zen nire bizitza Marcel Proust ezagutu gabe alferrik galtzea!

Telesforo Monzon.

Bere maneretan, Federiko Handiaren gorteko printzea. Bere ekintzetan, antzinako erromantikoa. Gizarte arloan nagusitasun-konplexu lañoaren jabe, klase apalengana gehien hurbildu zen lider politikoa izan zen gerran eta gerraostean. Gero, preso politikoeekin eta haien senideekin jokatu zuen rolagatik eta ezker abertzalearen lider izan zelako sona handia hartu zuen; lagun asko bezala, etsai asko egin zituen.

Jose Maria Arizmendiarieta.

Laster, santu. Horrekin dena esan dut. Kanonizazio bidean da Mondragon kooperatiba-munduaren sortzaile eta sustatzaile gisa. Lerdena, dotorea, zintzoki diskretua. Bizimodu tatxarrik gabekoa izan zuen, soila eta apala, nekaezina eta praktikoa, langilea eta modernoa. Beste gauza askoren artean, bost gazte saiatu gidatzen eta hezten asmatu zuen, haien artean Jose Maria Ormaetxea, gizarte eta lanaren mundua hobetzeko bere printzipioak gauza zitzaten. Eta santu egiten dutenerako, proposatzen dut gizarteak izendatu dezala sustatzaile sozialen patroiz; titulu guztiz laikoa litzateke, baina Elizakoa bezainbeste mereziko luke.

Jose Maria Ormaetxea.

Pertsona cartesiar, austero, justu eta eskuzabala. Mondragon mundu kooperatibo erraldoiari, milaka pertsonako eta 299 baino enpresa gehiagoko kolektiboari, bizitza eta garapen ikusgarria ematea izan da bere balentria. Mundu kooperatiboaren aita, kudeatzailea, sustatzailea eta gidaria izan da. Ez dago bera bezalakorik. Ez dut haren antzekorik ezagutu. Gure herriaren historian merezitako lekua du: gure garaiko sustatzaile sozial handiena izan da.

Lourdes Iriondo.

Kantari bezala, fenomenoa. Parerik gabea. Diferentea. Geldiezina. Bartzelonan Lourdes Iriondoren erreplika asma-tu zuten: Maria del Mar Bonet. Balear irletako izarra, kantari izugarria, baina erreplika. Lourdes Iriondo agertu eta hilabete batzuetara, Mari Trini agertu zen. Gero, Maria del Mar Bonet. Gero, Hispavoxek, Maria Ostiz. Produktora bakoitzak bere erreplika. Dianan jo genuen. Lourdesek jarraitu ahal izango zuen. Baina beldur nintzen, eta gertatu egin zen: maitemindu egin zelako saldu zuen bere karrera. Xabier Lete kantari bihurtu zenetik, ez zuen ia disko gehiago egin. Nik hari on besterik ez nion egin, ez zidan kalterik egin, baina ez zuen ondo jokatu. Leialtasun gutxiko emakumea zen. Eskertzen diot, benetan, haren bitartez Xabier Lete ezagutu izana.

Ferran Llagostera.

Bizitzako nire hiru edo lau lagun onenen artean dago. Hori da inportanteena. Harekin nik konfiantza osoa daukat, eta berak ere bai nirekin. Hark esaten didana beti onartzen dut nik. Beti esan dit esan beharrekoa. Gizon zuzen-zuzena. Ez da plazagizona. Bestela, hark zinean egin dituen lanekin, honez gero egoera hobean behar zuen. Zentzu horretan, ez da batere katalana.

Elias Kerejeta.

Elias Kerejeta zen pertsona konplikatua, baina oso lagun ona. Behin egiten bazenuen lagun, betiko laguna. Talentu handikoa. Espainiako produktorerik garrantzitsuena eta onena, dudarik gabe. Pelikula asko egin zituen. Berak egin zituen pelikula onenak eta egokienak. Kerejeta gabe urte askotako zinea ez dago ulertzerik.

Xabier Arzalluz.

Italiako Berpizkundeko Florentziako liderrak gogorarazten dizkit bere traza politikoak. Elokuentea, jakintsua, grinatsua

eta distantea. Lagunekin oso leiala. Eta, gainera, frankismo osteko hizlari onena bere oratoria distiratsuatik. Cadizko Gorteetatik aurrerako parlamentarismoko figura handienekin arrakastaz lehiatu ahal izango lukeen bakarra, akaso. Gainera, azkoitiarra da. Eta hori, bilbotar izatearen ondoren, izan daitekeen handiena da.

Carlos Garaikoetxea.

Frankismo osteko Euskal Herriaren itxaropen handia. Ardurarik handienarekin prestatu zen lehendakari kargurako. Karismatikoa, liluratzaila, aparteko manerak zituen. Masen idoloa izan zen, bere erakarmen naturalagatik eta gizon zintzo eta justuaren auragatik. Gaineratu, horri, aurkaririk onartu ez zuen estatu gizon handiaren jakituria zuela. Euskal herritarren gehiengoarentzat, eta euskal historiarako, Kennedy partikularra izan zen eta, akaso, oraindik hala da.

Jose Antonio Ardanza.

Laguna dut Ardanza, oso hurrekoa, Laboralean hamar bat urte egin baikenituen elkarrekin lanean. Oso gauza onak besterik ez nituzke esango berari buruz. Denaren gainetik, bakea ekartzea zuen desiorik handiena. Zintzoa, hurbilerraza, zuhurra eta sinpatikoa. Oso izen onekoa mass median. Konfiantza eta adiskidetasuna ematera bultzatzen zaituen adiskide posible baten aurrean zaudela sentiarazten dizu. Izen oneneko eta urruntasun gutxieneko lehendakaria izan da seguruenik. Bere merituengatik iraun zuen beste inork baino gehiago lehendakari karguan. 🍷

Euskal musika giroa 1960ko hamarkadan

I Joxemari Iriondo
Kazetaria

Benetan eta egiaz poztu nau 'Jakín' aldizkariak Luis Iriondorekin elkarrizketa luze eta sakon hau egiteko hartu duen erabakiak, zer esan eta zer erakutsi asko baitu Azkoitiko kabailerito argiak.

Badut pozteko hainbat motibo. Izan ere, askotan neu netoa eta bera bigarren mailako dela esanez txantxa zoroa franko egin izan baitiot, benetako miresmena diodalarik ere funtsean.

Zenbait istorio bitxi

Aspalditxo entzuna nuen Los Xey talde gipuzkoarrak Madrilén, Bartzelonan, Argentinan, Venezuelan, Txilen, Uruguayn, Mexikon eta bereziki Kuban sekulako arrakasta izana zuela (dolarra franko irabazi ere bai, Migel Sagastume *Mago de Urki*-k askotan esan zidanez); eta eszenatokietatik aldentzeko garaia heldu zitzaientean, Azkoitiko Kontrapuntoak talde hasiberriari eman nahi izan zioten bere oinordekotza, Eibar, Aretxabaleta eta Azpeitiko Soreasu antzokian egindako jaialdietan, haien bidetsutik zihoazela irudituta edo.

Oraindik ere belarri-ertzean daukat Los Xey eta Kontrapuntoak taldeek Soreasu antzokiko jaialdi hartan eman zuten kantu asko.

Nori berea eman behar baitzaio, gogoan dut oso Azkoitiko taldea 1961ean hasi zela kantari Luis Iriondoren amets handiari jarraituz, *My Fair Lady* eta holako opereta girokoak euskaraz ere emateko asmoz. Eta emititzen hasi berria zenez, «Agrupación Musical de Radio Popular de Loyola» izen ponpoxoa zeramaten, Migel Eizmendi *Txapel* apaiz zenak zuzentzen zuen Azpeitiko abesbatzak bezalaxe. Bi estilo ezberdin, baina biek euskaraz kantatzea helburu.

Artean ez nuen harremanik Luisekin; baina 1961. urteko irailean irratian ezagutzeko aukera izan nuen hurbiletik, *Música de nuestros días* irratsaioa egitera etortzen zen-eta astero-astero.

Gero, lagun egin eta geure etxean hasi ginen harremanetan, Lourdes Iriondo, Julian Lekuona, Benito Lertxundi, Joxan Artze eta 1966an Ez Dok Amairu taldea osatuko zuen gazte jendearekin berriketaldiak eginez, inoiz Belter diskoetxean grabatzeko aukera izango genuela pentsatuz edo.

70eko hamarraldian Kaja Laboraleko –Lan Kide Aurrezki Kutxa, garai hartan, 1973– publizitate saila antolatu zuenean, publizitatearen euskaratze lanetan lagun niezaion eskatu zidan, eta bai gustura egin ere, ordainez munduaren bazter askotara sekula inoiz ahaztuko ez ditugun bidaia eta txangoak egin eta gozatuz.

Horrela hasi zen gure arteko adiskidantzaren historia xumea, musikaren eta lanaren ardatzean. Geroztik harreman ona izan dugu beti –gutxitxo, beharbada.

Gaur ohore eta eskerrak eman nahi dizkiot eman didazuen egokiera eder honetaz baliatuta. Eutsi goiari, Luis! Txiletik itzultzean egongo gaituk lasai, munduari konpondu pasada bat emateko, sarri egin izan dugun bezala.

Baina...

Badakit zahartu eta gero lehengo istorio zaharrak berritzen hastean irakurlea asperrarazteko arrisku bizia daukadala. Baina ezin etsi dut inola ere Luis eta nire garaiko euskal musika

giroaz zerbaitxo esan gabe, Luisen irudia euskal kantugintza berriarekin lotzen baitut bete-betean holakoetan. Irakurleak barkatuko ahal dit luzatzen banaiz.

60ko hamarraldi hasiera hura ezagutu zuen edonork badakike oso urte bereziak izan zirela haiek euskalgintzaren alorrean. Urte zailak, baina aberatsak aldi berean. Pentsatzen jartzen naizen bakoitzean, zera datorkit burura behin eta berriz: orduan ere amak egindako umeak zirela, oraingo aukerarik ez bazen ere. Eta holaxe sortu zela milaka ekimen herri honetan.

50eko hamarraldiaren hondarretan, eta 60koaren lehen urteetan, hainbat herritako irrati txikien sortzea ezagutu genuen –Segura, Arrate, Tolosa, Loiola eta abar–. Eta liburu berriak argitaratzea, aldizkariak suspertu eta sortzea, dantzari eta txistularien lehiaketak antolatzea, abesbatzen eta otxoteen arteko zeingehiagokak, euskal kantuari irauli handi bat ematea, ikastolak sortu eta suspertzea, antzerki taldeak berritu edo sortzea... Mila ekimen, mila iniziatiba. Txikia baina handia den herri honek ez zuen etsi, ez zuen erdibidean gelditu nahi izan.

Gure historia txikiari begira jarrita, nekez ahatz daitekeen garai hartan lan asko egin zela esango dut. Norbait harrituko da gure irakurketaren nahasiaz, baina urte haietako data daramate oraindik ere gure etxeko apaletan dauden hainbat eta hainbat liburuk: *Arantzazu, euskal sinismenaren poema* (S. Mitxelena); *Euskaldunak* (Orixe); *Milla euskal olerki eder* (S. Onaindia); *Joanak joan eta Gorrotoa lege* (J. Etxaide); *Ama-bost egun Urgainen* (J.A. Loidi); *Maldan behera eta Harri eta Herri* (G. Aresti); *Literatur eskuararen inguruan* (A. Irigarai); *Peru Leartzako* (Txillardeggi); *Arranegi* (E. Erkiaga); *Unamuno eta Abendats* (S. Mitxelena); *Historia de la Literatura Vasca* (K. Mitxelena eta L. Villasante); *Bizkaiko aditz-erak eta Euskal gramatika* (Umandi); *Euskal Herriko ekonomiaz* (G. Ansola); *Sagardoaren graziya* (R. Artola, Antonio Zavalaren Auspoa sailean); *Quousque tandem* (J. Oteiza); *Vasconia* (F. Krutwig)...

Euskal musikaz

Euskal musikari dagokionez, gure kantuek bazuten inola uka ez zekiekeen tradizioa eta arrakasta hemen eta gure muge-tatik kanpo ere. Gure koruak, gure abesbatzak ezagunak eta txalotuak ziren nonahi.

Baina nik dakit ongi, euskal irratigintza hasi eta hemengo-tasunez jantzi nahiez hasi ginen garaian, zer-nolako eskasia eta ezina izan genuen, gure kantuen betikotasuna nolakoa zen kanpotik mila eratako berritasunak zetozkigun bitar-tean. *Itsasoan laño dago, Maritxu nora zoaz* edota K. Mun-giak eta K. Fagoagak kantatzen zituzten Iparragirrereren kantu

ederrak –*Ara nun diran, Zibilak esan naute, Gitarra zartxo bat-aspergarri egiten hasi zitzaizki-gun, edo erabat aspertuak ziren gure irrati-entzuleak. Eta halaxe hasi zen euskal kantugintza be-riaren mugimendu hura.*

Historia guztiak ez dira asko-tan kontatu edo uste izaten den bezala. Sarri esan edo idazten di-renak entzun/irakurrita, badiru-di euskal musika berria deitua-

ren guraso eta sortzaile-eskubide osoa talde bakar batena dela Euskal Herrian: 1966ko urtearen lehen hiruhilekoan sortu zen Ez Dok Amairu taldearena, alegia (harrotasunez gogoratuko dizut neu ere sortzaileen artean nintzela). Inork ez baitu uste, edo ez daki zerbait egin zuen besterik ere izan zela 1950-1960 aldiko egonezin larri hartan kantuen alorrean ere. Goraki esan nahi dut lehen ere behin baino gehiagotan esan eta idatzia: gure musika berriaren fenomeno ez dagoe-la talde bakarraren merituetan, ingurune eta giro oso baten eraginean baino.

Ez da sekula ahaztu behar orduko «izan direlako gara, eta garelako izango dira...» esperantzazko oihu/aitormen hura.

Badirudi euskal
musika berria
deituaren guraso eta
sortzaile-eskubide osoa
talde bakar batena
dela: 1966an sortu
zen Ez Dok Amairu
taldearena, alegia

Aurretik ere lan asko egin zelako bildu ginen lanera aipatu urte haietan. Eta zerbaitxo egin genuelako etorriko ziren ondoren etorri direnak ere, agidanean.

Apaiz buruzuri bat

Euskal kantu berria deitu denaren sailera bilduz, Nemesio Etxaniz apaiz zenaren aipamena egitetik abiatu behar dugu, ezinbestean eta nori berea emanaz. Huraxe baitugu lehenengo euskal antzerkiaren sailean eta gero kantugintza berrian lana serio egiten hasi zen eredu ederrenetakoa.

Euskal literatura eta antzerkia lantzetik hasi zen, herri xumearen bihotzeraino heldu nahita. Poesia zerbait baino gehiago landu zuen, bere modura; baina kantuzale porrokatua izaki, *Kanta-kantari* liburuxka (Azkoitia, 1951) argitaratu zuen, gerra ondorengo urteetan sortutako kantu mordoxka bilduz. Adibidez, ordukoxeak dira *Anttoni eta Antton* (Lourdes Iriondo eta Xabier Lete), *Solferino itsua* (Enarak seminarista taldea), *Alargunarena* eta beste. Kantuak egin, moldatu eta kantatu nahi zituzten guztien eskura jarri nahi zituen aipatu liburuaren bidez.

Kezka eta sentiberatasun berezia zuen Etxanizek kantu berriekiko:

Modako kantu guztiak erderaz bakarrik entzuten genituan. Ikusia zegoen orrela jarraitu ezkerok gure izkuntza atzeraka joango zala gaztediaren aotan. Arrisku ori guregandik galtzeko, euskaraz ere kanta berriak sortu zitezkeela bururatu zitzaigun oraintxe amasei bat urte...

Horrelaxe sortu zuen *Kanta-kantari* liburuxka, hogeita hamazazpi euskal kanturekin. *Txotis, pasodoble, tango, rumba, txa-txa-txa* eta aldi hartan modan zeuden beste erritmo kanpotarrak oinarri hartu eta letrak prestatzen saiatu zen buru-bihotz, gaztedi euskaldunak onartu eta kantatuko zituen esperantzaz. Bere ustez, «mitiñak baiño askoz geiago egin dezakete euskarazko kantu egokiak noraezean dabilen gaztediari errizaletasuna biotzean txertatzeko».

Poesia egin, forma klasikoan egiten zuen hark; baina edo-nork abesteko moduko hitzak ziren, 1958-1959an herri handietako aretoetan¹ ematen ari ziren film honenak bezala:

*Kwai ibai gaiñeko zubia*¹

Danga! Etxetik urruti.
Danga! Etsai begipean,
emen naukazu, maite,
zubi bat jaso nairik lanean.
Danga! Etxetik urruti.
Danga! Txistuka bidean,
zure begi gozoen
argia dedala biotzean.
Ai, nere maite,
zu noiz ikusiko
emen nabil ametsetan,
zure izena adituaz
basamortuko aide onetan.
Aisa, dijoa Felisa.
Aisa, txori baten gisa...

Beste batean honako *txa-txa-txa* hau ere moldatu zuen, adibidez:

Txa, txa, txa...
Gure neska motxa.
Nun da gure neska motxa,
zintzilik bere mototsa?
Argi du begi zorrotza;
pozik dakar gaur biotza.
Txa, txa, txa...
pozik daukat biotza.
Txa, txa, txa...
Gure neska motxa.
Ai, ai, gure neska motxa!
Moztu diote mototsa;
illun du begi zorrotza,
eta negarrez biotza.
Txa, txa, txa...
Negarrez daukat biotza.
Txa, txa, txa...
Moztu diote mototsa.

Lourdes Iriondo eta Xabier Letek onartu eta kantatu zuten bere *Anttoni eta Antton*; eta Mutrikuko Txairo bikoak grabatu honakook, beranduago:

Berandu dek, berandu,
ire bizitzan egin ditukan
gaiztakeriak zuritzeko.
Berandu dek, berandu,
ire okerren kalte aundiak
orain damuz garbitzeko

Langile-etxetan ire jornalak
gosea zabaldu zian;
irean berriz, aisa ziñaten
gizentzen irabazitan.
Langile-aurrak gaiso ituan
gosetearen azpian

Berandu dek, berandu,
ire kaltea konpontzeko.
Berandu dek, berandu
osasuna berritzeko...

Eta beste hau:

Ana,
auxe da lana!
Zu gabe gozakaitz det dana.
Jana eta edana
kaltegarri ditut, laztana.
Ana, Ana...
Usoak joan dira egoaldera
kabi berriren bat an bilatzera,
maitasun galduak aztutzera.
Lañoak aizetan dabiltz
bide luzeak egiten,
biotz isillen malkoak
ez ditu iñork jakiten.
Ana, Ana,
negarrez urtu naiz dana.
Edanari nago emana.
Atoz, ai, neregana
Atoz, bai, Ana.

Kritika zorrotza egin zioten don Nemesiori. Esan ohi zuen Donostiako *Círculo Cultural* batera gonbidatu zutela behin batez euskal musika eta kantuari buruzko hitzaldi bat eman zezan, eta luze-zabal hitz egin zuela bere iritzia emanaz. Handik gutxira:

— Nola artu zintuzten itzaldi artan? —galdetu zion kazetariak, eta berak, oso goibel: — Donosti'ko Circulo Cultural'ean entzunarazi ziranean kanta berri auek, batzuek parrez artu zuten, xelebrequeri bat bezela; ta beste batzuek, aitarenka asi ziran, orrelako kantak euskal-itzez jaztea euskara kutsatzea eta zikintzea zala-ta. Orduko asmoak bere ondorena izan du orain urte batzuen buruan, eta gazte oiek esnaera berria eskeiñi diote gure izkuntzari, euskara kanta berrietan nagusi agertuaz. Au da gertaera, ta gertaera pozgarria euskaltzale guzientzat².

Harekin egindako bilerak/elkarrizketak gozo eta aberatsak ziren. Luzeak, baina inoiz ez aspergarri. Beti ekarriko zuen tango edo pasodoble berriren batentzat egindako letraren bat, lagunei sentimendu handiz kantatu eta gero iritzia eskatzeko. Letra xeble samarrak inoiz, irri eragiteko intentzior eginak. Bestetan, serioak, tango bati zegokion drama barru-barruan zeramatenak.

Plazatan nahiz aretotan kantatzen hasi ziren gazteei kritika egiten ere saiatu zen. Baina kritika baikorra beti, onbera eta gozoa, gure artean ezohikoa izan den moduan.

Garai hartan egindako elkarrizketa batean honela zioen kantari berriei buruz:

Oso ondo ari dira gazteak, oso ondo. Baiña kantatu bakarrik egiten dute, oso lotuta ikusten ditut, askatasunik gabe. Ez diote kantuari abesti berriaren estilo eta mimika ausartarik eransten, eta entzule gazteak orixe nai du. Bestalde, letra asko arlote samarrak dira, musikarekin ondo josi gabeak. Ala ere, erdarazkoak baiña obe dira guretzat. Eta akats au konpontzeko, olerkari eta kantarien arteko batasun bat lortzea ona litzake. Baiña bitartean, segi aurrera, gazte maiteok!

La Familia Trap de Bilbao

Izen hori zeraman fama handiko filma 1958an aurkeztu zen Bilbon lehenengo aldiz, eta sekulako arrakasta izan bide zuen. Hori zela-eta, 1959ko otsailaren 12ko *Gran Vía* aldizkari bilbotarrean A. Amestoy kazetariak egindako idatzi luze batean irakur daitekeenez, *La Familia Trap de Bilbao* izengoitia ezarri zieten launaka (lau anaia) eta zortzinaka (zortzi neba-arrebak) kantatzen zuten Robles-Arangiztarrei. Ez dakit deitura horrek grazia handirik egin zien, Ugutzek behin esan zidanez. «Haiek zazpi bakarrik ziren, eta gu berri zortzi gira».

Dena den, euskal musikaren mugimendu hura aipatzen dugun bakoitzean, gure adiskide Paulo Iztuetak askotan eskatu izan didana aitortuko nuke aurrera egin baino lehen. Alegia, garai hartako (1957-1958) euskal kantugintza berriaren mugimendua Bilbon edo Bizkaian hasi zela beste inon baino lehenago.

Arrazoi du berastegitarrak. Garaitsu hartan, Bilbon eta Zeberio aldean euskararen eta euskal musikaren aldeko kontzientzia suspertu nahi zuten taldeen ahalegina nabaria baitzen. Peñatarrak, X. Gereño, Bengoa Zubizarreta, Kintana, Aresti eta beste, kantaldiak, txistularien kontzertuak, otxoteentzako sariketak, idatz-lehiaketak eta abar antolatzen hasita baitziren buru-bihotz.

Jaialdi haietako asko Bilboko itsuen elkartearen alde, zirku zaleen elkarteari laguntzeko, Bilbo eta Bizkaiko gor-mutuen elkarteari babesa emateko, edota beharrean zen familiaren bati laguntzeko antolatu ohi ziren. Gabon-Eguberri jaietan, Errege-egunean eta hola egiten ziren jaialdiak, egun horiek ondo etortzen ziren-eta baimenak lortzeko. *Delegación de*

Garai hartan, Bilbon eta Zeberio aldean euskararen eta euskal musikaren aldeko kontzientzia suspertu nahi zuten taldeen ahalegina nabaria zen

Información y Turismo-ko ordezkarien oztopoak gainditze-ko modu bakarra horrelakoxe aitzakiak izaten ziren, orain askori xeble samarra irudituko bazaio ere.

Robles-Arangiz zortzi neba-arrebek dantza egiten zuten, eta, behar zenean, baita kantatu ere Bilboko nahiz Iparraldeko jaialdietan. Talde bikaina zen dantzan, kantatzen, txistua jotzen nahiz antzezleri. Launako bi talde egiteko gai ziren. Batetik, Enarak laukoa (Edurne, Garbiñe, Gizane eta Maitane); eta, bestetik, berriz, Soroak laukoa (Alatz, Irkus, Iker eta Ugutz). Eta maila handiko edozein jaialditarako gai ziren.

Inoiz edo behin Euskal Herriko mugetatik kanpo ere joan ziren, eta jende handiarekin programatu zituzten, orduko kronikek esaten dutenez. André Dassary *chansonnier* famatuarekin kantatu zuten Frantziako hiriburuan. Baita Luis Mariano irundar famatuarekin ere inoiz.

Beren ahaleginaren lekukoa utzi nahi eta 1961ean disko txiki bat argitaratu zuen Soroak laukoak, zendu berria den Ximun Haranek Baionako Euskal Museoan egindako grabazio batez baliatuta.

Inork gutxik aipatu izan badu ere, euskal kantugintza berrian emandako urratsik goiztiarrenetakoa huraxe izan zen, seguruenik.

1960an Nafarroa Behereko Arboti-Zohotan egin zen Euskaltzaleen Biltzarrean kantaldia eman zuten Robles-Arangiztarrek eta Txabi Villaverdek, eta ahoa bete hortz utzi zuten hango entzulegoa. Itxura denez, baita hango entzuleen tartean zegoen Mixel Labegerie mediku jauna bera ere, hala esan baitzien jaialdia amaitu eta laster: «Bai, azkenean begiak ideki dizkidatzue. Horretxen bila nenbilen aspaldian, hauxe da nik nahi eta behar nuena».

Kritika larriak ere izan zituzten; baina denetan bitxiena (tentelena) 1960ko azaroan *Enbata*-n azaldu zen hura, seguruenik: «Soroak talde hau hereje hutsa al da, ala tontoak dira? Ondo kantatzen dute, bai, baina ez da gurea hor dabilten *guitarra española* hori» –idatzi zuen kronikariak–.

Iparragirrerenak askoz ederragotzat zituen, ez zekien-eta nonbait hark ere ez dakigu nongo gitarra izan ohi zuela lagungarri.

Bilbon, Parisen, Bruselan, Anberesen, Liejan, Ganten, Bournen eta abar izan ziren, euskaraz kantatu eta txalo eta aipamen asko irabaziz.

Horiek eta beste meritu artistikorik ere gogoratu beharko genuke *Bilboko Familia Trap* hari buruz, baina bego horretan gaingiroki egindako kontaketa.

Mixel Labegerie

60ko hamarraldiko euskal musika giroa aipatzean, mediku jaun kantari honen ekarpena oso goian jarri behar da, bakarrrik eta gitarra baten laguntasunez azaldu zen lehenengo kantaria izan baitzen, 1964-1965ean.

Ez genuen haren berririk harik eta Piarres Lartzabal jaunak Baionako Goiztiri diskoetxean egindako disko txikia eskura ekarri zigun arte, Irunen bilduta. Ez zuen eman argitaratze urtearen berri zehatzik –horrela egin ohi zuten gehienetan Bidasoaz haraindi egiten ziren grabaketetan, zentsuraren beldurrez edo.

Lehenengo disko hura, inon saltzen jarri baino lehen, 1965eko Aberri Egunean Hazparnen banatu zuen Labegeriek, bere lagunik maiteenen artean. Baina haren albistea lasto eiharretan sua bezala zabaldu zen, eta berehala heldu zen Hegoaldera ere, ezkutuka.

Guztiz kantu harrigarri xarmantak iruditu zitzaizkigun. *Gazteri berria*, *Ezkilaren kanta*, *Gure astoa Balaam* eta *Gatua Pitxitxi* bildu zituen lehengoan. Bigarrenean, berriz, *Haurtxo haurtxoa*, *Primaderako liliak*, *Gudari euskaldunaren kantua* eta *Bakearen urtxoa*.

Nola bata hala bestea urratzeraino entzun eta entzunarazi genituen, baina ez genuen izan irratiz emateko ausardiarik, bakarren bat izan ezik; Fraga Iribarne gogor eta setatsuaren begiradapean zegoen *Ministerio Español de Información y*

Turismo-ko zentsurak ez zukeen inola onartuko. Ez genuen besterik behar, handik laster egin zuen bezala, Loiolako irratia itxi eta isilarazteko!

Gitarra soil baten laguntasunez kantatu zuen Labegeriek, gaur egungo teknika baliabiderik gabe, otzan-otzan. Hala ere, sekulako arrakasta izan zuen.

Lourdes Iriondo

Kronologiari jarraituz, beste izen bat aipatu behar dut, harri-
garria izan baitzen Lourdes Iriondo urnietarraren ager-

Lourdes Iriondo
1965eko maiatzean
Loiolako Herri Irratian
egindako grabaketa
bati esker eman zen
ezagutzera. Sekulako
arrakasta izan zuen

zteza. Bere aitak opari egindako gitarra hartu galtzarbean, eta M^a Paz Urbietta eta Cecilio Espada irakasleekin ikasitakoan oinarrituta, bakarka kantatzen hasi zen lehenengo emakumea izan zen.

1965eko urte hasieran Andoingo ikastolaren alde, eta geroxeago Tolosan, Billabonan eta Aizarnan emandako jaialdien ostean, 1965eko maiatzean Loio-

lako Herri Irratian egindako grabaketa bati esker eman zen ezagutzera. Eta sekulako arrakasta izan zuen... Lore ederrik ere jaso zuen: «Aingerua ematen du», idatzi zuen T. Garmendiak; «Euskal Herriko Joan Baez» (L. Iriondo), «Euskal Herriaren nobiya» (G. Aresti), «Ez Dok Amairuren egiazko musa» (J.M. Iriondo), eta abar.

Dozenaka jaialdi eman zuen Gipuzkoa eta Bizkaiko herrietan zehar, 1965ean, Ez Dok Amairu taldea sortu baino ondotoz lehenago. Hala ere, eskatzen zioten herri guztietara iritsi ezinda ibili zen, udazken hartan *Zeruko Argia*-n egindako elkarrizketa batean esan zuenez.

Gogoan dut Aizarnako jaialdiaren ondoren –maiatzak 7, astelehena– irratian grabatutako kantu haiek –*Absenten dizut, Jauna; Haurra seaskan; Arren, Jauna; Amatxo*

laztana– zer-nolako arrakasta eta itsumena sortu zuten gu-re entzuleen artean. Astearte goizean hasi ginen erabiltzen, eta handik aurrera ez zuten deskantsu handirik izan.

Mikel Laboa

Bagenuen entzutea Mikel Laboa zeritzon gazte bat kantari hasia zela, lehenengo gazteleraz eta gero euskaraz. Baina ez genuen haren ezaguerarik izan harik eta bere *Azken* izeneko disko ttiki eder hura eskuratu genuen arte, 1965eko uztai-lean –oraindik ere prezio eta guzti gordeta dugu diskoa–. Bartzelona eta Zaragoza artean zebilen Mikel medikuntza ikasketak egiten, eta lagunarte giroan saio batzuk egina omen zen, esan zigutenez.

Baionako Goiztiri etxean egin zuen bere lehenengo disko ttikia. Horrek ere ez dakar argitaratze datarik, baina noiz argitaratu zen jakiteko, begiratu 1965eko abuztuaren 1eko *Zeruko Argia*-n egindako elkarrizketa, nik esandakoak aski ez balira:

Duela egun gutxi, diska berri bat entzun nuen, Mikel Laboaren lehen diska. Abeslari gazte onek aintziñako abestiekin osatu du bere eresorta. Bainan aren abesteko erak eta gitarraren akordeak, soinu zaharrak esnatu bakarrik ez baizik eta gaztetu egiten ditu, era ontako aide berri bat ematen die: *O Pello Pello*, *Aurtxo tikia*, *Bereterretxen*, *Amonatxo* kanta zaharrak kantatu ditu aire berria emanetz...

Egia esateko, oraintxe ere gustura entzuten dugun diskoa da *Azken* deitu hori. Eta, harrigarria: Soroak lauhoak aspal-di hasitako bidea aipatzen zuen elkarrizketan eredu bezala.

Gipuzkoa eta Bizkaian

Ez dut uste *La Voz de España*-k eta Miguel Vidaurrek euskaraz kantatuko zuten ahots berriak suspertzeko asmoz antolatu ohi zutenik, baina Donostian egin zen «Concurso de artistas noveles» lehiaketa hartan izen berriak agertu ziren,

halabeharrez. Baten batzuk euskaraz kantatzera ausartu ziren. Eta hantxe ezagutu genituen, besteak beste, Benito Lertxundi eta Joxe Antonio Villar, adibidez (1965).

Halaxe animatu eta grabatu genituen irratian, gero, Benito Lertxundi, Joxe Antonio Villar, Lourdes eta Xabier, Aizpuru-txora apaiz heldu zen Julian Lekuona gaztea, Idoia eta Loli donostiarrak, Galdos eta Madina, Unai hirukoa eta Johny Deabru azpeitiarrak, Natxo de Felipe, Ondarroako Argoitia neba-arrebak eta Beti Alai taldea, Bergarako Urretxindorrek eta Ameslariak, Itsasondoko Ezeiza anaiak, Ormaiztegiko Anaiak hirukoa, Oskarbi taldea, Legazpiko Itxaropen eta Zaigor hirukoak, Imanol Lartzabal, Amaia Zubiria, Izukaitz, Koska, Gorka Knörr, Bittor Egurrola, Estitxu (Robles-Arangiztarra), Maite Idirin, Yon Libarona, Joxe Mari eta Mikel usurbildarrak, Aitor Badiola, Ordiziako Yoloak, Soraluezko Trio Nubay, Oromiñoko Epetargiak, Elgoibarko Lurgabe, Zorion Egileor, Bizkaian sortu eta gutxi iraun zuen Herrikoi taldea eta al dakit nik beste zenbat holako kantari.

Bizpahiru kantu ikasi eta euskaraz kantatzeko gai zen edonor onartzen genuen guk irratian kalitateari asko erreparatu gabe, gure entzuleek ez zuten gehiago eskatzen-eta.

Iparraldeko kantu giroa

Diktadura biziaren pean bizi ginenok baino askatasun gehixeago zutela irudituta, kantu giro berezia zen Iparraldean 1960 hasiera garaian Filipe Oihanburuk eta Polentzi Gezala txistulariak sona handiz zuzendu eta bazterrik bazter handikiro ibili zen Olaeta talde ezagun eta goraitatuaren, Donibane Lohizuneko Arrantzaleak abesbatzaren eta abarren artean –beti ere kantari ederrak dira Iparraldeko anaiak–. Haiiek ere talde klasikoak ziren kantatzeko orduan, baina bazuten zerbait gure taldeetatik bereizten zituen. Eta gogor eta sarri astintzen genituen irratian haien grabazioak, zerbait behar eta saioak gozatu eta euskalduntzeko.

Giro horren ondorioa izan ziren ezbaierik gabe geroxeago ezagutu genituen Manex Pagola, Etxamendi eta Larralde, Pantxike, Peio eta Pantxoa bikote bikaina, Guk taldea...

Dantzalekuetan euskaraz

Apaiz buruzuriaren amets eroak egia bilakatu ziren 50-60ko hamarraldien muga inguru hartan. Ordura arte apenas, baina zenbait dantzalekutan gehienetan erdaraz kantatzen zen; baina atzerritik heltzen ziren kantuak euskaraz agertzen hasi ziren aldizka, Joan Mari Lekuona eta bere anaia Julianek itzulita askotan. Dantzalekuetara hurbiltzen zirenak –ez beti gazteak–, euskaraz dantzatzen ziren tarteka-marteka. Eta fenomeno horrek eragin handia izan zuen euskal kantu berriaren sorkuntzan.

Dantzaleku horietako eredurik bereziena Zarauzko Naya dantzalekua izango zen, seguruena; izan ere, Urkiolako San Antoniok berak baino mutilzahar-neskazahar gehiago uztartutako dantzalekua izan zen hura, esaten dutenez. Seriotasunez lagun baten bila zebiltzan asko han elkartzen omen ziren.

Imanol Urbietta zen Naya dantzalekuko orkestraren zuzendari eta arima; eta Donato Larrañaga herritar gaztea kantari. Tarteka, Oleskariak talde bikaineko kantari Luis Amilibia, Paxo eta abar ere bai.

Aldi berean, Bergarako Ariznoa ere aipatu behar dugu, noski. Zarauzko dantzalekuan bezalaxe, han ere euskaraz laguntzen baitzion orkestrari Joxe Antonio Villar txantxikutarrak, *Arratsa Moskun* bezalako kantuak gozo-gozo emanaz, dantzan ari zirenen pizgarri. Iparragirreraren kantuak ere tartekaten zituen aldian behin, erritmoa aldatuz.

Dantzalekuetara hurbiltzen zirenak euskaraz dantzatzen ziren tarteka-marteka. Eta fenomeno horrek eragin handia izan zuen euskal kantu berriaren sorkuntzan

Aipatutako horien ondoren etorri ziren erromeria eta dantzalekuetan harrera ederra izan zuten beste batzuk ere. Ezagunenak, seguru asko, Egan taldea eta Xabier Saldias –oraindik ere bizi den taldea, oker ez banago–, Akelarre eta Xabier Madina azpeitiarra, Azkoitiko Beti Alai eta abar.

Bilbon eta Bizkaian ere baziren holako dantzalekuak 60ko hamarraldian. Ezagunena, eta orain gogoan dudana, Gernikako Naikari talde ezaguna.

Ez dakit hark nahiko zukeen bezala, baina apaiz buruzuriaren ametsak egia bihurtu ziren 1960 hasiera aldean, neurri batean behintzat. Eta hartara animatzen zen gaztediak euskaraz dantza egiteko aukera izan zuen, gutxienez ere.

Otxoteen lehiaketak

Aspaldi hartu eta gordetako oharrak zuzenak badira behintzat, 1962an egin zen otxoteen lehenengo sariketa handi eta entzutetsua Euskal Herri mailan. Eta zerbait berria baitzen hura ere, zeresan eta esperantza handiak sortu zituen lehiaketa hark gure kantutegiaren berrikuntzarako.

Lurralde lurralde egin ziren lehenengo kanporaketak; eta azkenengo jaialdia Bilbon egin zen –bertsolariak ere alde horretara jotzen dute orain agerraldirik handienak egiteko–, igande eguerdi batez, Albia areto bikaina lepo hezurreraino beteta, 1964tik aurrera hiru urtez Bilbon egin ziren *Concurso de la canción vasca* lehiaketa haietan bezalaxe.

Bizkaiko *Información y Turismo*-ko delegatuak eta gobernadore zibilak berak ere oztopo larriak jarri bide zizkieten antolatzaileei, baina onez burutu zen orduko ahalegina.

Beste sariketa askotan garaile izan zen Oñatiko Irrintzi, Gernikako Bogamazua, Donostiako Gaztelupe, Zornotzako Zornotza, Sestaoko Beti Maiteak, Lutxanako Gaztiak, Zarauzko Oraindik, Donostiako Izengabea, Iruñeko Zortziak, Aramaioko Aramaixo, Bilboko Bilbotarra eta Iruñeko Itxaso zortzikoak neurtu ziren zein baino zein. Iruñeko Itxaso taldeak irabazi zuen urte hartakoa.

Irratiari zegokigunez, azkenengo jaialdi erraldoia zuzenean emateko aukera izan genuen, nahiz eta aretoko aurkezpenak gazteleraz egin zituzten, ordura arteko ohitura gaiztoari jarraituz, eta jaialdia transmititu zuten beste komunikabide batzuen eskariz edo. Hala ere, eskerrak guk batere maite ez genituen Txomin del Regato edo Pello Kirten ez zituzten jarri aurkezle.

Kantu guztien letrak Gipuzkoako *Delegación de Información y Turismo* etxera eraman behar izan ziren aldez aurretik, bertsolarien gaiak eraman behar izaten ziren bezalaxe.

1962an hasi ziren otxoteen arteko lehiaketetan azkenetakoa handik hamar urtera, 1972an, Zangozan (Nafarroa) egin zen, lurralde horretako sei talde lehiatuz.

Hedabideen jarrera

Urak joan eta gero, baina esan nahi nuke hauxe ere. Euskal musika eta kantuak izen eta harrera ona duela gaur egun, baina noizbehinka atzera begiratu eta aldi hartako hedabideen jarreraz gogoratzean lotsa beltza datorkigula gogora.

Euskalgintzak oro har, eta euskal musikak bereziki, ez zuen izan tarte txikienik ere irrati/telebista eta hedabideetan. Ez jakin goitik halaxe agintzen zietelako hala horrelaxe pentsatzen zutelako izango zen.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko Herri Irratien jarrera –Iruñekoarena ez– oso bestelakoa izan zen gutxienez.

Egun ilun eta gogorrak sufritu behar izan zituen Euskal Herriko edozein kultur espresiok garai korapilatsu eta zail hartan. Eta euskal kantugintza berria ez zen hortik salbatu, gaur hori aitortu nahi ez duen etorri berri asko bada ere gure artean. 🌸

Oharrak

1. Gabirian eman genuen antzerki saio baten deskantsu denboran kantatu zuen D. Nemesiok, 1958an, lehenengo aldiz, Pierre Boulleren nobela baten arabera David Leanek zuzendutako filmeko musikaz.
2. «Kanta berri jaialdiak», *Zeruko Argia*, 1966-01-30, 5. or.

Ikuska saila: ostarte bat laino itsasoan

Josu Martinez

*EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate
Saileko NOR Ikerketa Taldeko kidea*

I 978tik 1984ra, Ikuska izenez ezagutzen den euskarazko film-dokumental laburren saila burutu zuten hainbat euskal zinegilek, Caja Laboral eta Bertan Filmeak-en ekoizpenarekin.

Filmotan, ugaria da zerua bufanda batek bezala janzten duten hodeien irudia. Euskal Herriko mendiak, haranak eta hiriak estaltzen dituzten laino itsasoek hartzen dute Ikusketan pantaila, sarri.

Plano mota horrek herrialde misteriotsu –ia mitiko– bat iragartzen digu, deskubritu gabe dagoen eremu ezezaguna. Hori baliatuz zioen Antton Ezeizak, Ikuska dokumental sailaren arduradunak, azkeneko filmean beste guztien sintesia egitean, Euskal Herria lanbro azpian galdutako herria zela, eta eurek, euren proiektuarekin, zegokien laino-tartea garbitu nahi izan zutela, zinemarena.

Ondorengo orrialdeotan, Euskal Zinema Nazionala sortze-ko saiakera interesante bezain ezezagun honen ingurukoak aztertuko ditugu.

Sorrera

1978an Luis Iriondo Bartzelonan lanean zegoen, Caja Laboral Popular-eko goi postu batean. Gizon polifazetikoa, ekintzailea eta euskaltzalea, urtebete beranduago *Company's, procés a Catalunya* filmean katalan presidentearen papera jokatu zuen, eta, artean, gidoilari eta musikari zebilen hainbat saltsatan.

Sasoi hartan, Katalunian, Institut del Cinema Català (ICC) erakunde gazteak, *Noticiari de Barcelona* izeneko proiektua martxan jarria zuen. Asteroko albistegi labur bat zen *Noticiari* delakoa, NODO frankistaren estiloari jarraituz¹, baina, bistan denez, ikusmolde eta funtzionabide erabat ezberdinarekin. Hainbat zinegilek parte hartzen zuten proiektuan, guzien artean erabakitzen zuten Bartzelona hiriko ze gai tratatu, eta, lanak banaturik, 11 minutuko film labur bat ekoizten zuten astero.

Katalanez izanik, aurrerapauso nabaria zen albistegia hizkuntza hori zinema aretoetara eramateko bidean; eta, bestalde, ordura arte NODOk zeukan monopolio informatiboa hausten zuten, informazioa ikuspuntu katalan batetik ematen zutelarik. Horren ondorioz, NODOk Kataluniarako propio sortutako albistegi berezi bat ekoizten hasi behar izan zuen, film bakoitzeko 12 minutuetatik 3 katalan hizkuntzan izanez².

Noticiari hartan inspiratuta, Caja Laboral Popularrek ekoiztiko zuen euskarazko albistegi bat sortzeko ideia ukan zuen Iriondok. Euskaltzale gisa, euskararentzat espazio berriak irabaztearen aldeko zenbait inizatibatan murgildua zen aspaldidanik, eta, bestalde, marketingean aditua izanik, bazekien aurrezki kutxarentzako propaganda bide egokia izan zitekeela. Aipagarria da, sasoi hartan, banku eta aurrezki kutxa ugari erabili zutela bide hori Euskal Herrian; hala nola Caja de Ahorros Vizcaínak (Anton Merikaetxebarriaren *Euskal Santutegi Sakona* filma, 1976an), Banco de Vizcayak (Fernando Larruquerten *Euskal Herri Musika*, 1979an) edo Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián (Pio Caro

Barojaren *Gipuzkoa*, 1979an). Esan behar da, hala ere, proiektu horiek guztiak hasieran marraztutakoaren azpitik gelditu zirela, gehienetan bankuen partetik ez zitzaielako jarraitutasunik eman, Iriondok ez bezala.

Bestalde, euskarazko albistegi bat sortzeko ideia beste batzuen buruan ere bazen bueltaka. Hala, Iñaki Aizpuru, Mikel Aldalur eta Jose Mari Zabalzak «Euskadiko Albistek» izeneko proiektua jarri zuten martxan sasoi bertsuan. Bi film egitera iritsi ziren, *Aberri Eguna 78* eta *Konstituzio giroa*, baina finantzabide ezarengatik ez zuen jarraitutasunik izan.

1978an, beraz, Luis Iriondo euskal albistegiaren proiektua mugitzen hasten da. Lehenik Elias Querejetarekin kontaktuan jartzen da (ordura-ko produktore ezagun eta entzutetsu bihurtua, besteak beste *El espíritu de la colmena* ekoitzi ostean). Iriondok aspalditik ezagutzen zuen, hura eta Ezeiza Madrilera joan aurreko garaietatik. Querejetak erantzuten dio bera prest dela euskarazko albistegi horretako produktore lana hartzeko, baina Madrilen bizi dela eta hala jarraituko duela, lan kon-
tuengatik eta han errotoa delako dagoeneko³.

Iriondok beste zinegile batzuekin kontaktatzen duen bitartean (Torán eta Olearekin, besteak beste), Antton Ezeiza erbestetik itzultzen da. Lagun komun baten bitartez Iriondoren asmoen berri jakinik, Ezeizak zita bat eskatzen dio (Querejetak bezala, aspalditik ezagutu bai, baina urteak zeramatzaten elkar ikusi gabe), eta Euskal Zinema Nazionala martxan jartzeko erbestetik zekarren ideia buruan, bere burua eskaintzen du proiekturako.

1978ko udan proiektua aztertzen dute elkarrekin eta haren oinarriak finkatzen. Ezeizak Bertan Filmeak ekoiztetxea sortzen du bere lagun Xabier Iriondorekin, erabakietan eta

Antton Ezeizak, Euskal Zinema Nazionala martxan jartzeko erbestetik zekarren ideia buruan, bere burua eskaintzen dio Iriondori proiekturako

erakundeen aurrean zinegile parte-hartzaileak ordezkatuak izan daitezten. Produktoreak Caja Laboral Popular (%60) eta Faustino Orbegozo Fundazioa (%40) izango dira.

Eduki aldetik, gutxiengo eta gehiengo batzuk ere finkatzen dituzte momentu horretan. Hala, behetik jota film guzietan argi azalduko da Euskal Herria nazio bat dela, eta haren mugak Aturrin hasi eta Ebron bukatzen direla. Goitik jota, berriz, filmek ez dute orientazio politiko konkretu bat har-

**Euskal Albistegi berria
film dokumental
laburrez osatutako
serie bat izango da:
«Ikuska». Izena Luis
Iriondori zor zaio**

tuko eta egoeraren ondorio politikorik ez zen aipatuko. Ezeizak hala dio: «Beste herrialde batean, nazio problemarik ez balego, ez nuke onartuko, baina Euskadin onartu nuen tematika aldetik plegamendu hori»⁴.

Gauzak hola, hamar film egiteko konpromisoa lotzen dute.

Bitartean, Ezeizak Caja Laboral Popularrentzat *Herrigintzan* izeneko propaganda filma burutzen du, Iriondoren gidoiarekin.

Helburuak

Ezeizaren estiloari jarraiki, protagonistek proiektua publikoki aurkezten duten momentutik, argi eta zehatz lotuta ageri da dena. Izan ere, lehen film sorta bukatu arte ez dira agertzen komunikabideen plazara, haien ustez, gero betetzen ez diren egitasmotan aberats baita Euskal Herria.

Euskal Albistegi berria film dokumental laburrez osatutako serie bat izango da: «Ikuska». Izena Luis Iriondori zor zaio, patrozintzaileen irudiaren arduraduna izanik, berak baitzuen azken hitza horrelako kontuetan. Hala, «Ikuska» izenak, euskal tradizioari keinu egin eta halako jarraitutasun nahi bat markatzeaz gain («Ikuska» izena zuen Jose Migel Barandiaran antropologoak 1916an Euskal Herrian ikerkuntzarako sortutako institutuak), Mondragon taldeak bere

proiektuei jarritako izenen bideari segitzen zion, euskarazko neologismoak sortuz (Ikerlan, Ederlan...)⁵.

Noticiari-k egiten zuen gisan Euskal Herrian astero film bat burutzeko gaitasun materialik ez zegoenez, batetik, eta bideoaren agerpenarekin eguneroko albisteak gero eta azkar-rrago iraungitzen zirenez, bestetik, denboran hobeto iraungo zuten gaiak aukeratzea erabakitzen dute proiektuaren arduradunek. Hala, Antton Ezeizak filmak izendatzeko definizio bat asmatzen du; «*Documentales sobre una realidad permanente*», eguneroko jariatik harago interesa mantenduko duten gaiak landuz.

Ezeiza eta haren inguruan osatuko duen lan talde gaztea proiektuaren xedeak zein diren esplikatzeko hasten dira han-hemenka. Atentzioa ematen du nolako zehaztasunez zerrendatzen dituzten, beti gauza berak azalduz eta euren hautuak sakon argumentatuz.

Ikuska seriearen lehen helburua, haien hitzetan, informatiboa litzateke, albisteak euskaraz hedatzea, bertako jendeak osatuta eta bertako ikuspuntu batekin. Eguneroko albistegi bat ezin eginagatik, euskal gizartearentzat garrantzitsutzat jotzen zituzten gaiak hautatuz. Filmen izaera «aldizkari batetako erreportaia sakon batekin»⁶ alderatu ahalko litzateke.

No se trataba de hacer un cine documental sobre el románico en el Baztán o las ruinas abandonadas en las Encartaciones. Queríamos encarar una realidad circundante, viva y tratarla a fondo⁷.

Bigarren helburua Euskal Zinema Nazionala garatzeko pausoak ematen hastea zen; alegia, zinemazale gazteak formatu, arestian lan bila Madrilera joandako zinemagileei Euskal Herrian lan egiteko aukera eman eta azpiegitura propio bat sortzea. Ezeizaren hitzetan:

A partir de nuestro trabajo lo que queremos es propiciar el aprendizaje de una serie de gente que será la que haga películas dentro de un tiempo y alcanzar una doble diana; evitando la fuga de cerebros [...] y dejando la puerta abierta para el regreso de todos los que por motivos profesionales tuvieron que dejar el país.

Fue concebida como una serie porque así se intentaba dar continuidad al trabajo, permitiendo la profesionalización de los cineastas nuevos (carácter de «escuela abierta») o rescatados (combatiendo así la «fuga de cerebros» que había sido norma hasta entonces)⁸.

Ezeizak berak ere gaztetan Euskal Herritik alde egin behar izan zuen zinema ikasi ahal izateko, eta horregatik garrantzi handia ematen zion «burmuin ihesa» ekiditeari. Gainera, bere esperientziatik mintzatuz, Madrilera zihoazen euskaldunek «desnazionalizazio prozesu» gaitza bizitzen zutela zioen⁹. Euskal Herrian lan egiteko aukera ematean, horregatik, «itzuleran sakontzeko» eskatzen zien, Euskal Zinema Nazionala sortzeko bidean:

A la hora de plantearnos la vuelta a casa, propia o de otros en el futuro, nos pareció necesario insistir en la conveniencia de «profundizar» en el regreso, es decir, en términos concretos, animar al aprendizaje del euskara, a la interiorización de la importancia de la Identidad Nacional, al abandono de justificaciones que hicieran de necesidad virtud; en una palabra, tratar de evitar los aspectos que pudiera tener la operación de «neocolonialismo cultural español»¹⁰.

Hirugarren helburua zineman euskararen erabilera normalizatzea litzateke, «herriarengan edukaziozko paper bat jokatzu»¹¹ eta eredu bat finkatzeko lehen pausoak emanaz. Bukatzeko, laugarren helburu gisa, filmatutako materialarekin ikus-entzunezko euskal artxibo bat osatuz joatea planteatzen zuten, Euskal Herriko memoria historiko bihurtuko dena eta hurrengo belaunaldietako zinegileek baliatu ahal izango dutena¹².

Helburu horiek betetzeko, militantzia politikoko ikuspuntuak bazter utzita, mundu guziarentzako oihartzunak izango dituzten filmak egiten saiatuko dira, Ezeizak azaltzen duenez, euskal nortasunaren berreskurapena ardatz hartuta, eta Euskal Zinema Nazionala sortzeko bidean.

Nuestra meta –explica Ezeiza– es no incidir desde perspectivas de militancia política, sino aportar nuestro trabajo cinematográfico en

la tarea de rescate de la identidad nacional, haciendo unas películas con resonancias para todo el mundo, capaces de navegar en todas las aguas que queden enmarcadas en ese condicionamiento nacional de base¹³.

Lan dinamika

Ur zabaletan nabigatzeko gauza izango diren filmak osatu nahi dira, beraz. Ez zitekeen bestela izan, produktoreen eta Ezeizak gidatzen duen taldearen artean alde ideologikoa nabaria baita.

Oreka hori lortzea ez zen beti erraza suertatu (*Erreferenduma* film laburra aztertzen dugunean ikusiko dugunez), baina onartu beharra dago alde guziek eskuzabal jokatu zutela, proiektu komuna aurrera atera zedin. Hala mintzo zen lan-taldea, 1979an *Zeruko Argia*-n egindako elkarrizketa kolektibo batean:

Era errazional eta posibilitistan homogeneousatzen gara denok. Beharbada, guretako norbaitek hau esanez buka zitzakeen pelikula guztiak: eta hau horrela Euskadi libre, sozialista, berbatua eta euskalduna ez dugulako gertatzen da... Baina zine hau ez da borroka politiko-ideologikokoa, kultura nazionala aurrera ateratzeko borrokakoa baizik¹⁴.

Hainbat urte beranduago, Javier Agirresarobek, film ia guztien argazki zuzendaritzaz arduratuko zenak, sakondu egiten du gai honetan bere obrari buruzko liburu batean:

La identificación no era absoluta, sobre todo entre los técnicos. Comulgábamos en el planteamiento de hacer país, de colaborar en un proyecto cultural que tenía cierta trascendencia en Euskadi, pero entre los que pertenecíamos al grupo esencial que hizo los Ikuskas había gente más radical y gente más moderada¹⁵.

Ur zabaletan
nabigatzeko gauza
izango diren filmak osatu
nahi dira, produktoreen
eta Ezeizak gidatzen
duen taldearen artean
alde ideologikoa nabaria
baita

Ezeiza bera ere esplizituki mintzo da puntu honetaz:

Los Ikuskas no eran tanto un proyecto nacionalista de derechas o de izquierdas como de construcción de un producto de país, donde, entre otras cosas, teníamos la obligación de mostrar lo distinto que somos todos¹⁶.

Apustua film bakoitza zuzendari ezberdin baten esku uztea izango da. Kontsakratu eta hasiberriei proposatuko zaie lana, proiektuak «Zine eskola ireki» eta «Euskal Herrira itzultzeko plataforma» izateko helburu bikoitzari erantzuteko.

Aldi berean, gaztez osatutako lan talde egonkor bat antolatuko du Ezeizak bere inguruan. Horiek film guzietan parte hartuko dute, hala, serie osoari homogeneousun estetiko eta formala emanez.

Lo que podría ser la primera generación de auténticos cineastas vascos [...] a éstos tratamos de buscarlos entre los jóvenes que fueran euskaldunes, tuvieran la vocación de expresarse, sintieran la rabia del cine y estuvieran necesitados de enseñanza técnica. [...] «País contra técnica», solíamos ironizar nuestro intercambio¹⁷. Al final, los Ikuskas supusieron la unión de dos grupos, los que teníamos cine, porque habíamos estudiado en Madrid y dirigido algunas películas, y los que tenían país pero no tenían cine, como Koldo Izagirre y otros¹⁸.

Hasierako lan-taldean, Antton Ezeizarekin batera, Koldo Izagirre, Juanba Berasategi eta Javier Agirresarobe izango dira pieza klabeak. Haien inguruan, berriz, Bixente Karda, Montxo Rejano, Jose Luis Zabala... eta, Madriletik lagunduz, Jose Luis Egea eta Alberto Magan.

Zuzendarien izenak Ezeiza, Izagirre, Berasategi eta Agirresaroberen artean pentsatzen dituzte. Gero, haien ustez ondo landuko duen gai bat proposatzen diote bakoitzari, zuzendariak bereziki problematika bati heldu nahi ez badio bederen, eta erabakia Luis Iriondorekin kontsultatzen dute¹⁹. Ezeizak maiz adierazi izan du ahalik eta irizpide zabalenekin hautatzen zituztela zuzendariak, «modu ez exkluietean»²⁰. Datuek arrazoia ematen diote: 21 filmetan 15 zuzendari ezberdin ageri dira kredituetan.

Arestian aipatutako *Zeruko Argia*-ko elkarrizketa kolektiboan, Ezeiza, Berasategi, Izagirre eta Agirresarobe ageri dira. Taldearen aurkezpena egiteko profitatzen dute kazetariak erreportajea. Uste dugu lan-giroa eta kide bakoitzaren profila marrazten nahiko ondo asmatu zutela:

Antton ekipo oso batez inguratua aurkitu dugu, bera taldeko bat gehiago besterik ez delarik. Taldea pixkanaka osatuz joan da eta gaur guztiz finkatua dago, nahiz eta atek edonorrentzat irekiak izan. [...] Talde lana dudarik gabe intentsitate handikoa da [...] Xabierrek (Agirresarobek) lehenagotik ere dexente denbora zeraman lanean: gaur Ikuskak direnen proiektua ezagutu zuenean Anttonekin harremanetan jarri zen eta berehala lanean hasi ziren. Taldeak osotasun handia du eta honek asko suposatu diola esan digu Xabierrek, bere kanpoa asko zabaldu omen da. [...] Juanba ere lehenagotik zenbait lan egiten ibilia zen. [...] Talde honetan sartzea esperientzi garrantzitsua izan omen da. [...] Laugarrena Koldo Izagirre dugu eta Juanba ikasle bezala baldin badoa, bera arkakuso bat bezala omen dabil eta bestetik euskal kontakatilu lana egiten: hau benetan lan alua dela dio²¹.

Lan taldearen egonkortasunaz gain²², bada beste ezaugarri bat «Ikuskak» garaiko beste proiektu gehienengandik bereizten dituena: Caja Laboral Popular eta Orbegozo Fundazioaren finantzabideari esker lortutako kalitate tekniko aparta. Film guziak 35 mm-tan errodatuak izan ziren, zuzeneko soinuarekin.

Horrez gain, artean Euskal Herrian baliabiderik ez zegoez, material guzia Madriletik ekarri behar izaten zuten, eta, grabatzen bukatutakoan, hara joaten ziren, hango laborategietan errebelatu eta muntatzera.

Zinea egitea izugarri garesti eta zaila zen garai hartan, errekurtsu oparotasun horrek polemikaren bat piztu omen zuen «zine pobrea» egiten saiatzen zen jendearen artean. «Bilbainada» bat irudituko zitzaien, agian, batzuei. Luis Iriondok honela zioen gai horri buruz:

Alguien puede pensar que existe una contradicción al inscribir este inicio de la cinematografía de una nacionalidad oprimida en un aparente cuadro de dispendio de medios [...] pero los Ikuskas

se han planteado como una competencia en toda regla a otros productos cinematográficos²³.

Ezeizak ere ildo beretik argumentatzen zuten:

Rodamos en 35 mm, en color y con sonido directo, porque no queremos que ver un Ikuska suponga una exigencia más de afirmación nacional. [...] No despreciamos en absoluto experiencias como filmar en super 8 el entierro de Tomas Alba o el problema de los arrantzales con las doscientas millas. Son vías que pueden resultar paralelas²⁴.

Euskal Zinema
Nazionalerako lehen
baldintza euskara dela
esatean, Ezeiza eta
bere taldea ez dira
azalean geratuko

Gezurra lirudike gauzak egiteko errekurtsioak lortzeagatik norbere burua justifikatzen ibili beharra, baina horrela zen. *Zeruko Argia*-ko elkarrizketa kolektiboan lan taldeak berriro heltzen dio gaiari eta gauzak errekurtsio onekin egiteak duen garrantzia azaltzen dute, Euskal Herriko

kultur egoeran ordura arte maiz izandako errealtatearen erretratu ironiko baina xuxena eginez:

Teknika eta estetika aldetik kalitatea izan dezaten asko saiatzen gara, gure pelikula ez dadila ondoren ikusiko dutena baino eskasagoa izan alde horretatik. Hau da, ez dugu nahi jendea gure proiektorearen alde jatorra delako bakarrik egoterik, baizik gustura ikus ditzatela pelikula horik. [...] Baten batzuek gehiegizkoa joko dute prozesu tekniko hau ateratzen den produktoarentzat. Guk produktora handiek ezartzen duten bideari hel diezaiokegula erakutsi nahi dugu. [...] Uste dugu nahiko «akto heroiko» egin dela euskal arloan; kitarra jotzen ez duen kantaria, pelikula komuneko paperean egiten duen zinegilea, kontutuan izan behar da gainera, etsaiak medio guztiez atakutzen gaitula²⁵.

Euskararen tratamendua

Euskal Zinema Nazionalerako lehen baldintza euskara zela esatean, Ezeiza eta bere taldea ez dira azalean geratuko.

Alderantziz, filmetan euskarari ematen zaion tratamenduan argi da arlo horri ematen zaion garrantzia lehenatasunezkoa dela, eta ez bakarrik filmetako gai asko euskararekin lotuak direlako, edo horregatik baino gehiago, euskara diglosiaren gurpiletik ateratzeko nahi argi bat ageri delako, zinemara egokitzeko ahalegin saiatu eta zentzudun bat eginez, eta azpitu-latuak eta erdararen presentzia naturaltasunez emanez. Bistan da, nolabait esateko, kultur politika bati jarraitzen diotela.

Kontuan ukan behar da eremu honetan erabat aitzindaria dela haien lana, orduan ez baitzegoen gauzak nola egin behar ziren zioen arau ezdeusena ere. Broma artean kontatzen du Ezeizak, lehen Ikuskan agertzen den lehen pertsonaiari «the jazz singer», jazz kantaria deitzen ziotela haien artean, zinemaz euskaraz normaltasunez mintzatzen zen lehena zelako²⁶.

Problemak ez dira, gainera, erabili beharreko euskara erdura eta beste hizkuntzen erabilerara mugatuko. Izan ere, taldeko batzuk (Antton Ezeiza buru) eta seriean parte hartu zuten zuzendari gehienak ez ziren euskaldunak. Hala ere, horri aurre egiteko, erdaldun haien euskaltzetasunean, lan egiteko gogoan sostengatzen omen ziren. Ezeiza, esaterako, garai hartan gogotik hasi zen euskara ikasten:

Hombre, respecto a mi euskera, todavía no he salido del grupo ese tan denigrado de los «arinaiztarras», pero creo que puedo salir pronto. Estoy estudiando de veras. Además, no sé si acertadamente o no, opté por un aprendizaje más en profundidad, quiero decir priorizando el «saber» el euskara más que el hablarlo. Lo hice con vistas al trabajo, donde más rápidamente lo iba a necesitar... por ejemplo la traducción de diálogos, la elección de subtítulos etc.²⁷.

Hizkuntzaren tratamendua, gisa guziz, Koldo Izagirreren ardua izango da, batez ere. Idazle errespetatua zen ordurako, eta Ezeizak fede handia erakutsiko du haren irizpide onean. Filmetako hizkuntza nagusia, beraz, euskara batua izango da, baina pertsonaiek beren hizkera propioa erabiliko dute, dela euskalki bat, dela –beharrezkoa balitz– erdara.

En este terreno del bilingüismo creo que tenemos una actitud correcta. La realidad es que las películas son en euskara... lo

que es el marco, todo lo que la película pone. Luego resulta que a la hora de entrevistar por ejemplo hay gente imprescindible que no habla el euskera. Procuramos entonces jugar con el subtítulo. Pero tampoco se hace éste de un modo mecánico, ni mucho menos exclusivo al erdera sino que cada vez estudiamos a fondo el nivel de información a dar en cada idioma etc... En todo este trabajo la labor de Koldo Izaguirre es tremendamente importante²⁸.

Emanaldiak

Ikuskek aurkituko duten zailtasun handiena proiektzioak lortzea izango da. Film labur dokumentalak izateak, batetik, zaildu egiten du horretarako propio antolatutako emanaldiak aurkitzea; eta 35 mm-tan filmatuak izateak, bestetik, proiektziorako baldintza minimo batzuk eskatzen ditu, maiz edozein herri mugimenduk lortu ezin dituenak.

Banaketa Iruñeko Irudi Films-en bitartez egingo dute hasieran, «multinazionalitate kanpora», eta asmoa izango da zineetan proiektatzea, film luzearen aurretik, lehenago NODOa egoten zen bezala. Horrez gain, Caja Laboral Popular eta Orbezo Fundazioaren hainbat ekimenetan ere erakutsiko dira.

1979ko udazkenean, lehen filmak estreinatzen direnean, produktoreak pozez txoratzen agertuko dira publikoaren erantzunarekin. Orbezo Fundazioak hala hitz egiten zuen haietaz, Madrilen egin zuen erakusketa baten propagandan:

La masiva y calurosa acogida popular que han merecido los «Ikuskas» que hasta ahora se han proyectado en Euskadi supone todo un refrendo y un estímulo de cara a los que próximamente verán la luz²⁹.

Luis Iriondok oraindik ere daukan oroitzapena da «izugarrizko arrakasta» lortu zutela³⁰. Orduan hala adierazten zuen, Ikusken lehen uzta atera berritan:

Los resultados prácticos –dice Iriondo– todavía no se pueden evaluar de una manera definitiva. Las películas acaban de salir a la

calle y las respuestas que han obtenido han sido atronadoras. Yo he estado presente en pases multitudinarios en asambleas comarcales de Caja Laboral Popular que han tenido una acogida increíble. Es un cine que no suscita duda alguna sobre su carácter euskérico³¹.

1979ko udazken hartan, filmak katalanera bikoiztu eta Katalunian proiektatuko zirela publikatuko da. Bai eta ere, posible dela atzerriko telebista batzuetan emititzea. Bitartean, ordea, lan-taldeko kideak ekoizleak baino askoz ere zuhurrago ageri dira, *Zeruko Argia*-ko elkarrizketa kolektiboan azaltzen dutenez:

Oraindik ez dugu batere kritikarik jaso, ez onik ez txarrik. Lehengo batean joan ginen zine batera Ikuskatako bat ikustera eta izugarritzko isiltasuna zegoen, inork ez zuen ezer esaten. Nik uste dut jendea zeharo harrituta geratu zela. Denbora gehixeago itxoin beharko da eritziak ezagutzeko³².

Kontuak kontu, ordea, ekoizleen hasierako inpresiotik harago, Ikuskek ez zuten lortu zinema aretoetan euren presentzia ohiko bihurtzea, besteak beste, seguru aski, ez zirelako proiektu errentagarria; eta ez zuten asmatu ere beste esparru batzuk bilatzen publiko zabalarengana iritsi ahal izateko.

Bestalde, Zine Festibaletan ere erakutsi ziren Ikuskak, eta kasu batzuetan baita sariak lortu ere. Lehen urte hartan, «Ikuska 3»-k 1979ko Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra jaso zuen, eta «Ikuska 5»-ek eta «Ikuska 4»-k Bilboko Zinebi Festibaleko lehen eta bigarren sariak, hurrenez hurren. Gerora joera hori ere apalduz joan zen, baina 1981ean, Euskal Herritik kanpora, Oberhauseneko Festibaletan «Ikuska 12» saritu zuten.

Ekoizleen hasierako
inpresiotik harago,
Ikuskek ez zuten lortu
zinema aretoetan
euren presentzia ohiko
bihurtzea, besteak beste,
seguru aski, ez zirelako
proiektu errentagarria

Ikusken zerrenda

- 0. «Erreferenduma» (Antton Ezeiza)
- 1. «Ikastolak» (Jose Luis Ejea)
- 2. «Gernika» (Pedro Olea)
- 3. «Bilboko hiri espekulazioa» (Anton Merikaetxebarria)
- 4. «Euskal Telebista» (Xabier Elorriaga)
- 5. «Elebitasuna» (Koldo Izagirre)
- 6. «Euskara galdutako Nafarroa» (Juanba Berasategi)
- 7. «Barandiarani omenaldia» (Kolektiboa)
- 8. «Arabako herrien heriotza» (Koldo Larrañaga)
- 9. «Euskal artistak» (Jose Julian Bakedano)
- 10. «Herria eta hiria» (Iñaki Eizmendi)
- 11. «Erribera» (Montxo Armendariz)
- 12. «Euskal emakumea» (Mirentxu Loyarte)
- 13. «Euskal kanta berria» (Imanol Uribe)
- 14. «Zuberoako artzainak» (Antton Ezeiza)
- 15. «Euskaldunberriak» (Juanmiguel Gutierrez)
- 16. «Donibaneko arrantzaleak» (Antton Ezeiza)
- 17. «Matxitxakoko itsasguda» (Pedro Sota)
- 18. «Bertsolaritza» (Antton Ezeiza)
- 19. «Euskal kulturaren zabalpena» (Pedro Sota)
- 20. «Sailaren laburpena» (Antton Ezeiza)

Ondorioak

Ikuska saila aitzindari izan zen, nazio ikuspegitik, hainbat aspektu jorratzerako orduan. Besteak beste:

- *Euskal Herria bere osotasunean hartzen du.* «Aturritik Ebro-
ra», «Bizkaitik Zuberoara». Sarritan (ez zineman bakarrik),
Euskal Herria eremu eta eskualde jakin batzuetara muga-
tu izan da, baina Ikuskek oso aintzat hartzen dute lurral-
detasuna, ahaztuak izan ohi diren lurraldeei beren lekua
emanez (Iparraldea, Erribera, Araba), eta mintzo diren
pertsoneien artean ere jatorrien araberako oreka bat bilatuz.

- *Herria mintzo da.* Lehen aldiz, herriari ematen zaio hitza, eta film askotan herritarrak eurak dira, kamerari begietara begiratuz, euren kezka eta arazoak kontatzen dituztenak.
- *Euskararen berreskurapena praktikaren bidez bilatzen da.* Euskararen erabilera normalizatzeko ahalegin handia egiten da, hizkuntzari lehentasunezko tratamendua emanez, baina integrismo guzietatik urruti, euskara batua erabiliz baina bakoitzaren hizkerak errespetatuz eta, beharrezkoa denean, azpigitulatuarekin jokatuz. Batere eredurik ez zegoen garaian, Ikuskak bidegile dira zentzu horretan, eta diglosiari aurre egiteko ideia interesanteak plazaratu zituzten.
- *Elkarlaneko ezohiko ereduak da.* Euskal Herrian oso gutxitan egiten den elkarlan baten fruitua da Ikuska saila. Gehienetan elkarren artean muturtuta egon diren ezkerreko eta eskuineko abertzale batzuen lankidetzatik sortu zen proiektua da. Luis Iriondo eta Antton Ezeiza buru zituzten talde bi horiek, helburu komun batera iristeko, elkarrekin puntu minimo batzuk adosten jakin zuten, momentu horretan kulturalki garrantzitsua zen egitasmo baten alde batera lan eginez. Ildo beretik, filmak burutze-ko zuzendariak hautatzeko garaian ere, Antton Ezeizak eta bere taldeak modu erabat ez-sektarioan jokatu zuten, proiektua sentsibilitate ezberdinetako jendeari zabalduz; Javier Agirresaroberen hitzak erabilita, «Herria egin» nahi zuten guztien artean.

Alabaina, ezaugarri positibo ukaezin horiek gorabehera, termino orokorretan baloratuta, Ikuska saila frakaso bat izan dela esan dezakegu. Lehenik, filmen zabalpenarekin izan zituen zailtasun eta gabeziak medio, ez zuelako euskal gizartearengana modu normalizatu batean iristea lortu eta, beraz, ez zuelako jendearengan era adierazgarrian eragitea lortu. Bigarrenik, «aterrizaje pista» eta «eskola» izaerak proiektuak iraun zuen bitartean bakarrik funtzionatu zuelako. Ikuska sailean planteatzen ziren bide eta ideiek ez dute (salbuespenak salbuespen) batere jarraipenik izan hurrengo

hamarkadetako zinemagintzan. Parte hartu zuten zuzendari kontsakratu gehienak Madrilera itzuli ziren, beren euskal ibilera anekdota gisa geratu delarik. Zuzendari hasiberri askok, ostera, Ikusketan beren parte hartzea bukatuta, erdarazko zinemara bideratu dituzte beren pausoak dudarik egin gabe; eta, kasu batzuetan, aurreko belaunaldiak bezala, beste

behin ere, Madrilera «metropoli-
ra», «nazioko epizentro kultura-
lera» emigratu dute. Ezeiza, Be-
rasategi eta Izagirre izango lirate-
ke, aurretik aipatu dugun bezala,
salbuespenak.

Esperientzia hain interesgarria
izanagatik, frakaso handi bat
izan zen, beraz, Ikuskena. Ho-
rren kausak ugariak izan daitez-

ke. Batetik, lehenago aipatu bezala, filmen zabalpen estrategia hobeto antolatu ez izana. Bestetik –eta segur aski batez ere–, 1979ko Gernikako Estatutuaren magalean sortutako instituzio autonomikoen kultura mailan hasitako politika, euskal zinea «EAEn egiten den guzia» zela erabaki eta Ikuska bezalako egitasmoak bideraezin bilakatzen zituen subentzio politika bati ekinez, ETB martxan jartzearekin batera. Bukatzeko, eta aurreko arrazoiari oso loturik, Ikuskako taldeak ez zuen jakin instituzio autonomikoen Euskal Zinema Nazionalari ematen ez zioten lehentasunezko tratua herri mugimenduan bilatzen. Herri mugimenduak ez zuen sekula proiektua bere egin, gizartean zabalpena bere gain hartuz. Agian, intelektual batzuen egitasmo gisa hauteman zuelako, edo, agian, zinema bere estrategiaren barnean ez zelako lehen mailako lehentasuna.

Laburbilduz, Historiaren talaiatik begiratuta, Ikuska saila katebegi bat gehiago da saioz saio etenez doan Euskal Zinema Nazionalaren katean. Hori bai, segundo gutxi batzuk iraun bazuen ere, ostarate eder bat zabaldu zuen Euskal Herriko laino itsasoan. 🍷

Historiaren talaiatik
begiratuta, Ikuska saila
katebegi bat gehiago
da saioz saio etenez
doan Euskal Zinema
Nazionalaren katean

Oharrak

1. 1976an NODOk monopolio informatiboa galdu zuen, 1981era arte mantendu bazen ere.
2. Zunzunegui, Santos. *El Cine en el País Vasco*. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1985.
3. Luis Iriondorekin elkarrizketa pertsonala (2010-05-18).
4. Ijurko, Jesus. «Antton Ezeiza: zinema, proiektu nazional baten barnean». *Argia* 962, 1983-01-30.
5. Koldo Izagirrerekin elkarrizketa pertsonala (2010-08-10).
6. Auzmendi, Lourdes; Garmendia, Elixabete. «Bertan Filmeak Ikuska aurkezten du». *Zeruko Argia* 841, 1979-09-02.
7. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
8. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
9. Balintz, Bicornio. «Antton Ezeiza, cine vasco, cultura, política». *Punto y Hora* 164, 1980-02-21.
10. Balintz, Bicornio. «Antton Ezeiza, cine vasco, cultura, política». *Punto y Hora* 164, 1980-02-21.
11. Auzmendi, Lourdes; Garmendia, Elixabete. «Bertan Filmeak Ikuska aurkezten du». *Zeruko Argia* 841, 1979-09-02.
12. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
13. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
14. Auzmendi, Lourdes; Garmendia, Elixabete. «Bertan Filmeak Ikuska aurkezten du». *Zeruko Argia* 841, 1979-09-02.
15. Angulo, Jesús; Heredero, Carlos F.; Rebordinos, José Luis. *En el umbral de la oscuridad*. Javier Aguirresarobe. Donostia, Euskadiko Filmategia, 1995.
16. Angulo, Jesús; Beloki, Maialen; Rebordinos, José Luis; Santamarina, Antonio. *Antxon Ezeiza: cine, existencialismo y dialéctica*. Donostia, Euskadiko Filmategia, 2009.
17. Ezeiza, Antton. «Reflexiones para un debate sobre el cine vasco». In: Intxausti, Joseba (zuz.). *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*. Donostia, Lan Kide Aurrezkoa, 1985.
18. Angulo, Jesús; Beloki, Maialen; Rebordinos, José Luis; Santamarina, Antonio. *Antxon Ezeiza: cine, existencialismo y dialéctica*. Donostia, Euskadiko Filmategia, 2009.
19. Angulo, Jesús; Beloki, Maialen; Rebordinos, José Luis; Santamarina, Antonio. *Antxon Ezeiza: cine, existencialismo y dialéctica*. Donostia, Euskadiko Filmategia, 2009.
20. Angulo, Jesús; Beloki, Maialen; Rebordinos, José Luis; Santamarina, Antonio. *Antxon Ezeiza: cine, existencialismo y dialéctica*. Donostia, Euskadiko Filmategia, 2009.

21. Auzmendi, Lourdes; Garmendia, Elixabete. «Bertan Filmeak Ikuska aurkezten du». *Zeruko Argia* 841, 1979-09-02.
22. Denborarekin aldaketa batzuk ukan zituen taldeak, besteak beste, Ikusken bigarren fasetik aurrera, Antton Ezeizak berriro erbestera behar izan zuelako; hala, bere koordinazio lana Iparraldetik burutu zuen.
23. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
24. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
25. Auzmendi, Lourdes; Garmendia, Elixabete. «Bertan Filmeak Ikuska aurkezten du». *Zeruko Argia* 841, 1979-09-02.
26. Antton Ezeizarekin elkarrizketa pertsonala (2010-05-24).
27. Balintz, Bicornio. «Antton Ezeiza, cine vasco, cultura, política». *Punto y Hora* 164, 1980-02-21.
28. Balintz, Bicornio. «Antton Ezeiza, cine vasco, cultura, política». *Punto y Hora* 164, 1980-02-21.
29. «Erakusketa 79». *Punto y Hora*, 1979-11-15.
30. Luis Iriondorekin elkarrizketa pertsonala (2010-05-18).
31. «La serie Ikuska, una necesaria primera piedra». *Egin*, 1979-10-04.
32. Auzmendi, Lourdes; Garmendia, Elixabete. «Bertan Filmeak Ikuska aurkezten du». *Zeruko Argia* 841, 1979-09-02.

Euskarazko publizitatea: sasi artean sustraitzen (1960-1975)

Estitxu Garai

*EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate
Saileko ikerlaria*

Lehorak baina oparoak. Hitsak baina koloretsuak. Latzak baina ilusioz jositakoak. Halakoxeak izan ziren frankismoaren azken urteak euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Diktaduraren lehenengo bi hamarkadetan erregimenaren zentsura batzordea gupida gabe aritu zen euskararen lurrina zekarren oro errortik mozten.

Mugaz bestalde, Ipar Euskal Herrian, ez zuten pairatu Hegoaldeko neba-arrebek bezainbeste erreprezio, baina Frantziako Errepublikaren hizkuntza-politikak erabat zokoratzen zuen euskara, oraindik indarrean dirauen frantsesa babesteko lege-bilbaduraren ondorioz. Zernahi gisaz, euskara sistematikoki mespretxatzen eta gutxien zen mugaren bi aldeetan. 60ko hamarralditik aurrera, ordea, euskalgintzak loraldi geldiezina izan zuen. Debeku eta jazarpenen gainetik, herri mugimenduak litezkeen zirrikitu guztiak baliatu zituen susperraldi hori posible egiteko. Orduan ernatu ziren, besteak beste, ikastolen mugimendua, euskal kantagintza berria, euskalduntze eta alfabetatzea, argitaletxeak; eta euskaratik

sortzen hasi ziren idazle, antzerkigile, zinegile eta folkloregileen belaunaldi berria.

Egoera sozial eta politiko nahasi horretan, euskarazko publizitateari kimu berriak irten zitzaizkion. XX. mendearen hasieran euskarazko publizitateak egindako aurrerapenak¹ errotik eten zituen 36ko altxamendu militarrek. Lehorte-urteak izan ziren ondorengoak, baina gutxika-gutxika Euskal Herriko iragarleak hasi ziren euskara erabiltzen euren burua ezagutzera emateko. Ekarpen garrantzitsua izan zen, urte haietan hasi baitzen publizitatea gaur egun ezagutzen dugun itxura hartzen, bai edukietan, bai adieraz moldeetan, eta baita euskarrietan ere.

Artikulu honen oinarria orain arte euskarazko publizitatea aztertu duten lanak dira. Zer esan, orduan, euskarazko publizitateari buruz? Joxerra Garziak (Garro, 2006: 11) dioskunez, euskarazko publizitatearen historia «gurea izanagatik apenas ezagutzen dugun historia» da, eta sakonki ikertzeke dago oraindik. Eskertu eta aintzat hartzekoak dira, hortaz, orain arte egindako saiakera apurrak.

Iturri horietatik jasotakoa biribiltze aldera, hizpide dugun garaian publizitatearekin harreman estua izandako hiru pertsona elkarrizketatu ditugu: Antton Olariaga marrazkigile eta komikigilea, Juan Ramon Esnaola Donostiako Publis agentziaren sortzailea eta Pedro Aurtenetxe Bilboko Aurman agentziaren aita. Hari-mutur horietatik tiraka saiatuko gara korapiloa askatzen, frankismoaren azken txanpan, 1960tik Franco hil bitarte, euskarazko publizitateak bizi zuen egoera azaltzeko.

Sektorearen begirada orokorra: hazkunde eta oparotasun garaia

60ko hamarkadan, publizitatearen sektorea erabat profesionalizatuta zegoen jada. Publizitate-agentziak, batik bat, euskal hiriburuetan zeuden. Estatuko publizitate-agentzia garrantzitsuek² ordezkaritzak zituzten Bilbon, Donostian eta Iruñean. Agentzia horietan trebatutako publizistek enpresa propioak

sortu zituzten³, eta horietako zenbait publizitate-etxe, krisiak krisi, bizirik daude oraindik, Bilboko Aurman eta Donostiako Publis kasu (Esnaola, 2014; Aurtenetxe, 2014).

Garai oparoak izan ziren publizitatearentzat. Bizi-maila igotzearen ondorioz, kontsumo jendartean murgiltzen ari zen herritarra, eta Seat 600 autoa bihurtu zen errepedeetako errege (Juaristi, 2005: 25). Halaber, oso iragarle handiak zeuden Euskal Herrian. Elitkaduraren sektoreak muntia handia zuen, eta jarduera horri lotutako lantegiek betetzen zituzten gure hiri eta herrien bazterrak. Bestetik, makina

Garai oparoak izan ziren publizitatearentzat. Bizi-maila igotzearen ondorioz, kontsumo jendartean murgiltzen ari zen herritarra

erremintaren eta kontsumo-industriaren industriak abiada bizia zeraman. Eta, azkenik, banku eta aurrezki kutxak ere iragarle entzutetsuak ziren; Hego Euskal Herrian zortzi aurrezki-kutxa zeuden (probintzia bakoitzeko bi), eta horiei kreditu-kooperatibak eta sektore pribatuko bankuak gehitu behar zaizkie (Esnaola, 2014; Aurtenetxe, 2014).

Oparotasun ekonomiko horren magalean, publizitateak gero eta profesional gehiago behar zituen. Askotariko lanbideetatik zetozen publizitatera jauzi egin zuten gizon eta emakumeak. Nork bere bidea egin zuen, baina oro har autodidaktak izan ziren lehen publizistak. Ilustratzaileak, esaterako, inprentetan edo argitaletxeetan hasten ziren, eta publizitate-agentziek bertatik kontratatzen zituzten (Aurtenetxe, 2014).

Publizitate modernoaren euskarazko ernamuinak

Testuinguru horretan, euskarak zailtasunak izan zituen bere bidea topatzeko. Nahiz eta iragarle gehienak bertokoak izan, publizitate-etxeetan ale bakan batzuk besterik ez zituzten euskaraz egin Franco hil aurretik, «salbuespenak izan ziren, oso-oso lan gutxi» (Esnaola, 2014). Publizitate-agentzia

gehienetan ez zuten langile euskaldunik⁴, eta ezagutzen zuten itzultzaile bati bidaltzen zizkioten testuak itzultzera (Esnaola, 2014; Aurtenetxe, 2014). «Euskara ez zen existitzen publizitate-jardunean, ez zen euskaraz pentsatzen» (Aurtenetxe, 2014). Beste askotan, hedabidean bertan egiten zituzten itzulpenak, edo enpresako langile euskaldunen bat arduratzen zen euskarazko leloak lantzeaz (Esnaola, 2014).

Beldurra nagusi zen jendartearen, enpresa euskararekin lotzeak garaiko erregimen frankistarekin arazoak ekar baitzitzakeen. Horren isla dira *Eusko-Izpar-Banatzea*⁵ erbesteko aldizkarian argitaratutako honako bi adibideak: 1952 urtean nekazaritzarako ongariak saltzen zituen enpresak euskarazko iragarkia jarri zuen Radio San Sebastián irrati-katean. Iragarki horixe bera Radio Bilbaon jartzeko eskaera egin zuenean, ordea, bertako gobernadore zibilaren debekua jaso zuen (Anaut, 2013: 159). Zenbait urte geroago, 1966 urtean, atzerriko enpresa batek Donostiako publizitate-agentzia baten aholkularitza kontratatu zuen Bilboko eta Donostiako prentsan iragarkia jartzeko. Iragarki elebiduna prestatu zuten, euskaraz eta gaztelaniaz. Aho bete hortz geratu omen ziren publizitate-aholkulariak jakinarazi zienean eguneroko prentsak ez zuela euskarazko iragarkirik onartzen (Anaut, 2013: 166).

Euskarazko publizitatea era normalizatuan egiteko aukerarik ez zen izan harik eta Franco hil zen arte (Esnaola, 2014). Gauzak horrela, euskarak bidezidorretatik igaro behar izan zuen. Euskaltzaleak bestelako topalekuetan elkartzeko ziren, esaterako, ikastolen mugimenduaren baitan sortutako Saioika proiektuan. Egiteko nagusia euskarazko ikasmaterialak lantzea zen arren, publizitatearen alorreko enkarguak ere jasotzen zituzten. Gehienbat gizarte mugimenduetako taldeak hurbiltzen zitzaizkien, baina baita zenbait enpresa ere. Lan egiteko era oso amateurra zen, baina sormenerako grina zuen lantaldea osatzen zuten. Adibidez, Lan Kide Aurrezkiaren logotipoa bertan diseinatu zela gogoratzen du Antton Ola-riaga marrazkilariak. Euskarriari erreparatuz gero, kartelak eta

logotipoak eskatzen zituzten batez ere. Bestalde, pegatinekin garrantzi handia izan zuten sasoi hartan, euskarri merke eta ikusgarriak baitziren (Olariaga, 2013).

Egoera nahasi horretan, elizaren magalean topatu zuten euskarazko hedabideek debekuari iskin egiteko bidea. Bizirautea lortu zuten artean, publizitate-euskarri gisa aipagarrienak Herri Irratia⁶ eta *Zeruko Argia* aldizkaria izan ziren. Bertako kazetari euskaldunek bete zuten euskarazko iragar-kigintzan orduan zegoen hutsunea, aipatu bezala publizitatea hedabidean bertan itzultzen baitzuten sarri askotan.

Loiolako Herri Irratia: euskara uhinetan

Loiolako Herri Irratiak euskararen alor komunikatiboa beste Eliza-irratiek ez bezala garatu zuen, hizkuntza tresna gisa ustiatu baitzuen eguneroko informazioa eta entretenimendua lantzeko. Agintari frankistek folkloari lotutako gaietan besterik ez zuten onartzen euskara, eta kultura folklore gisara aurkeztuz lortu zuten zentsuraren galbahea pasatzea (Agirreazkuenaga, 2010: 143).

Halere, Loiola Irratiaren bereizgarri eta ezaugarri gogoangarrietakoa euskarazko iragarkiak izan ziren. Nahiz eta zati bat jesuitek finantzatu, publizitatea diru-iturri gisa baliatzen hasi ziren. Bertako esatari Itziar Sagarzazuren ustez, ekarpen nabarmena izan zen, ordura arte jendea ez baitzegoen ohituta euskarazko iragarkiak entzutera (Agirreazkuenaga, 2010: 89). Euskaldun andanaren gogoan iltzatuta geratu da «Fanderiko pentsuak. Ez merkeenak! bai onenak!» eslogan abestua (Olariaga, 2013).

Esatariak eurak ziren iragarki bila aritzen zirenak, baita gero erredaktatu eta grabatzeaz arduratzen zirenak ere. Zentzu horretan, azpimarragarria da Joxe Mari Iriondok iragarkiak itzultzen egin zuen lana, bere esanetan 1961etik 1983ko martxora arte bere eskuetatik pasa baitziren itzultzeko premia zuten iragarki guztiak (Agirreazkuenaga, 2010: 89).

Euskara saltzeko tresna baliagarria dela erakutsi zuten. Izan ere, publizitatea euskaraz egitea bazen nonbait abantaila

lehiakorra, Donostiako beste irrati kateek salaketa bat baino gehiago jarri baitzieten euskarazko iragarkiak ematea konpetentzia desleiala zela-eta. Joxe Mari Iriondok kontatzen du hori Azpeitiko *Uztarría*-ri emandako elkarrizketan (Uranga, 2003).

Isunak gogotik jasan zituzten euskaraz emititzeagatik, eta bereziki euskarazko publizitatea izan zen arazo horietako askoren iturburu. Probintziako Informazio eta Turismo Delegatuak Loiola Irratiko zuzendariari honako idatzia helarazi zion 1964 urtean:

En ningún caso podrán ser difundidos anuncios en lengua vasca, toda vez que la publicidad no puede ser considerada como integrante de los programas religiosos cuya competencia exclusiva corresponde a la autoridad eclesiástica (Torrealdei, 1998: 172).

Jakinarazpen hori jaso eta urte horretan bertan, irratiaren kopurua murrizten zuen dekretua kaleratu zuen Manuel Fraga Iribarnek, Erregimeneko Informazio eta Turismo ministro zenak, eta euskarazko parrokia-irradi gehienak desagertu ziren (Juaristi, 2008: 860). Urte baten buruan eman zioten berriro Loiolako Herri Irratiari FM-n emititzeko baimena, baina bolada berri hori nekeza izan zen publizitatearen ikuspuntutik, publizitate-agentziek ez baitzuten FMren eragin-kortasunean sinisten. Horrela kontatzen du Inaxio Arregik: «agentzia handiek ez zuten gurekin lan egin nahi, FMrekin ez zutela publizitaterik egiten eta horrelako erantzunak izaten genituen» (Agirreazkuenaga, 2010: 115).

'Zeruko Argia': iragarki grafikoen sehaska

Prentsari dagokionez, 1936ko fusil-hotsak euskarazko argitalpen guztiak isildu ostean, hamabost urte igaro ziren *Zeruko Argia* berriro argitaratzen hasi zen arte. 50eko hamarraldian ale bakar batzuk argitaratu ziren, eta horiekin batera bueltatu

ziren euskarazko iragarki grafikoak. Aldizkakotasuna, ostera, 60ko hamarkadan berreskuratu zuen.

Mende aldaketa aitzakia hartuta, artxiboa sarean edonoren esku jartzeko lan mardula egin zuten *Argia*-n. Bertan XX. mendean argitaratutako iragarkiak kontsulta daitezke. Baten batek pentsa dezake orduko hartan baserriko produktuak besterik ez zirela iragartzen. Oso oker ibiliko litzateke, ordea. Euskarazko iragarleak askotarikoak izan ziren, eta jarduera ekonomiko ugariatik zetozen. Egon bazeuden, noski, baserriarrei zuzendutako produktuak iragartzen zituztenak⁷, baina, oro har, esan genezake iragarle gehienak bestelako sektoreetatik zetozela. Nabarmentzekoak dira banku, aurrezki kutxa eta aseguruaren sektorea⁸, elikagaiak banatzen zituzten enpresak⁹, kontsumo-ondasunen industriak¹⁰, bestelako zerbitzuak¹¹ eta kulturari lotutakoak¹².

Iragarki horien sakoneko azterketa egitea merezi luke; ez dugu, ordea, horretarako paradarik. Nolanahi ere, ezin dugu idatzi gabe utzi garai hartako esloganek gaur egungo publizitate-idazketa teknika modernoek erabiltzen zituztela orduan: segmentazioa, agintezko eta harridurazko esaldiak, marka-ezaugarrien gorespena, umorea, hitz jokoak, eta abar. Bestalde, nabari da euskaratik sortuak direla, hizkera freskoa baitarabilte hitz jokoak egiteko. Honako hauek dira horien artean aipagarrienak: «Funcor, azkar bezain ondo», «Alfa josteko makiña, euskal etxeoandreak amets egiña!», «La Fandería, ez merkeenak, bai onenak!!!»; «Insalus'eko iturria, bertsolarien etorria», «Solo atxurra, amar gizonen aiña lan egin dezake», «Agni labadorak eta sukaldeak. Ederrez, merkez eta garantiaz berdiñik gabeak», «Krafft, kilometro geiago eta obeto egiteko...», «Iberia, onena baiño ohea da!», «Soberano, bai edari aparta» edo gaurdaino iritsi den «Edan Coca Cola» ospetsua.


Lan Kide Aurrezkia: olatu bat euskararen itsasoan

Egoera hartan, komunikazioaren alorra kudeatzeko pertsonak kontratatzen hasi ziren enpresa handiak. Horietako

zenbait euskal hiztunak ziren, eta haien ekinbideak eragin handia izan zuen erakunde horien publizitatea euskaraz egiten hasteko. Gipuzkoako Aurrezki Kutxako komunikazioan, adibidez, Koro Landak bultzada handia eman zion euskarari (Esnaola, 2014). Hala ere, guztien artean bat nabarmentzekotan, Lan Kide Aurrezki¹³ aipatu beharko genuke, euskalgintzari garai zail haietan eskainitako babes tarteko.

1972 urtean Lan Kide Aurrezkiaren harreman publikoen ardura hartu zuen Luis Iriondok. Aurretik musikagilea izan zen, eta Loiola Irratian ere ibili zen hamabi urtez musikari lotutako programa baten arduradun. Bera sartu eta berehala iritsi ziren aldaketak aurrezki erakundearen kudeaketara. Marka-irudia euskalduntasunarekin lotu zuten erabat. Euskararen balio sinboliko eta komunikatiboaz jabetuta, komunikazio publikoetan euskara txertatzen hasi zen.

Hasiera batean elebitasun desorekatua izan zen: %30ean besterik ez zen erabiltzen euskara. Hala ere, aitzindaria izan zen erabat, lehenengo erakundea izan baitzen publizitate-kampainen planifikazio linguistikoa egiten. Ordura arte errotilazio guztia eta logotipoa gaztelania hutsean zegoen, baina Iriondoren etorrerarekin ele bietan jartzen hasi ziren, nahiz eta oraindik gaztelaniak lehentasuna izan. Beste horrenbeste egin zuten gainontzeko publizitate euskarriekin: eskuorri, kartel eta iragarki grafiko guztietan euskara txertatu zuten. Halaber, aipagarria da euskal kulturaren mezenasgoan egindako ekarpena (Unanue eta Intxausti, 2002: 89-91).

«Herritarrengan berpizten ari zen euskaltzaletasunaren grinari erantzun zion lehen erakunde kooperatiboa» izan zen Lan Kide Aurrezki (Unanue eta Intxausti, 2002: 91). Luis Bassaten aburuz (2008: 179), publizistek eta surflariek badute zerikusirik, gizartearen itsasoan murgilduta baitaude gizarte-mugimenduen olatuei so, egokiena noiz iritsiko zain. Ondo aukeratuz gero, olatua baino lehenago iristen dira hondartza bazterrera. Horrelako surflari abilak izan ziren frankismoaren azken urte haietan euskara publizitate kanpagnetara ekarri zuten gizon-emakumeak. 

Oharrak

1. Inoiz baino euskarazko argitalpen gehiago egon ziren Bigarren Errepublikaren sasoian *Euzko-Deya*-n, *Argia*-n, *Euzkadi*-n, *El Día*-n eta *El Pueblo Vasco*-n. Batez ere aipatzekoa da *Argia* astekariaren ekarpena, iragarki asko bildu baitzituen 1921etik aurrera (Izagirre, 1998: 83-96; Juaristi, 2008: 850-859).
2. Alas publicidad, Danis publicidad eta Vila publicidad, besteak beste.
3. Garai hartako protagonistek honako agentziak aipatzen dituzte: Publis, Aurman, Doce62, Luz publicidad, Publivasc, Publiguia, Garcia Iñiguez, Cif publicidad eta Publicidad del Norte (Esnaola, 2014; Aurtenetxe, 2014).
4. Jakin ahal izan dugunez, Doce62 publizitate-agentzia osatzen zuten hiru bazkideak euskaldunak ziren: Imanol Zinkunegi, Luis Ansoalde eta Javier Belza. Hala ere, ez dugu haiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko aukerarik izan.
5. *Euzko-Ipar-Banatzea* erbesteko Eusko Jaurlaritzak izan zuen komunikabidea izan zen, 1947-1977 urteen artean. Digitalizazio-lan handiaren ostean, zenbaki guztiak <http://ope.euskaletxeak.net> web atarian kontsulta daitezke.
6. Herri Irratiak Loiolan eta Donostian zituen kateak. Horrez gain, euskaraz aritu ziren hainbat parrokia-irradi txiki izan ziren Eibarko Arrate Irratia, Segura Irratia eta Radio Tolosa.
7. La Fandería pentsuak, Funcor baserrirako makinak, J. Mokoroa haziak, Ongarri pentsuak, Medem zomorroak hiltzekoa, besteak beste.
8. Aranzaditar J.M. Aseguroak, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Gipuzkoa'ko Probintzi Erastetxea, Banco de Bilbao, Banco de Vasconia, Lan Kutxa Herrikoia, Banco de Tolosa eta Banco de Vizcaya.
9. Gurelesa esnekiak, Baqué kafeak, Coca Cola, Kas, Pamplonica txerrikiak, Reineta karameluak, Savin ardoa, Mai-ona sagardoa eta Mirinda edariak.
10. Alfa josteko makinak, Pyramid telebistak, Agni material elektrikoak, Fagor, Irizar, Sony, Edesa, Iberia hozkailuak, Danobat, Krafft, Jabon Lagarto, eta abar.
11. Arakama garajea, Tomas Eizmendi'ren jatetxea, Seaska jantzi-denda, Zinkunegi optika, Easo liburu denda, CCC, Galerías Oarso, Galdaona argazki-denda, Zorrotz burdin-lanak eta Comercial Hispania altzariak.
12. Euskal Irratiak, Xenpelar Saria, Euskal Herriko Aizkolari Erakusketak, Aranzadi argitaldaria, Uhin Berri, Usandizaga Diskoetxea, La Gran Enciclopedia Vasca eta Cancionero Popular Vasco.
13. Gaur egun «Laboral Kutxa» denak «Lan Kide Aurrezkoa» izena zuen euskaraz hasiera batean. «Euskadiko Kutxa» izena hartu zuen geroa-

go (1978), urtebete arinago erabilitako leloa izentzat hartuta (Unanue eta Intxausti, 2002: 93). 2012 urtean «Ipar Kutxa»-rekin bat egin ostean, «Laboral Kutxa» izenez da ezagun.

Bibliografia

- Agirreazkuenaga, I. (2010). *Euskarazko irratigintza garai zailetan 1956-1976: irрати kazetari euskaldunen hotsak*. Argitaratu gabeko tesina.
- Anaut, D. (2013). *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- Arana, E.; Iñigo, J.J. (1992). *Publizkuntza*. Leioa: Euskal Kulturaren Batzarrera eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Argia (1999). *Publizitate-iragarkiak. Gure mendea, ehun urte euskal kulturaren*. Sarean ikusgai (www.argia.com/mendea; kontsulta data: 2013-12-22).
- Bassat, L. (2008). *Confesiones personales de un publicitario*. Bartzelona: Crítica.
- Garro, L. (2008). *Ez merkeenak! Bai onenak!* Argia. *Euskal publizitatea abian*. Irun: Alberdania.
- Izagirre, K. (1998). *Euskararen historia txikia Donostian (1800-1998)*. Zarautz: Susa.
- Juaristi, P. (2005). *Salgai. Euskal kontsumo gizartea aztertzen*. Irun: Alberdania.
- (2008). «Zer gertatu da euskal kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideekin azken 120 urteotan?», *Euskera* 53(3), 847-872.
- Ogilvy, D. (1990). *Anotaciones privadas de David Ogilvy*. Bartzelona: Folio.
- Torrealdai, J.M. (1998). *El Libro Negro del euskera*. Donostia: Tartalo.
- Unanue, A.; Intxausti, N. (2002). *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Arrasate: Emun.
- Uranga, N. (2003). «Lana guztiz ez dut inoiz utziko», Joxe Mari Iriondori egindako elkarrizketa. *Uztarria*, 2003ko urria. Sarean ikusgai (http://uztarria.com/herri_aldizkaria/2003/44/05elkarrizketa; kontsulta data: 2013-12-24).

Lehen eskuko iturriak

- Olariaga, Antton. Elkarrizketa (2013-12-17).
- Esnaola, Juan Ramon. Elkarrizketa (2014-01-09).
- Aurtenetxe, Pedro. Elkarrizketa (2014-01-10).

EGUNEN GURPILEAN

- 125** Ekonomia
Fagor jausi zen urtea
2014: erreferendum(ar)en urtea...
... edo errekupeazioarena?
Joseba Barandiaran
- 131** Soziolinguistika
Bizitzeko, arnasa
Bizi ala iraun
Arnasguneak
Lurraldea eta hizkuntza
Hezkuntza
BEC
Bakoitzari berea
Dabid Anaut
- 137** Telepolis
Handien arrastoari begira
Ekuador eta Bolivia software
librearen bidetik
Teknomoda
Gorka Julio



Fagor jausi zen urtea

Joan da 2013. Ikuspuntu ekonomikotik, Euskal Herrian erraz gogoratuko da: Fagor Electrodomésticosek (FET) porrot egin zuen urtea. Harridura eta kezka eragin ditu gertaerak, bai mugimendu kooperatiboan, bai bertatik kanpo. Mondragonen inflexio puntu bat ekarriko ote duen esateko goiz den arren, badira egin beharreko hausnarketa zenbait.

1. Kooperatibak gidatzen omen dituzten balio eta helburuez harago, merkatu kapitalistan lehiatzen dira bestelako forma juridikoa duten enprekin. Hortaz, bizirauteko lehian jardun behar dute eta konkurrentziari erreparatu behar diote nahitaez, Espainia autarkiko zahar hura aspaldi joan baitzen. Hala, urte eta are hamarkada oparoen ostean, kooperatibistek Mondragonen sinbolo bat hondoratzen ikusi dute.

2. Egungo ekonomia eta gizartean irudia nahiz komunikazioa funtsezkoak dira. Ez dira noski gauza bera, baina zerikusia dute. Krisi honetan, Mondragonen irudiak kalte handia jasan du. Hein batean beti izan dituen etsaiengatik, baina baita komunikazio politika oso kaskar baten ondorioz ere.

3. Langileak jabe eta nagusi omen dituen ereduan, manifestazioak, haserrea eta harridura ere kaleratu dira tar-teka. Asanblada bidez erabakiak hartzea demokratikoa eta desiragarria izan daitekeen arren, FET jausi den moduak zer pentsa ematen du langileek enpresaren egoeraz d/zuten informazio eta ezagutzaz. Zuzendaritzaren aldetik, berriz, lidergo argi baten falta sumatu da, bai kanpora begira, bai kooperatiba barrura begira eta baita Korporazio barruan

jardun eskema bat marrazteari begira ere. Galbraithek aipatzen zuen teknoegitura baten arrastoak sumatu dira, nahiz eta porrot aurreko langileen arteko kohesioa eta harremana oso ontzat ditudan, izandako esperientzia pertsonaletik.

4. Langileen lana bermatzeko helburua du kooperatibak sorreratik, lanak duintasuna eskainiko dielakoan. Hedapen internazionala gertatzean, kooperatiben idearioarekin lehen kontraesanak azaleratuko ziren. Orain, etxera iritsi dira nabarmen kontraesanok; Espainiako lan merkatuan dualizazioa da nagusi: behin-behineko enplegatu babesgabeak eta behin betiko babestuak. Bada elkarte anonimo baten adinako dualizazioa edo are handiagoa ikusi da Korporazioaren baitan: Etxetresnakeko langileen birkolokazio plana behin-behineko langileen bizkar egin da hein handi batean. Bestalde, ELA sindikatuak salatu du enpresari kapitalista zorrotzenaren pare jokatu dutela eurekin, Azpeitiko Grumal filialaren kasuan. Kapitala vs lana dualtasun horretan, kooperatiba kapital bihurtua dakusagu. Arizmendiarrietak ere sumatuko zukeen, gurean, Errasti edo Bakaiakoak aztertutako kooperatiben «degenerazioa», alegia, hasierako helburuetatik urruntzearen zentzuan.

5. Euskal ekonomiaren etorkizuneko gakoa teknologian dagoela diotenek argi ondorioztatuko zuten: tamaina ez da nahikoa enpresa baten heriotza eragozteko. Berme hobea da teknologia eta giza kapital prestatua. Biak dira zaindu eta landu beharrekoak, epe luzeko ongizaterako. Birkolokazioetan ere ederki nabaritu da prestakuntza mailaren garrantzia.

6. Korporazioaren baitan, berriz, Irizar eta Ampo kooperatibek Mondragon utzi zutenetik ikusten da alderantzizko aukeraketa (*adverse selection edo selección adversa*) deritzonaren arriskua; bigarren eskuko kotxeen depreziazioa eragiten duen berbera: ale ahulenak hobe beharrez merkatuan (Korporazioan) mantentzen dira, baina ale hoberenek bes-telako aterabideak (ezagunei edo senideei saltzea) hobesten dituzte, ahulenetatik ezberdin ditzaten (Korporaziotik irteera, zama izan daitekeelakoan).

7. Hazkunde nahiak eta zorpetze bidezko hedapenak, are gehiago likidezia oparoa den garaian, arriskuak ditu. FET ez da arazo horren adibide bakarra. Menpeko Ekarpenen gaian zer hobetua badela erakutsi du gertatutakoak. Bigarren puntuan aipatutako komunikazio alorraz gain, inbertsiogile handien parte-hartzeak berme papera bete dezake (prezio egokiak finkatzeko garaian, esate baterako), eta, langileei begira, arrisku kontzentrazioaren mugak kontuan hartu beharko lirateke (hirugarren puntuan aipatutakoaren ildotik).

8. Kooperatibek modu praktikoan erakutsi dute euren forma juridikoaren abantaila, esaterako, lan baldintzen eta soldaten malgutasuna aplikatzerakoan. Barne elkartasun erakustaldia ere egin dute hein batean. Gizarteari hori (ere) saltzen ikasi beharko lukete.

9. Aldundiek eta Jaurlaritzak Edesaren balizko bideragarritasuna dela-eta izandako parte-hartzeak ere zer pentsa ematen du. Komunikazio alorrean izandako akatsez harago, ikuskizun dago FETeko zein atal diren zinez bideragarri eta zein baldintzatan.

Puntu guztietatik atera daitezke ondorioak eta etxeko lanak, bai Korporazioarentzat, bai erakunde publikoentzat eta, finean, euskal gizarte osoarentzat. Taldeak onera egitea espero beharko, Fagor Industrial Onnera bihurtu den abia-dan, ahal bada. Laboral Kutxak iragarri duen «Bada beste modu bat» hori zein den ebaztea, alegia.

2014: erreferendum(ar)en urtea...

Kataluniakoa egingo ote den zalantzak handiak diren arren, Eskoziako galdeketa burutuko da 2014ko irailaren 18arekin. Gurea mugimendu independentista duen herria izaki, arretaz jarraitzeko adibide edo «business case» paregabea, zalantzarik gabe, aldaketa giroan eta garai bertsuan egokitu zai-guna. Eta hori gutxi ez balitz, Europar Batasunaren baitan.

Eskoziako Gobernuak 2013 amaieran txosten luzea plazaratu zuen, independentziaren zergati eta abantailak azaltzeko. Prozesu independentistan, gureak errenta altuko gizarteak izaki, zalantza eta beldurrak piztea ulergarria da, pentsioez, etorkizuneko errentaz, eta abar. Hortaz, Eskoziako Gobernuak argudio ekonomikoei leku nabarmena eman die bere txostenean. Guztietan argudio nagusiak ekonomikoak direla esango nuke, gainera. Hamar atal ditu txostenak eta gehienak ekonomiari oso lotuak.

Lehen atalean bertan aipatzen diren abantaila ekonomikoek gain, hor dira: Eskoziako Finantzak (2. atala), Finantza eta Ekonomia (3), Osasuna, Ongizatea eta Babes Soziala (4) eta Hezkuntza, Abileziak eta Enplegua (5) nahiz Ingurugiroa, Landatar Eskozia, Energia eta Baliabideak (8). Guztiak ere helburu argiarekin: bertako agintaritza izanda, Eskoziako herritarrak (bertan bizi eta lan egiten dutenak) hobeto biziko lirатеkeela azaltzea.

Erabakiak gertuago hartzeak zerga politika doituago eta egokiagoa ekarriko omen luke, Eskozia soilik buruan harturiko erabakiak eta zerga jaitsierak ere iragartzen dituzte (besteak beste, elkarteen gaineko zergan). Independentzia baliabide naturalekin lotzeko tentazioari begira, Eskoziako Gobernuak dio hori gabe ere Erresuma Batuko gainontzekoak bezain aberatsak lirатеkeela eta, baliabide natural horiekin, %30 aberatsagoak.

Erabakiak bertatik bertarako hartu beharraren aldarrikapenak ageriko kontraesan bat badakar: politika fiskala bertakotu nahi da, baina, monetaren gaiari arantzatsu iritzita edo, libera esterlina mantentzea proposatzen da. Alegia, Bank of Englandek mantenduko lukeela moneta politika, Erresuma Batu osoari erreparatuz, orain arte bezala. Dirudienez, politika fiskalean egia omen dena ez du moneta politikan berdin ikusten Salmond buru duen gobernuak. Prest leudeke ardura hori Londresen esku lagatzeko. Iparralde hartan euroa egitasmo erakargarriegia ez delakoan edo, txanpon berri baten aukera ausartegia ere baztertzen

du, printzipioz behintzat, Eskoziako Gobernuaren lehen proposamenak. Nolanahi den, hazkundera, enplegua, nuklearrik eza eta ongizatea agintzen dituen programa herri-tarren esku eta bozetan dago.

Banaketa prozesuan trantsizio epe bat ere aurreikusten denez, atentzioa ematen du Espainian gai arantzatsu bat izan daitekeen horretarako agertzen duen naturaltasunak: estatu bi sortu behar badira, negoziaketak egin eta adostasunak lortu beharko dituzte bi gobernuek. Ezkon bikote batek dibortzio baketsu bat adostu dezakeen ber gisan. Ziurrenera ere, banatu behar badute, konponbide adostua da bi aldeentzat onuragarriena, optimoa Paretoren zentzuan: ez dago baten egoera hobetzerik, bestearena kaltetu gabe. Salmondend hitzetan, erreferendumaren emaitza edozein delarik ere, bi gobernuek adostu dute «to work together... in the best interest of the people of Scotland and of the rest of the UK».

... edo errekupeazioarena?

Europa eta Euskal Herriko ekonomiek hobera egingo dute 2014an. Hala diote iragarpen guztiek. BPG oinarri duten iragarpen guztiek, alegia. Izan ere, enpleguaren datuan hobekuntzarik espero ez denez, Hego Amerikan (Txile eta Perun, batik bat) nahiko ohikoa den egoera ikus dezakegu: adierazle makroekonomiko onak (edo), errealitate mikroekonomiko askoz lausoagoa lagun. %1 bueltan haziko omen da Hego Euskal Herria 2014an, baina 218 mila langabeen ilara ez da askorik laburtuko. Bestalde, euskal erakundeek duten eragiteko ahalmen mugatuaren berri ematen duen errealitate: euskal zergez ordaintzen diren euskal funtzionarioen soldata ezin du Jaurlaritzak edo Nafarroako Gobernuak finkatu. Madrilgo erabakiei oso loturik daude gureak ere. Gure enpresen salmenten erdia ere Espainiara bideratua egoteaz gain. Hortaz, gurean gertatzen dena ez da Espainiakotik gehiegi urrunduko, koiunturaz ari garela.

Egiturazko ikuspuntuak ere ematen du, ordea, zer pentsatua. Gaur eta hemen ekonomiaren hobekuntza hazkunde ekonomikoari lotzen zaio, ia osoki, indarrean den analisi ekonomikoan. Mundu finitua eta mugatua izateak, erregai fosiletan eta kontsumo neurrigabeen oinarritutako gizartea izateak edo hazkundearen mugez jarduteak ez du hain ondo saltzen langabeen ilara oso luzea bada. Sistemaren ziklo arruntak gorantz egin dezake, baina gizarte bazterkeriak, eskulan merkeranzko deslokalizazioak, estatuen interes politiko kontrajarriak, finantzen botereak eta lanaren mugikortasun geografiko eskasak egungo harreman ekonomikoen oinarri-oinarrian diraute. Kapitala eta lana kontrajartzea errazagoa zen XX. mendean. Kapitalak izena, aurpegia (gaiztoa sarri) eta presentzia zuen enpresan. Egun, ordea, kapitala munduan barreiatu den botere ikusezin moduko bat da, lehen baino lausoagoa eta, aldiz, lehen baino indartsuagoa izan daitekeena, iheskorragoa, harrapagaitzagoa. Galdetu bestela Euskaltelen non dagoen «batzen gaituena». Hazkundera itzul liteke. Besterik da aldaketa gertatzea. 🌸



Bizitzeko, arnasa

Hizkuntzak ez dira, zentzu biologiko hertsian, izaki bizidunak. Ohikoa da hala ere haietaz hitz egitean izaki bizidunen propietateak atxikitzea edo horiekin lotutako metaforak erabiltzea. Are gehiago hizkuntza ekologiaren paradigma indarrean dagoenetik.

Bizitzeko arnasa hartu beharra da hizkuntzei sarritan atxikitzen diegun propietate biologiko horietako bat. Ohartu ginen gu aspaldi horretaz, hizkuntzen mapa koloretsua nahi dugunok, alegia, eta ohartu ziren aspaldi mapa monokromatikoagoa nahiago dutenak ere. Arnasa eman edo arnasa kendu, hizkuntza jakin batekiko jorra litezkeen bideen eskema sinple eta txuri-beltzekoa, bi jokamolde horien artean egon litezkeen erdibide eta aukera guztiak gorabehera. Eskema horren sinpletasuna ekarri dugu hona, hain zuzen ere, gurean azken aldi indartsu dabilen eta euskararen normalizazioaren egungo aparatu teorikoan eta praktikokoan garrantzitsu bihurtzen ari den ideia bat aipatzeko: arnaguneak.

Bizi ala iraun

Berri Txarrak taldearen letra batek honela dio: «... eta galdetzen dut zer ote den hau, bizi ala iraun...». Euskaldunok ere geure buruari antzeko zerbait galde diezaiokegu gure egoerari buruz: «zer ote da hau, bizi ala iraun?». Eta agian garrantzitsuagoa: zein da gure helburua, bizitza edo irautea? Euskarak espazioan eta denboran iraun dezan nahi dugu, bistan da, baina iraupen hutsarekin etsi behar al du-

gu? Bizitzeaz ari garenean, ordea, iraupen hutsaz haragoko zerbaitez ari gara: euskara garatzeaz, euskaraz eta euskararen osasuntsu bizitzeaz, hizkuntzen artean eguneroko bizitzan gerta litekeen alternantzia norberaren hizkuntzaren segurtasunetik jokatzea eta ez galeraren eta ordezkapenaren ez-patak sortzen duen tentsiotik, hizkuntza ekologiak marrazten digun orekan kokatzeaz... Bada aldea iraupen hutsetik bizitzera. Zer nahi dugu, beraz, bizi ala iraun?

Galdera lodia da hori. Galdera meheagoak ere badira, baina bere bizi-energiaren zati handi bat euskararen orainean eta etorkizunean inbertitu behar duen hiztun-komunitateak ezinbestean eta zintzotasunez, berandu baino lehen, erantzun beharko lioke galdera lodi horri ere: erantzunak tankera politikoa, ideologikoa, soziolinguistikoa, filosofikoa edo agian emozionala izan lezake, nork erantzunen duen, eta agian erantzun molde guziek balio lezakete. Erantzun bateratu eta adostu batek estrategia bateratua eta adostua ekar lezake, adostasunik gabeko erantzunak zailago eginen luke estrategia bateratua, eta agian «euskararen Maltzaga» bilatzera behartuko gintuzke.

Galdera horri erantzun egokia ematen ez zaion bitartean, nolana ere, badaude aurrerabiderako aukerak. Euskalgintza ez dago geldirik eta gogoetan nahiz ekinean jarraitzen du, norabide erabat garbi, adostu eta beti kohesionatuan egiten ez badu ere. Badira lan horretan baliagarriak eta ezinbestekoak diren ideia indartsuak, eta horietako bat dugu arnaguneen ingurukoa, hain zuzen ere.

Arnaguneak

Euskararen aldeko strategiak ideia edo kontzeptu indartsuak behar ditu; baina ez bakarrik gogoetarako eta pentsamendurako, baizik eta batez ere praktikarako eta ekimenerako: arnaguneak dira horietako bat. Euskara normalizatzeko edo biziberritzeko lanari oinarri teoriko-ideologiko eta praktikoko

sendoa eman diezaiokeen ideia edo kontzeptua iruditzen zai-
gu, euskararen aldeko edozein ikuspegi edo estrategian txer-
tatzeko modukoa, gainera. Horretantxe datza, bestalde, kon-
tzeptu horren baliorik handienetakoa: iraupen hutsetik bizi
osasuntsuraino doan helburuen eskaierako maila guztietar-
rako balio duen ideia da arnasmuneena. Esanen nuke euskal-
gintzaren espektro zabal osoan gero eta gehiago erabiltzen
den terminoa eta kontzeptua dela, inor bereziki lasztu gabe.

Sortu da literatura arnasmuneen inguruan, hitzetik hortze-
ra dabil terminoa, eta agian merezi du nolabaiteko defini-
zioa ematea, Mikel Zalbidetik Fishmanen testuetatik abiatuta
emandako definizio bat erabiliz: «Euskarazko arnasmunea
da demografi aldetik euskara ‘bere kabian’ sentitzen den
bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe ‘etxeko jaun’ sentitzen
den eremua».

Ziur asko gehiago eta hobeki zehaztu daiteke definizio hori,
baina espazio gehiago beharko luke horrek, eta horrela esan-
da balio diezaguke. Uste dut, bestalde, arnasmuneena neke
handirik gabe lotu litekeela euskalgintzaz gainera beste espa-
rru soziologiko eta politiko batzuetan ere nahikoa indarrean
dagoen terminoarekin: hegemonia. Terminoak izan lezakeen
irakurketa negatiboa eta eskusibista kenduta, arnasmune-
tan euskarak hegemonikoa izan beharko luke. Ez gara euska-
rak modu orekatuan beste hizkuntza batzuekin partekatzen
dituen espazioei buruz ari, euskara hizkuntza nagusia den
espazioei buruz baizik, «etxeko jaun» zioen Zalbidetik («etxe-
ko jaun» baino termino egokiagoa aurkitu beharko genuke
horretarako ere). Inorekin lehian ari gabe, euskara zentroan
duten espazioak, euskaraz eroso, normal, hasi eta bukatu ar-
te egin daitekeen eta bizi daitekeen espazioak. Horrelakoak
sortu, indartu, hedatu eta josi beharko lituzke euskarak.

Arnasmuneak espazio geografikoak eta soziofuntzionalak
izan litezkeenez, edonoiz eta edonon aplikatzeko formula
dira, lurralde geografiko nahiz sozial guztietarakoak, ale-
gia: Euskal Herriko zazpi lurraldeak, administrazioak, hez-
kuntza komunitatea, esparru asoziatiboa, kalea, aisialdia,

teknologia berriak, lan-mundua... Gune bakoitzaren harreman-sareak izan litezke mugak eta oztopoak, baita legeak eta egoera sozio-politikoak ere beste zenbaitetan, baina euskararentzat han eta hemen espazio hegemonikoak sortzeko planteamenduak oso ibilbide luzea izan lezake.

Arnasguneena ez da, noski, gaur goizean asmatutako ideia. Fishmanek «physical breathing space» hura aipatu baino askoz lehenago ere bagenituen hemen arnasmunearen ideia-aren gauzapentzat jo genitzakeenak, ikastolak, esate baterako; baina azken urteotan kontzeptuak hartu duen indarrak balio beharko luke lehendik datozen eta ikuspegi horretan txertatuta dauden askotariko ekimenak are gehiago indartzeko eta euskararen estrategian behar duten tokia hartzeko: UEMA, konparaziora. Baina UEMA bezala, euskararentzako arnasmuneak dira euskarazko hedabideak, euskaraz ari diren ikastetxeak, euskara elkarteak, euskaraz lan egiten duten enpresak, edo, nahi bada, esate baterako, inguru erdaldunetako koadrila euskaldunak.

Espazioak irabazi behar ditu euskarak, beretzat izanen direnak, eta irabazita dituenak sendotu, egonkortu eta horiei eutsi. Arnasmuneen pilaketa eta batuketa hutsak irauten lagunduko luke. Arnasmuneak elkarri josiz gero, euskararen ekosistema egokituko balitz (besteak beste, hizkuntza politika egoki batekin, euskararentzako marko juridiko egoki batekin, baliabide ekonomiko eta teknikoekin...) eta euskararekiko atxikimenduak kotoiaren froga gaindituko balu, iraupen hutsetik bizi osasuntsura aiseago iritsiko litzateke euskaldunon hiztun-herria.

Gaurko arnasmuneen bidez, bestalde, euskaraz biziko den herria edo gizartea irudika dezakegu nolabait: administrazio euskaldunak, kale-giro eta lagunarte euskaldunak, euskarazko kulturagintza eta hedabideak, lan-mundu euskalduna... Ezinbestean euskara hutsean bizi izan diren euskaldun elebakarren bizi-esperientzia atzean gelditu zen, ez da berri-eriz etorriko, baina nahi dutelako euskaraz biziko direnen bizi-esperientzia proiektatu dezakegu arnasmuneen bidez.

Lurraldea eta hizkuntza

Euskalgintzak dagoeneko arreta jarrita dauka arnasguneetan. Horren adibide, arnasguneen inguruan azken al-dian Kontseiluak, UEMAk, Bertsozale Elkarteak, Emunek, EHEk eta Topaguneak martxan jarri duten dinamika, arnasguneak indartu eta hedatzeko asmoz. Edo «Lurraldea eta hizkuntza» izenburuarekin Kontseiluak, UEMAk, Gipuzkoako Diputazioak eta UEUk, EHUren babesarekin, 2014ko urtarrilean antolatu dituzten jardunaldiak. Geografiak, lurralde-antolaketak eta hirigintzak euskararen bizitasunean eragiten dutela bistakoa da, UEMAk duela 20 urte inguru egindako jardunaldietan ere horren aipamenik baze-n, baina gurean ez zaio gaiari behar bezala sekula heldu, ez ikuspegi akademikotik ezta alderdi praktikotik ere. Gogoeta serioa eta sakona egin beharra dago horren inguruan, urrats praktikoen atari gisa.

Hezkuntza

Hezkuntza-sistemak hizkuntzaren arnasarekin zerikusia baduela ere agerikoa da. Hala ulertu izan du euskalgintzak eta euskaltzaletasunak historikoki, eta halaxe ulertu ere du historian zehar euskara zokoratu nahi izan duen hizkuntza politikak ere. Logika eta hautemate berberak —ikuspegi soziolinguistiko hertsitik ere aisa egin litekeen irakurketa— izpiritu eta helburu arras ezberdineko ekimenak abiarazi ditu. Euskarak ikastolak behar ditu, ezinbestean, Ipar Euskal Herrian arnasa hartuko badu, esate baterako. Hainbeste badaki euskalgintzak, eta hainbeste badakite Frantziako Estatuko botere publikoek. Horren logikan ulertu beharko da ikastolen garapena oztopatzeko Parisetik eta haien menpeko erakundeetatik erakutsitako jarrera. Espainiako Estatutik eta Yolanda Barcinaren gobernutik zuzenean edo zeharka D ereduaren aurkako erasoak gertatzen denean ere

antzeko logika bat suma liteke, euskarak arnasa nondik hartzen duen eta nondik hartu beharko lukeen ongi aski dakitela argi ikusten baita.

BEC

Euskararen arnagune eta espazio hegemoniko nabaria da bertsolaritzaren esparrua, eta horren erakusgarririk gorena, haren tamainari eta oihartzun sozialari esker batez ere, Bertsolari Txapelketako finala dugu. 14.000 lagun inguru elkartuta (gehi hedabideen bitartez jarraitzen dutenak), euskara hutsezko jardunean, eta gainera hitza, euskarazko hitza, protagonista eta erdi-erdian kokatuta. BECeko finala bertsogintza da, bertsolaritza da, inongo zalantzarik gabe, baita hori baino askoz gehiago ere: euskara da, hiztun komunitate bizia, arnasestuka ibiltzen ohituta dagoen giza-taldea arnasaldi sakon eta osasungarrian. Lau urtetik behin gertatzen da erakustaldia, baina lau urte horien bitartean bertso-jardunak arnasa hartzen laguntzen die lurralde, adin, pentsaera, eta hizkuntza-tipologia oso ezberdineko hainbat euskalduni.

Bakoitzari berea

Arnaguneen ideiak sor lezakeen gehiegizko lilura saihestuz, eta euskararen normalizazioaren zama osoa haien gain jar litekeenik pentsatzera iritsi gabe, euskara berreskuratzeko lanean kontzeptu operatibo gisa duen balioa eta erreminta praktikoa eta zehatz gisa duen indarra berresten ari dela dirudi. «Arnaguneak babestu beharra»ren ideiatik harago, arnaguneak indartu eta hedatzeko lana lehenetsi eta gauzatzea izanen da gaurko eta biharko euskalgintzaren funtsezko eginkizunetako bat. 🍷



Telepolis

Gorka Julio

Handien arrastoari begira

Jakina da Internet erraldoia dela eta milaka gauza aurkitu daitekeela bertan, baina aldi berean azken garaiotan bereziki Internet gutxi batzuen eremu ere bilakatu da. Joera horrek azken urteotan indar berezia hartu du, nahiz eta bere hasierako izaeraren ondorioz eredu alternatiboen sorrera oraindik posible den.

Internet esparru libre bezala baino, enpresa horiek guztiek beraien mesedetarako izaten diren «merkatu espazio itxiak» sortzeko joera gero eta handiagoa da. Mugikorretako aplikazioetan gertatzen den bezala, «merkatu» bakar bati lotutako aplikazioak erosi edo lortzea bilatzen dute. Alternatibak, beraz, ez dira jokoan sartzen, edo jende arruntarentzat esfortzu berezi bat suposatzen dute.

Hala ere, gustatu edo ez, enpresa horien nagusitasuna argia da. Google, Facebook, Microsoft, Amazon, Ebay, Apple, Yahoo, PayPal, Twitter... enpresei buruz ari gara, noski. Gure jendartean garrantzitsu bihurtu diren enpresa horiek gero eta esparru gehiago hartzen dituzte; goazen, bada, egiten dituzten azken mugimenduak aztertzerara.

Ebay *online* enkante eta salmenta zuzenetarako dendak, adibidez, 13.000 kotxe saltzen omen ditu astero mugikorretatik konektatutako gailuetatik soilik, *The New York Times*-ek argitaratutako datu baten arabera. Harrigarria badi-rudi ere, kotxeak erosteko bide garrantzitsua bihurtzen ari da Internet, datuek behintzat hori erakusten dute. Amazonek ere interes berdina erakutsi du horretan, eta, marketing biral bezala uler daitekeen ekimen baten bidez, kaxa erraldoietan sartutako kotxeak saltzen hasi da.

Applek bere inperioa zabaltzen saiatzen dihardu. Horretarako Txina jomugatzat jo du, eta India bezalako beste herrialde batzuetan ere orain arte sortu ez dituen beste modelo merkeagoak sortzera ausartu daiteke. Horretaz gain, zurrumuruak zurrumuru, orain arte bankuen negozio ziren maileguen eta gordailuen kudeaketan ere sartzeko asmoa duela dionik ere bada. Momentuz, ordainketa gero eta zuzenagoak egitearekin konformatzen da, baina PayPal bezala ordainketa metodo berrietan ere ikertzen ari dira.

Badira mundu honetan aspaldiko ezagunak ere, Microsoft eta Yahoo kasu. Microsoft jokoan munduan indartsu dabil azken aldian bere X-Boxarekin, eta, horretaz gain, etorkizuneko esperantza mugikorretan jarrita dauka orain.

Yahoo, denbora luze batean ia desagertuta egon ondoren, berriro posizioak hartuz doa. Azken aldian, hedabideen munduan kokatzen ari da Yahoo News-en bidez, eta baita lortu ere, bisita kopuruan AEBetako arrakastatsuenen artean kokatu baita. Orain, mugikorretara bideratutako albiste batzailea den Yahoo Digest aplikazioarekin egingo du proba.

Zer esan Facebook eta Twitter sare sozialen inguruan. Facebookek, Yahoo bezala, albisteen inguruko trafikoa sartu nahi duela dirudi, eta horretarako Paper aplikazioa atera nahi du. Horretaz gain, beste enpresa txiki asko erosten ari da Facebook. Horietatik nabarmentzeko bat Instagram, mugikorretik argazkiak egin eta partekatzeko aplikazio ezaguna.

Twitter, aldiz, bere negozioa berregituratzen ari da burtsara atera zenetik, baina bere tresnarekin publizitatearen bidez dirua ateratzeaz gain, argi dauka Interneteko arrakasta neurgailu bezala kokatu nahi duela.

Bukatzeko, Google erraldoia utzi dugu. Aipatu ditugun arlo gehienetan ere lanean ari dela aipagarria da. Oraindik, azken urteetan bezala, Android sistema eragilearen garrantzia garrantzitsua izango da, baina Nest enpresaren azken eraketak Googlek gure etxetako txoko txikienetara sartu nahi duela erakusten du. Enpresa horrek ke detektagailu eta termostato «adimendunak» egiten ditu; beraz, era horreta-

ko gailuak gure etxeetara Googlen bidez iristea espero dezakegu.

Ikusten denez, handiek ez dute atsedetik hartzen zentralak izaten jarraitzeko, eta momentuz lortzen ari dira.

Ekuador eta Bolivia software librearen bidetik

Software, hardware eta kultura librearen lerro hauetako lan lerro bat izango direla aurreratzen dizuet. Oraingoan, Amerikako bi herrietan aurrera eramaten ari diren esperientziei buruz hitz egingo dugu, Bolivia eta Ekuadorreko esperientziak.

Boliviak urte hasieran software librearen txertatzearekin loturik erabaki garrantzitsuak hartu ditu. Alde batetik, Software Enpresa Nazional bat sortzea bideratuko du. Horren helburua Boliviak behar duen softwarea garatzea izango da. Beste alde batetik, zazpi urteko epea jarri dute administrazioko sistema eta baliabideak software librerara pasatzeko.

Ekimen horiekin, urtean lizentziatan gastatzen dituzten sei milioi dolar aurrezteaz gain, subiranotasun teknologiko eta segurtasunean ere aurrerapausoak eman nahi dituzte. Alde batetik, horrek guztiak sortuko duen ezagutza bertan geldituko baita eta, beste alde batetik, orain arteko AEBekiko morrontza txikituko dutelako.

Ekuadorren, aldiz, determinazio handiarekin ari dira software librearen bidetik, baina ez bakarrik. Software librearekiko konpromisoa zaharra da: OpenOffice erabiltzen dute ordenagailu askok, Zimbra posta elektronikoko tresna erabiltzen dute. GNU/Linux ere badute Biltzar Nazionalaren ordenagailu gehienetan... Bozketa sistemak kontrolatzeko eta gobernu eztabaiden kudeaketarako eCurul sistema ere bere egin dute. Argi dute, eta Ximena Amoroso Ekuadorko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza idazkariordeak horrela adierazten du:

Komunitateak egindakoa da, era horizontal, kooperatibo eta gardenean garatzen da; balio gehigarria du; erabilpenari mu-

gak ezartzen dizkioten beste ereduaren aurrean tokiko ekonomia sustatzen du, mantentzea gertuko enprekin aurrera eraman daitekeelako; subiranotasun teknologikoan aurrera egiteko ezinbestekoa, neokolonialismo teknologikoaren aurrean autonomia eskuratzeko. Eraldaketarako tresna estrategikoa da, eraldaketa sozial edo produktibo benetako batek beharrezko duen kohesio soziala lortzeko hizkuntza, kultura eta irisgarritasuna kontuan hartzen baititu.

Orain, aldiz, askoz haratago doan Floksociety (<http://floc.society.org>) ekimena martxan jarri berri dute. Ekuadorreko Gobernuak ekonomia erausleari kontrajarri eta ezagutzan, naturaren errespetuan eta kultura irekian oinarritutako ekonomia sozial batera igaro nahi du. Ekoizpen ereduaren eraldaketaren bidez, ezagutza libre, komun eta irekia oinarri izango duen jendarte bat eraikitzen hasteko.

Ez dute bakarrik egin nahi, eta karta ireki baten bidez munduan ekinbide honetan parte hartu nahi dutenei gonbidapena luzatu diete. Interneteko plataformaren bidezko tresnen bidez –foro, wiki, pad, eztabaida foro, audio txat...– ekarpenak jaso eta lanean jarduteko aukera ere ematen dute.

Bi adibide zehatz, software librearen hedapena bilatzen duten ekinbide politiko ezberdinetatik. Goitik behera proposatutako ekimenak izanik ere, momentuz badirudi bere emaitzak ematen ari direla. Ikusiko dugu aurrerantzean ere zer gertatzen den, baina behintzat saiakera serioak biak.

Teknomoda

Gero eta gailu gehiago daramatzagu gainean, baina soinean eramaten ere hasiko gara. Horixe proposatzen digute behintzat, teknologia janzteko eta soinean eramateko izango baita.

Horixe da Google Glass (www.google.com/glass/start) eta Smartwatch bezalako gailuek proposatzen digutena, betaurreko eta erloju adimendunak, hurrenez hurren. Lehenak ikusten ari garen informazioaren gainean eta betaurrekotan bertan testuinguruari buruzko informazioa eskaintzen

du. Bigarrenak, aldiz, normalean mugikorrean jasotzen ditugun abisuak bertan jaso eta mugikorra atera gabe zenbait ekintza egiteko aukera.

Gailu horiek guztiak oraindik urrun daude jendarteak bere egitetik. Esango nuke, gainera, horietako gehienak bidean geldituko direla. Oso gutxiren eskura iritsiko dira eta ez dute lehen fase honetan behintzat aldaketa handirik ekarriko. Beste gauza bat da horien atzetik etorriko direnek izan dezaketena.

Borroka hortxe dago, mugikorrek jendartean txertatzeko izan duten erraztasuna errepikatu edo hobetuko duen gailua aurkitzea. Badirudi gauzei «adimena» gehituko dieten ordenagailu txikien bidez josiak izatea dela etorkizuneko proposamena.

Azkenean badirudi, gutxika, behintzat, aspalditik hitz egingen den Gauzen Internet ere badatorrela guregana. Gauza askok izango duten Interneterako konexioari esker, informazioa jaso, aztertu eta trukatzeko aukera izango dute gailuek, eta horrek bide berriak ireki ditzake.

Bidea Arduino eta Raspberry Pi plaka eta ordenagailu programagarri libreek ireki dute maila batean. Horien inguruan bildutako komunitateek etorkizuna gaur esperimentatzeko aukera eman die askori. Orain, horren bertsio komertzialagoak ikusiko ditugu, besterik ez.

Intel bezalako handiek ere bide hori ikusi dute, eta Edison (www.intel.com/content/www/us/en/do-it-yourself/edison.html) bezalako SD txartel baten tamainako ordenagailu programagarriarekin saiatuko direla dirudi. Aukerak aztertzeke, ordenagailu txiki hori erabili eta garapenak proposatzen dituztenentzako erronka martxan jarri dute (<http://makeit.intel.com>).

Ikusiko dugu zein punturaino izango duen arrakasta, baina etorkizuna jantzita edo soinean eramango dugun gailu programagarriak izateko bidea irekitzen ari da. Jantzita baino, gorputzarekin integratuta izatean sortuko dira duda gehien, eta beharbada baita arazo gehienak ere. 🤖